



HEMEN NAUZU II

ATALEN ZERREDA

1. ABENDUA, zain egon, itxaropena, eguberria
2. ADI EGON, erne, konsziente-sentibera izan – *Askapena*
3. AHULDADEA, estualdia, tentsioa, etsipena
4. AITA, Jesusen Aita, Gure Aita
5. ALAITASUNA, poza – *Zoriontasunak*
6. APALTASUNA, biluztasuna, onarpena – *Konfiantza*
7. ASKAPENA, pobreak, justizia – *Konpromisoa*
8. BIZITZA, etapak, gaisotasuna, heriotza
9. BIZITZA OSATUA, oreka, leialtasuna, zintzotasuna – *Zoriontasunak*
10. DEIA, bokazioa – *Jarraipena*
11. EGUNERO, goizean, arratsaldean, gauean
12. EMAKUMEA, emakumearen alde
13. ESKER ONA, aintza, bedeinkapena
14. ESPIRITUA, Jesusen Espiritua
15. FEDEA, sinesmena, kredo – *Misterioa*
16. GIZAKIA BILA, Jainko egarria – *Misterioa*
17. GIZAKIA ZUTIK, gizakiaren alde – *Ahuldadea*
18. GURUTZEA, nekaldia, Aste Santua – *Pazkoa*
19. HEZIKETA, eskola – *Misioa*
20. IZADIA, kreazioa, natura
21. JARRAIPENA, eskaintza, iraupena – *Deia, misioa*
22. JESUS, Berri ona, Jainko erregetza – *Zoriontasunak*
23. KONFIANTZA, Jainkoa oinarri–euskarri – *Apaltasuna*
24. KONPROMISOA, koherentzia, zerbitzua, solidaritatea – *Askapena*
25. KRISTAU ELKARTEA, Eliza – *Salletar elkarte*
26. MAITASUNA, bakea, barkamena, partekatzea, eukaristia
27. MARIA, Jesusen Ama
28. MISIOA, bidaliak, testigutza, eginkizuna – *Deia, heziketa*
29. MISTERIOA, otoitza, Presentzia, Traszendentzia – *Gizakia bila*
30. PAZKOA, piztuera, Kristo – *Fedea*
31. SALLESTAR ELKARTEA, Araudia, asoziazioa – *Kristau elkarte*
32. ZORIONTASUNAK ebanjelioko eskemari jarraituz – *Jesus*
33. *GARIZUMA

OTOITZAK - ATALEZ ATAL

1. **ABENDUA, zain egon, itxaropena, eguberria**

[Eguberri argitsetarako](#)
[Egunez dator](#)
[Gauerdian jaioa](#)
[Gurekin dago](#)
[Hona hemen gure haurra](#)
[Itxaropen kanta](#)
[Itxarote guztien Ama](#)
[Izan bihotz, bakarrik egoteko](#)
[Jainkoaren gizakundeari salmoa](#)
[Jainkoaren irmotasuna](#)
[Non dago juduen errege](#)
[Sasoia](#)
[Urte berrirako bedeinkapena](#)
[Zuhaitza hazi](#)

2. **ADI EGON, erne, konsziente-sentibera izan – Askapena**

[Aldaketa](#)
[Aldatzen ikasteko otoitza](#)
[Begiak, bihotza eta eskuak](#)
[Beti hor zaude!](#)
[Eguneroko dohaina](#)
[Erne](#)
[Izan ulerbera](#)
[Jauna, emadazu zure begirada](#)
[Kale ertzean](#)
[Zu behartsuen alde](#)

3. **AHULDADEA, estualdia, tentsioa, etsipena**

[Bizitza, labirinto denean](#)
[Erakuts iezadazu](#)
[Etorkizunenik orainaldira](#)
[Goizero](#)
[Hemen gaituzu](#)
[Ilunbetan barna](#)
[Jainko errukiorra](#)
[Negarrez...](#)
[Ni bekatari](#)
[Nire bihotza pobrea da](#)
[Oroit zaitez](#)
[Otoitzean atsedean hartuz](#)
[Zure esku handietan](#)

4. **AITA, Jesusen Aita, Gure Aita**
[Hedadurarik gabekoen otoitza](#)
[Santu izan bedi zure Aita izena](#)
[Zu zaitut nire uste ona](#)
5. **ALAITASUNA, poza – Zoriontasunak**
[Erakutsi barre egiten](#)
[Umore onaren otoitza](#)
6. **APALTASUNA, biluztasuna, onarpena – Konfiantza**
[Ai, ene Jainko!](#)
[Belarriak ireki zenizkidan](#)
[Ez epaitu](#)
[Ez naiz nahi nukeen bezalakoa](#)
[Hazia izan](#)
[Huts egiteak aitortzeko grazia](#)
[Jainko gaixoa](#)
[Jainko Jainkoa da](#)
[Maitasuna erdiesteko kontenplazioa](#)
[Ulertzen ez dudanean](#)
[Zein izango ote da urratsa](#)
[Zertarako nahi duzu](#)
[Zuk nahi duzuna](#)
7. **ASKAPENA, pobreak, justizia – Konpromisoa**
[Amestutako senidetasuna](#)
[Aska gaitzazu](#)
[Errealitateaz arduratu](#)
[Jauna, barka nazazu](#)
[Maite dut askatasuna](#)
[Non dira nire haurrideak](#)
8. **BIZITZA, etapak, gaisotasuna, heriotza**
[Egunerokotasunaren Jauna](#)
[Ez zaitez inoiz gelditu](#)
[Gorespen otoitza](#)
[Heriotza ez da amaiera](#)
[Heriotzeak desagiten du](#)
[Hildako baten alde otoitza](#)
[Jauna, ez al da gehiegitxo izan?](#)
[Maite duzun baten aldeko otoitza](#)
[Sinesten dut bizitza](#)

9. **BIZITZA OSATUA, oreka, leialtasuna, zintzotasuna – Zoriontasunak**
[Aldaketa](#)
[Amestutako senidetasuna](#)
[Bedeinka itzazu nire zentzumenak](#)
[Bihotza aldatzen uztea](#)
[Bizitza aukera bat da](#)
[Eguneroko dohaina](#)
[Emadazu bihotz berria](#)
[Erauzi nire bihotzeko miseria](#)
[Funtsezkoena bilatzea](#)
[Goizero](#)
[Har ezazu eta...](#)
[Igande goizeko otoiza](#)
[Santuak izatera deituak](#)
[Zure egintza gurea ere bada](#)
10. **DEIA, bokazioa – Jarraipena**
[Aska nazazu nigandik](#)
[Bateratzea](#)
[Ikasturtea hasteko otoitza](#)
[Jainko-zerbitzariaren bokazioa](#)
[Jauna, norengana joango gara?](#)
11. **EGUNERO, goizean, arratsaldean, gauean**
[Arratseko otoitza](#)
[Goiz argi](#)
[Kristo nire loaldian](#)
12. **EMAKUMEA, emakumearen alde**
13. **ESKER ONA, aintza, bedeinkapena**
[Bedeinka itzazu nire zentzumenak](#)
[Bedeinkatuak errukitsuak](#)
[Gorespen otoitza](#)
[Hemen nauzu berriro ere](#)
[Otoitzean atsedean hartuz](#)
[Teresa de Liseux gogoratuz](#)
[Urte berrirako bedeinkapena](#)
[Ustekabea](#)

14. **ESPIRITUA, Jesusen Espiritua**
[Espiritu Santua](#)
[Har ezazue Espiritua](#)
[Jesusek ikusi zuen](#)
[Zatoz Aitareen eta Semearen Espiritua](#)
[Zure dohaina errezibitu nahi dut](#)
15. **FEDEA, sinesmena, kredoa – *Misterioa***
[Biziaren Jainkoagan sinesten dugunok](#)
[Eman Zure argia](#)
[Jauna, handitu gure fedea](#)
[Sinetsi bihotzez](#)
16. **GIZAKIA BILA, Jainko egarria – *Misterioa***
[Behar zaitut, Jauna](#)
[Berandu maite zaitut](#)
[Bidearen bila](#)
[Goiz argi](#)
[Non dago juduen errege](#)
[Norabidearen zentzua](#)
[Oihu degizut](#)
[Urratzen ditugun bide guztiak](#)
[Zure aurpegi bila](#)
[Zure bila atsedetik gabe](#)
17. **GIZAKIA ZUTIK, gizakiaren alde – *Ahuldadea***
[Bilbearen edertasuna](#)
[Giza eskubideen aldeko otoitza](#)
[Giza eskubideen egunerako letania](#)
[Haiti herriko jendearen alde](#)
[Negarrez...](#)
[Non dira nire haurrideak](#)
[Zu behartsuen alde](#)
[Zure bila, Jauna](#)
18. **GURUTZEA, nekaldia, Aste Santua – *Pazkoa***
[Ezin izango dute hil](#)
[Gurutze apalagoa](#)
[Utzi kuria, Pedro](#)
[Utzi nuen](#)

19. **HEZIKETA, eskola – Misioa**
[Begiak, bihotza eta eskuak](#)
[Bestea, aurkitu beharreko oparia](#)
[Hezitzailearen otoitza](#)
[Ikasturtea hasteko otoitza](#)
[Maisuak, lekukoak, mezulariak](#)
[Zu hezitzaile zaitut](#)
20. **IZADIA, kreazioa, natura**
[Asisko anai Frantziskori](#)
[Lurraren kanta](#)
21. **JARRAIPENA, eskaintza, iraupena – Deia, misioa**
[Aska nazazu nigandik](#)
[Belarriak ireki zenizkidan](#)
[Buztina](#)
[Ez esku eman](#)
[Ez zaitez inoiz gelditu](#)
[Har nazazu eskutik](#)
[Ibiliko naiz](#)
[Ilunbetan barna](#)
[Izan ulerbera](#)
[Jaitsi nire gau honetara](#)
[Urratzen ditugun bide guztiak](#)
[Zure bideak erakutsi, Jauna](#)
[Zureganatu ezazu](#)
22. **JESUS, Berri ona, Jainko erregetza – Zoriontasunak**
[Arrazoia zuen Jesusek](#)
[Bedeinkatuak errukitsuak](#)
[Erreinuaren aldeko konpromisoa](#)
[Erreinuaren haziak](#)
[Esazu bihotzarekin](#)
[Gurekin dago](#)
[Hura poza nirea](#)
[Jesus, gure Jaun bakarra](#)
[Jesus, ondasun-iturri](#)
[Maite dut askatasuna](#)
[Nire indarra eta nire porrota](#)
[Sartu, Jauna](#)
[Zure egintza gurea ere bada](#)
[Zuregandik begiratu](#)

23. KONFIANTZA, Jainkoa oinarri–euskarri – *Apaltasuna*

[Ai, ene Jainko!](#)

[Aska gaitzazu](#)

[Egunerokotasunaren Jauna](#)

[Ene bizitzaren Jaun hori](#)

[Erakuts iezadazu](#)

[Eraman nazazu, Jauna](#)

[Ezin zaitut estutu](#)

[Hemen nauzu berriro ere](#)

[Hustu nire idoloak](#)

[Jainko Jainkoa da](#)

[Jauna, norengana joango gara?](#)

[Libra nire begiak heriotzatik](#)

[Mikro-makro eta areagokoa](#)

[Oroit zaitez](#)

[Zein izango ote da urratsa](#)

[Zeuk erakusten didazu bizibidea](#)

[Zu bakarrik](#)

[Zu bakarrik behar!](#)

[Zure denboraren zentzua behat dut](#)

[Zu zaitut nire uste ona](#)

24. KONPROMISOA, koherentzia, zerbitzua, solidaritatea – *Askapena*

[Ama Teresaren otoitza](#)

[Banatu eta partekatu](#)

[Bilbearen edertasuna](#)

[Bizitza gastatzea](#)

[Errealitateaz arduratu](#)

[Erreinuaren aldeko konpromisoa](#)

[Esku elkartuak](#)

[Hobeto zerbitzatzeko](#)

[Igande goizeko otoiza](#)

[Kale ertzean](#)

[Koherentzia](#)

[Maitasuna erdiesteko kontenplazioa](#)

[Oinez joango naiz](#)

25. **KRISTAU ELKARTEA, Eliza – *Salletar elkartea***
[Anaidiaren aldeko otoitza](#)
[Andre Maria, gure askapena](#)
[Ebanjelioraren zerbitzurako](#)
[Edonor zarela ere](#)
[Elizaren aldeko otoitza](#)
[Elkartearen aldeko otoitza](#)
[Hura poza nirea](#)
[Senitartea eraikiz](#)
[Zure izenean bilduta](#)
26. **MAITASUNA, bakea, barkamena, partekatzea, eukaristia**
[Barkamen Jainkoa. Ontasun Jauna](#)
[Bai eder dela senideak elkaturik bizitzea!](#)
[Elkar partekatuz](#)
[Etty-ren eukaristia](#)
[Ez epaitu](#)
[Huts egiteak aitortzeko grazia](#)
[Jainkoaren irmotasuna](#)
[Jauna, barka nazazu](#)
[Maite dugu](#)
[Nire bizitzaren Jainkoa](#)
[Senidea erregalia](#)
[Uste on](#)
27. **MARIA, Jesusen Ama**
[Itxarote guztien Ama](#)
28. **MISIOA, bidaliak, testigutza, eginkizuna – *Deia, heziketa***
[Bateratzea](#)
[Erreinuaren haziak](#)
[Etorkizunenik orainaldira](#)
[Maisuak, lekukoak, mezulariak](#)
[Nire lagunen aldeko otoitza](#)
[Zure biluztasunean](#)
[Zure egintza gurea ere bada](#)

29. MISTERIOA, otoitza, Presentzia, Traszendentzia – *Gizakia bila*

[Alaitasun kanta](#)
[Bai, ixilik zaude](#)
[Beti hor zaude!](#)
[Bihotza erromes](#)
[Ez zaitez desagertu nire barrutik](#)
[Ezberdin ikusten omen da](#)
[Isildu egin nahi dut unetxo batez](#)
[Izan bihotz, bakarrik egoteko](#)
[Jauna, non bilatu zu](#)
[Murmurioak](#)
[Nire bizitzaren Jainkoa](#)
[Zoaz, Jauna](#)
[Zure mendian bizi nahi dut](#)

30. PAZKOA, piztuera, Kristo – *Fedea*

[Ezin izango dute hil](#)
[Sasoia](#)
[Sinesten dut bizitza](#)

31. SALLESTAR ELKARTEA, Araudia, asoziazioa – *Kristau elkarte*

[Bestea, aurkitu beharreko oparia](#)
[Nire lagunen aldeko otoitza](#)
[Taupaden elkarte](#)
[Zure egintza gurea ere bada](#)
[Zure izenean bilduta](#)

32. ZORIONTASUNAK ebanjelioko eskemari jarraituz – *Jesus*

[Eliz zoriontasunak](#)
[Hemen gaituzu](#)
[Nik pozaldia iragartzen dizuet](#)
[Zorionekoak maitatzen dutenak](#)

33. *GARIZUMA

Bihotza aldatzen uztea
Garizuma iragartzeko
Garizumako pregoia
Hustu nire idoloak
Jainkoak nahi duen baraua
Jainkoarengana bihurtzea
Jainko-zerbitzariaren bokazioa
Jaitsi nire gau honetara
Iustua Jainkoaren aurrean
Libra nire begiak heriotzatik
Ni bekatari
Nire bihotza pobrea da
Sartu, Jauna
Zure gurutzea... nire hegalaldia...
Zuregandik begiratu

OTOITZAK – ALFABETIKOKI

OTOITZA	EGILEA	ITZULTZAILEA	ORRIA	ATALA
Ai, ene Jainko!	Pello Esnal		19	6, 23
Alaitasun kanta	San Joan Gurutzekoa	Patxi Ezkiaga	21	29
Aldaketa	Fermín Gainza		23	2, 9
Aldatzen ikasteko otoitza		Patxi Ezkiaga	24	2
Ama Teresaren otoitza	Kalkutako Ama Teresa	Patxi Ezkiaga	26	24
Amestutako senidetasuna	Pedro Casaldaliga		27	7, 9
Anaidiaren aldeko otoitza			28	25
Andre Maria, gure askapena	Pedro Casaldáliga	Patxi Ezkiaga	29	27
Arratseko otoitza	Dietrich Bonhoeffer		31	11
Arrazoa zuen Jesusek	Jose Antonio Pagola		32	22
Asisko anai Frantziskori	Patxi Ezkiaga		34	20
Aska gaitzazu			35	7, 23
Aska nazazu nigandik	Benjamín González Buelta, sj	Jon Lezamiz	37	10, 21
Bai eder dela senideak elkarturik bizitzea!	Mariano San José Díez		38	26
Bai, ixilik zaude	J.A. Artze		39	29
Banatu eta partekatu	Florentino Ulibarri		40	24
Barkamen Jainkoa. Ontasun Jauna			41	26
Bateratzea	Benjamín González Buelta, sj	Jon Lezamiz	43	10, 28
Bedeinka itzazu nire zentzumenak	Sabine Naegeli		44	9, 13
Bedeinkatuak errukitsuak			45	13, 32
Begiak, bihotza eta eskuak			46	2, 19
Behar zaitut, Jauna	Teilhard de Chardin		47	16
Belarriak ireki zenizkidan		Patxi Ezkiaga	48	6, 21
Berandu maite zaitut	San Agustin		49	16
Bestea, aurkitu beharreko oparia			50	19, 31
Beti hor zaude!	Florentino Ulibarri		53	2, 29
Bidearen bila	Patxi Ezkiaga		55	16
Bihotza aldatzen uztea	Mari Patxi Ayerra	Jon Lezamiz	56	9, 33
Bihotza erromes	Alain Lerbret	Iokin Otaegi	57	29
Bilbearen edertasuna	Humberto Pegoraro		58	17, 24
Biziaren Jainkoagan sinesten dugunok	Antonio López Baeza		59	15
Bizitza aukera bat da	Kalkutako Ama Teresa		60	9
Bizitza gastatzea	Luis Espinal		61	24
Bizitza, labirinto denean	Patxi Ezkiaga		62	3
Buztina	Valentín Arteaga	Jon Lezamiz	63	21
Ebanjelioraren zerbitzurako	Benedikto XVI.	Joxe Erzibengoa	64	25
Edonor zarela ere	Bruselako Ste. Catherine	Patxi Ezkiaga	65	25
Eguberri argitsetarako	Paolo Curtaz	Jon Lezamiz	66	1
Eguneroko dohaina			67	2, 9
Egunerokotasunaren Jauna			68	8, 23
Egunez dator	Florentino Ulibarri		69	1
Eliz zoriontasunak	Jose Antonio Pagola		70	32

Elizaren aldeko otoitza			71	25
Elkar partekatuz	Florentino Ulibarri	D. Amundarain	72	26
Elkartearen aldeko otoitza			74	25
Emadazu bihotz berria			75	9
Eman Zure argia	Jacinto López Gorgé	Jon Lezamiz	76	15
Ene bizitzaren Jaun hori	Rabindranath Tagore		77	23
Erakutsiezadazu	Thomas Merton		78	3, 23
Erakutsi barre egiten	Patxi Ezkiaga		79	5
Eraman nazazu, Jauna	John Henry Newman	Jon Lezamiz	80	23
Erauzi nire bihotzeko miseria	Rabindranath Tagore		81	9
Erne			82	2
Errealitateaz arduratu	Florentino Ulibarri	Patxi Ezkiaga	83	7, 24
Erreinuaren aldeko konpromisoa			84	22, 24
Erreinuaren haziak	Florentino Ulibarri		86	22, 28
Esazu bihotzarekin		Patxi Ezkiaga	87	22
Esku elkartuak	Pedro Casaldaliga		89	24
Espiritu Santua			90	14
Etorkizunenik orainaldira		Joxe Erzibengoa	92	3, 28
Etty-ren eukaristia	Etty Hilesum	Joxe Erzibengoa	93	26
Ez epaitu			94	6, 26
Ez esku eman	Mario Benedetti	Patxi Ezkiaga	95	21
Ez naiz nahi nukeen bezalakoa			97	6
Ez zaitetz desagertu nire barrutik	Etty Hilesum	Joxe Erzibengoa	98	29
Ez zaitetz inoiz gelditu	Ama Teresa Kalkutako	Joxe Erzibengoa	99	8, 21
Ezberdin ikusten omen da	José M ^a R. Olaizola		100	29
Ezin izango dute hil	J. Romualdo		101	18, 30
Ezin zaitut estutu	Benjamín González Buelta, sj	Jon Lezamiz	102	23
Funtsezkoena bilatzea	Florentino Ulibarri	Jon Lezamiz	103	9
Garizuma iragartzeko			105	33
Garizumako pregoia			106	33
Gauerdian jaioa	Patrick Richard	Joxe Erzibengoa	107	1
Giza eskubideen aldeko otoitza	Kamerungo otoitza	Joxe Erzibengoa	108	17
Giza eskubideen egunerako letania	Salvador de Madariaga	Joxe Erzibengoa	109	17
Goiz argi	Juan Mari Lekuona		110	11, 16
Goizero	Benjamin Gonzalez Buelta, sj	Jon Lezamiz	112	3, 9
Gorespen otoitza	Frontera-Hegian.	Patxi Ezkiaga	113	8, 13
Gurekin dago	José Antonio Pagola	Joxe Erzibengoa	114	1, 22
Gurutze apalagoa	León Felipe		116	18
Haiti herriko jendearen alde		Joxe Erzibengoa	117	17
Har ezazu eta...			118	9
Har ezazu Espiritua	José Antonio Pagola		119	14
Har nazazu eskutik	Etty Hilesum	Joxe Erzibengoa	121	21
Hazia izan			122	6
Hedadurarik gabekoen otoitza	José M ^a Escudero		124	4
Hemen gaituzu			125	3, 31

Hemen nauzu berriro ere	Arrate A.	Joxe Erzibengoa	126	13, 23
Heriotza ez da amaiera	San Agustín		128	8
Heriotzeak desegiten du	Juan Mari Lekuona		129	8
Hezitzailearen otoitza		Patxi Ezkiaga	130	19
Hildako baten alde otoitza	H. Oosterhuis		131	8
Hobeto zerbitzatzeko			132	24
Hona hemen gure haurra		Joxe Erzibengoa	133	1
Hura poza nirea		Patxi Ezkiaga	134	22, 25
Hustu nire idoloak	A. Sanchís, o.p.	Jon Lezamiz	135	23, 33
Huts egiteak aitortzeko grazia			136	6, 26
Ibiliko naiz			137	21
Igande goizeko otoiza	Etty Hilesum	Joxe Erzibengoa	138	9, 24
Ikarturtea hasteko otoitza			139	10, 19
Ilunbetan barna	John Henry Newman		141	3, 21
Isildu egin nahi dut unetxo batez		Patxi Ezkiaga	142	29
Itxaropen kanta		Patxi Ezkiaga	143	1
Itxarote guztien Ama			144	1, 27
Izan bihotz, bakarrik egoteko	Karl Rahner	Juan M ^a Irigoien	145	1, 29
Izan ulerbera	Luis de Lezama	J.M. Agirrezabalaga	146	2, 21
Jainko errukiorra	Anselm Grün		148	3
Jainko gaixoa	Jose M ^a R. Olaizola		149	6
Jainko Jainkoa da		Joxe Erzibengoa	150	6, 23
Jainkoak nahi duen baraua	Isaias	Jon Lezamiz	151	33
Jainkoaren gizakundeari salmoa	José María Mardones	Patxi Ezkiaga	152	1
Jainkoaren irmotasuna	Valentín Arteaga		154	1, 16
Jainkoarengana bihurtzea	Ignacio Iglesias, sj	Jon Lezamiz	155	33
Jainko-zerbitzariaren bokazioa	Isaias 42,1-9	Jon Lezamiz	157	10, 33
Jaitsi nire gau honetara	Pedro Miguel Lamet, sj	Jon Lezamiz	158	21, 33
Jauna, barka nazazu	Sor Lucía Caram	Joxe Erzibengoa	159	7, 26
Jauna, emadazu zure begirada		Patxi Ezkiaga	160	2
Jauna, ez al da gehiegitxo izan?	Etty Hilesum	Joxe Erzibengoa	161	8
Jauna, handitu gure fedea	Jose Antonio Pagola		162	15
Jauna, non bilatu zu	San Anselmo		164	29
Jauna, norengana joango gara?	José M ^a R. Olaizola, sj	Jon Lezamiz	165	10, 23
Jesus, gure Jaun bakarra	Jose Antonio Pagola		166	22
Jesus, ondasun-iturri			168	22
Jesusek ikusi zuen	Fray Marcos	Joxe Erzibengoa	169	14
Justua Jainkoaren aurrean	14. salmoaren egokitza	Jon Lezamiz	170	33
Kale ertzean	Benjamin Gonzalez Bueta, sj	Patxi Ezkiaga	171	2, 24
Koherentzia	Florentino Ulibarri		172	24
Kristo nire loaldian			174	11
Libra nire begiak heriotzatik	José Luis Blanco Vega, sj	Jon Lezamiz	175	23, 33
Lurraren kanta	Michael Jackson	Joxe Erzibengoa	176	20
Maisuak, lekukoak, mezulariak			178	19, 28
Maitasuna erdiesteko kontenplazioa	Ignacio Iglesias		180	6, 24

Maite dugu	J.A. Artze		181	26
Maite dut askatasuna			182	7, 22
Maite duzun baten aldeko otoitza	Ignacio Larrañaga		183	8
Mikro-makro eta areagokoa	J.A. Artze		184	23
Murmurioak	Benjamin Gonzalez Buelta, sj	Patxi Ezkiaga	185	29
Negarrez...	León Felipe		186	3, 17
Ni bekatari	Ignacio Iglesias, sj	Jon Lezamiz	187	3, 33
Nik pozaldia iragartzen dizuet	J. de Lima		188	32
Nire bihotza pobrea da			189	3, 33
Nire bizitzaren Jainkoa	Karl Rahner		191	26, 29
Nire indarra eta nire porrota	Pedro Casaldaliga		192	22
Nire lagunaren aldeko otoitza	Jose María Escudero		193	28, 31
Non dago juduen errege	Fray Marcos	Joxe Erzibengoa	194	1, 16
Non dira nire haurrideak	Blanca N. Zapata	Joxe Erzibengoa	195	7, 17
Norabidearen zentzua	Patxi Ezkiaga		197	16
Oihu degizut	San Frantzisko, Salesekoa		198	16
Oinez joango naiz			199	24
Oroit zaitez	Patxi Ezkiaga		200	3, 23
Otoitzean atsedean hartuz	Javier Garrido		201	3, 13
Santu izan bedi zure Aita izena	Jose Antonio Pagola		202	4
Santuak izatera deituak	Mari Patxi Ayerra		204	9
Sartu, Jauna	Antonio Ordóñez, sj	Jon Lezamiz	206	22, 33
Sasoia		Patxi Ezkiaga	207	1, 30
Senidea erregalia	Florentino Ulibarri		208	26
Senitartea eraikiz	Ignacio Larrañaga		209	25
Sinesten dut bizitza	Bitoriano Gandiaga		210	8, 30
Sinetsi bihotzez	Jose M ^a Rdez Olaizola	Patxi Ezkiaga	211	15
Taupaden elkarte			212	31
Teresa de Liseux gogoratuz	Etty Hilesum	Joxe Erzibengoa	213	13
Ulertzen ez dudanean	Florentino Ulibarri		214	6
Umore onaren otoitza	Thomas Moore		215	5
Urratzen ditugun bide guztiak	Patxi Ezkiaga		216	16, 21
Urte berrirako bedeinkapena	Florentino Ulibarri		217	1, 13
Uste on			219	26
Ustekabea		Joxe Erzibengoa	220	13
Utzi kuria, Pedro	Pedro Casaldaliga		221	18
Utzi nuen	Iratzeder		222	18
Zatoz Aitaren eta Semearen Espiritua	Karl Rahner		223	14
Zein izango ote da urratsa	Benjamin Gonzalez Buelta, sj		224	6, 23
Zertarako nahi duzu	Santa Teresa Avilakoa	Joxe Erzibengoa	225	6
Zeuk erakusten didazu bizibidea		Joxe Erzibengoa	227	23
Zoaz, Jauna	N. Söderblom		228	29
Zorionekoak maitatzen dutenak	Kl. Hemmerle	Patxi Ezkiaga	229	32
Zu bakarrik	Javi Montes, sj	Jon Lezamiz	230	23
Zu bakarrik behar!	Rabindranath Tagore		231	23

Zu behartsuen alde	Ernesto Cardenal	Joxe Erzibengoa	232	2, 17
Zu hezitzaile zaitut	Pedro Laín Entralgo	Joxe Erzibengoa	233	19
Zu zaitut nire uste ona			234	4, 23
Zuhaitza hazi	Benjamin Gonzalez Buelta, sj	Patxi Ezkiaga	235	1
Zuk nahi duzuna	J.A. Artze		236	6
Zure aurpegi bila	Anselmo Canterburykoa		238	16
Zure bideak erakutsi, Jauna			239	21
Zure bila atsedetik gabe	José Real Navarro	J.M. Agirrezabalaga	240	16
Zure bila, Jauna	San Agustin	Joxe Erzibengoa	241	17
Zure biluztasunean	José M ^a R. Olaizola, sj	Jon Lezamiz	242	28
Zure denboraren zentzua behar dut	Howard Thurman	Jon Lezamiz	243	23
Zure dohaina errezibitu nahi dut			244	14
Zure egintza gurea ere bada			245	28, 31
Zure esku handietan			246	3
Zure gurutzea... nire hegalaldia...	Ignacio Iglesias, sj	Jon Lezamiz	247	33
Zure Hitza	Domingo Martín	Patxi Ezkiaga	248	9, 22
Zure izenean bilduta			249	25, 31
Zure mendian bizi nahi dut	Patxi Ezkiaga		251	29
Zureganatu ezazu	San Ignazio Loiolakoa		252	21
Zuregandik begiratu	Benjamín González Buelta, sj	Jon Lezamiz	253	22, 33

AI, ENE JAINKO!

Loiolako Inazioren ahotan jarritako otoitza, Carafa kardinala, sortu berria zen lagundia batere maite ez zuen kardinala, 1554.eko maiatzaren 5ean Paulo IV Aita Santu egin zutenean.

1. Zu zaitut, Jauna, argi bizia,
zu zaitut argi bakarra,
eguneroko lagun berria,
betiko lagun zaharra.
Hainbat gauetan gidari zintzo
izan zaitudan izarra,
zuri begira berezi ditut
hegoa eta iparra,
non legokeen zoriona ta
non dagoen zoritxarra.
Beraz, zertako negarra,
galduaren deiadarra?
Zure bidea erakustera
badator halabeharra,
zerorrek duzu goiz bihurtuko
oraingo ilunabarra.
2. Zure eskuetan daukazu, Jauna,
nere bizitza osoa:
iraganaren babeseta eta
geroaren eraso.
Zurea duzu nere oraina,
zurea nere lauso:
etxea suak inguratuta,
irrimirrika auzoa.
Norengana jo laguntza eske,
nora zuzendu pauso?
Ni naiz ur-tanta gaisoa,
zu betiko itsasoa.
Zugandik nator, zugana noa,
zabal ezazu besoa,
bete-bete dasta dezadan
maitasunaren gozoa.

3. Zein handia den, zeinen hondoa
zure maitasun betea!
Zeinen gozoa eta ezia
darizun barne-bakea!
Zure altzoa izango ahal dut
behin-betiko aterpea,
hortxe uzteko nere ametsa,
hortxe erromes-nekea
eta urtetan pozez moldatu
dizudan lagunartea.
Ai, ene Jainko maitea,
zabal ezazu atea.
Arren, lagundu egin dezagun
zure azken borondatea
eta erabat etengo dugu
lotzen gaituen katea.

Pello Esnal

ALAITASUN KANTA

Bai, ondotxo ezagutzen dut nik
isurian eta lasterka doan iturriko ura,
gaua bada ere.

Betiereko iturri hura ezkutuan dago,
baina ondotxo dakit non daukan gordelekua,
gaua bada ere.

Haren jatorria ez dut ezagutzen,
ez baitauka jatorririk,
baina badakit guztia harengandik sortua dela,
gaua bada ere.

Badakit guztiz ederra behar duela izan
eta zeru-lurrak bertatik edaten dutela,
gaua bada ere.

Badakit ez daukala hondorik
eta inork ezin duela zeharkatu,
gaua bada ere.

Ezerk ezin du ilundu haren argitasuna
eta bertatik datorkigu argi guztia,
gaua bada ere.

Haren ur emaria guztiz oparoa da
eta handik edaten dute infernuak, zeruak, gizakiek,
gaua bada ere.

Badakit iturri honetatik sortzen den korrontea
guztiz indartsua, guztiz ahaltsua dela,
gaua bada ere.

Badakit bi korronte hauetatik sorturiko korrontea
beste bien parekoa dela,
gaua bada ere.

Betiereko iturri hau, ogi bizian
ezkutatuta dago, guri bizia emateko,
gaua bada ere.

Hemen dei egiten zaie sorkariei
ilunpetan ere ur honetatik ase daitezen,
gaua bada ere.

Grinaz irrikatzen dudan iturri bizia
biziaren ogi honetan ikusten dut,
gaua bada ere.

San Joan Gurutzekoa

ALDAKETA

Aldaketaren aitzakiarekin, noizbehinka, Aita,
dokumentutzarrei eusten diegu,
kakotxen artean jartzen dugu komeni zaiguna
geure anaiari lepoa mozteko.

Eta zuk eskatzen diguzun aldaketa ezberdina da:
gure begi lokaztuak garbi ditzagula eskatzen diguzu
egia egiatasunez ikusi eta
metro zehatzagoekin neurtzeko.

Geure buruko armiarma-sareak kendu
eta argiari bidea egin diezaiogula eskatzen diguzu,
horrela zer-nolako norakoa hartu behar dugun
erabaki dezagun behingoz.

Beldurra eta nagikeria erauzi behar ditugu
gure bihotzetik, gure eskuetatik,
zure seme-alaben jokabideaz jardun dezagun,
lanaren errondan bat eginik.

Gizon-emakume berriari toki egin behar diogu,
zaharra erretiratzen joan dadin;
Espirituari utzi behar diogu
mundu berria eraiki dezan gure buztinez.

Aintza Zuri, Aita on horri, Jaun Piztuaren
argiaz antzaldatzen baikaituzu,
zure Espiritu Santuaren ingudean moldatzen baikaituzu,
zure magalean bat egin dezagun zurekin, betiko. AMEN.

Fermin Gainza

ALDATZEN IKASTEKO OTOITZA

Jauna, erakuts iezaguzu
zure aurpegia aurkitu ahal izateko otoitz egiten.
Eraman gaitzazu isiltasunera,
zure ahotsa entzun ahal izateko.
Garbi ezazu gure begirada
zure zeinuak aurkitzeko gai izan gaitezen.
Emaguzu aldatu behar duguna aldatzeko adorea.
Lagun egiguzu zinez inporta duena bereizten.

Zure aurpegiaren bila jardun nahi dugu,
zure urratsak aurkitu nahi ditugu,
gure albotik joan zareneko ordua ezagutu.
Begirada itzuli behar dugu,
zure begiak aurkitu behar ditugu
eta zure arnasa sentitu, "Aita!" esan ondoren.
Zure begiradan atsedean hartu behar dugu
eta, begirada horretan baitaratuta,
zure betiereko besarkada antzeman.

Emaguzu zure Espiritua,
izan dadin gure gidari,
Harengan oinarrituta berrikusteko gure konbikzioak,
ereduak, keinu eta jarrerak,
xede eta asmoak.

Lagun iezaguzu bereizten.
Lagundu Espirituaren arabera ibiltzen,
ikas dezagun nola aldatu behar dugun.
Eraman gaitzazu, Jauna,
gure kristau bizitzarekin konprometitzera,
legami eta hartzigarri izan dadin
oihuka Erreinuaren etorrera eskatzen duen munduarentzat.

Emaguzu erabakien ordurako ausardia,
emana izateko ordurako eskuzabaltasuna,
lanaren ordurako iraupena.
Indar ezazu gure fede ibiltaria,
bizkortu gure esperantza,
eragin gure maitasunari,
bizi-proiektuetan gauza dadin.
Zure Erreinua hurbil dago
eta ez gara ohartzen.

Bizi berria sortu egiten da
justiziaren, solidaritatearen,
askatasunaren eta bakearen hazitik,
baina ez daukagu kimu horiekin harritzeko
eta haien bizitasunarekin kutsatzeko gaitasunik.

Lagun egiguzu bihotz berritzen,
ikas dezagun gure urratsak zure bideari begira jartzen, aldatzen.
Lagun iezaguzu bereizten.
Erakuts iezaguzu non eta nola izan behar dugun
zure Ebanjelioaren lekuko.

Aita on hori,
lagun iezaguzu aldatzen,
zure Ebanjelioaren lekuko, mezulari
eta egile izan gaitezen.

AMA TERESAREN OTOITZA

Egarri naizenean,
bidal iezadazu edan beharrean dagoen norbait.
Ustekaberen bat daukadanean,
ekar iezadazu kontsolamendua behar duen norbait.
Pobre sentitzen naizenean,
jar nazazu behartsuren baten ondoan.
Norbaitek iraintzen nauenean,
emadazu norbait gorestekoa aukera.
Adorerik gabe nagoenean,
bidal iezadazu adorearen beharrean dagoen norbait.
Ulertua izatearen premia sentitzen dudanean,
bidal iezadazu nire ulermena behar duen norbait.
Zaindua izatearen beharra sentitzen dudanean,
bidal iezadazu nire zainketaren premian dagoen norbait.
Neugan pentsatzen dudanean,
eraman ezazu nire arreta beste norbaitengana.

Jauna, egin nazazu gaurko mundu honetan
gosez bizi eta hiltzen diren nire senide behartsuenei
zerbitzu egiteko gauza.
Emaiezu, nire eskuen bitartez, eguneroko ogia.
Emazkiezu gure errukizko maitasunaren mesedeak:
bakea eta alaitasuna.

AMESTUTAKO SENIDETASUNA

Jesusen ebanjelioak eskatzen digun gauza bakarra
zintzo eta ondradu izatea da;
hau da, gorputzez eta bihotzez,
edonon eta gauza orotan,
txikien, zaurgarrien, behartsuen,
eta indartsuenen biktimen ondoan egotea.

Hortik aurrera,
gure ariman eta kontzientzian,
izan gaitezen zuzentasunaren,
Giza Eskubideen,
Lurraren Eskubideen,
gizabanako eta herrietako askatasunaren,
eta gizon-emakume guztien senidetasunaren
bilatzaile nekaezinak,
defendatzaile eta sustatzaileak.

Jakin dezagun guregan leku zabala gordetzen
gizakioi dagokigun antzera arnasa hartzeko,
jakinduriaz pentsatzeko, adiskidezina adiskidetzeko,
sendaezina sendatzeko,
ona, handia eta ederra pozik ospatzeko,
eta Jesusek inoiz negoziatuko ez zuenarekin
inoiz ez traturik egiteko.

Ez gaitezela tentaldian eror
bidegabekeria bidegabekeriaz borrokatzen,
gezurra egiaren simulazioaz,
gorrotoa gorroto handiagoaz.

Eta, aldi berean, gure izatearen hondoenean,
amestutako senidetasunaren ateak
irekita iraun dezala gizon-emakume guztiontzat.

Pedro Casaldaliga

ANAIDIAREN ALDEKO OTOITZA

Jauna, nire anaidiaren alde eskatzen dizut,
zure asmoak hobeto ezagutu
eta gure mugak hobeto uler ditzagun.

Guk guztiok bestearen beharrak sentitu
eta gure bizikizun egin ditzagun.

Bestearen nekezia, nahigabea, etsipena
inoiz arrotz gerta ez dakigun.

Gure tirabirek,
zatitu ordeztu,
egiaren eta ongiaren bilaketan
bat egin gaitzaten.

Geure bizitza eraikitzean
bestearen ahaleginaren oztopo
izan ez gaitezen.

Gure arteko desadostasunek,
anaidetik inor baztertu ordeztu,
batasunaren aberastasunaren bila
eraman gaitzaten.

Jauna, guztiak zure begiez ikusi
eta elkar maita dezagun zure bihotzak
maitatzen duen legez.

Gure anaidia
eskuzabaltasunean eta sentikortasunean
besteen irritsetara irekita egon dadin,
bere baitaren itxituran sartu ordeztu.

Bide guztien helmugan,
bilaketa guztietatik haratago,
eztabaida eta topaketa bakoitzaren ondoren
garailerik edo garaiturik egon ez dadin,
anai-arrebak soil-soilik baizik.

ANDRE MARIA, GURE ASKAPENA

Nazareteko Maria, Jose arotzaren emazte goiztiar,
kolonia susmagarri bateko herriko alaba,
Pirineoetako haran bateko nekazari anonimo,
Lituania debekatuko otoigile aztoratu,
El Quichéko emakume indiar txiki masakratu,
Rio de Janeiroko faveletako biztanle,
Apartheidaren segregatutako beltz,
Indiako harijan,
munduko ijitokume;
kualifikaziorik gabeko langile, ama ezkongee, klausurako mojarro;
neska, emaztegarri, ama, alargun, emakume.

Txikiei eskainitako Graziaren Kantari,
txikiek bakarrik baitakite nola onartu;
pobreak bakarrik konkistatzen duten Askapenaren profetisa,
pobreak bakarrik izan baitaitezke libre:
zuk bezala hazi nahi dugu,
zurekin otoitz egin,
zure Magnificat bera abestu nahi dugu.

Erakutsiezaguzu -Jainkoa irakurriz-
Biblia irakurtzen,
zure bihotzak irakurtzen zuen bezala,
sinagogetako errutinatik haratago,
fariseuen hipokresiaren gainetik.

Erakutsiezaguzu
-Jainkoa eta gizona irakurriz-
Historia irakurtzen,
zure fedearen intuizioaren arabera,
Israel zapalduaren lotsapean,
Erromatar Inperioaren harrokeriari aurre eginez.

Erakutsiezaguzu
-Jainkoa eta geure buruak irakurriz-
Bizitza irakurtzen,
zure begiek, zure eskuek, zure min eta itzaropenek
aurkitzen zutenaren arabera.

Erakuts iezaguzu egiazko Jesus hura,
zure sabeleko haragi, zure herriaren arrazako, zure Jainkoaren Hitz;
gurea, zurea bainoago, herrikoa, etxekoa bainoago,
mundukoa, Israelekoa bainoago, Erreinuarena Elizarena bainoago.

Nazareteko Maria, Magnificaten kantari, Isabelen zerbitzari:
gera zaitez gurekin ere, Erreinua iristear dago eta!,
gera zaitez gurekin, Maria,
Grazia onartzeko gai egin zintuen fedearen apaltasunez,
gera zaitez gurekin,
zuga hazten zihoan Hitzarekin,
gizakoi eta Salbatzaile, judu eta Mesias,
Jainkoaren eta zeure Seme,
gure Anaia, Jesus.

Pedro Casaldáliga

ARRATSEKO OTOITZA

Ene Jainko Jauna, eskerrik asko
egun honen amaierara etortzeagatik.
Eskerrik asko gorputz eta arimaren atsedena emateagatik.
Zure eskua nire gain egon da eta zaindu eta gorde nauzu.
Barkatu nire federik eza eta egunean egin ditudan okerrak,
eta lagun egidazu kalte egin digutenei barkatzeko.
Egizu lasai lo egin dezaadala zure babesean,
Eta gorde nazazu iluntasunaren tentazio guztietatik.
Zure esku uzten ditut maite ditudanak.
Zure esku jartzen ditut nire gorputza eta arima.
Ene Jainko, zure izena izan bedi goretsia.

Dietrich Bonhoeffer

ARRAZOIA ZUEN JESUSEK

Jesus berpiztu hori, arrazoia zenuen.
Egia da, bai, Jainkoaz esan diguzun guztia.
Orain badakigu leiala dela Aita, konfiantza osoa zor diogula.
Heriotza baino harago maite gaituen Aita da.
Hari «Aita» deitzen jarraituko dugu,
inoiz baino fede handiagoz, zuk irakatsi zenigunez.
Seguru gara ez digula huts egingo.

Jesus berpiztu hori, arrazoia zenuen.
Seguru gara orain biziaren adiskide dela Jainkoa.
Hasiak gara hobeto ulertzen guztien bizitza sanoago, zuzenago
eta zorientsuagoaren aldeko zenuen pasioa eta irrika.
Orain ulertzen dugu, zergatik edozein arau edo tradizioaren aurretik,
zergatik jartzen zenuen aurretik gaixoen osasuna.
Zure urratsei jarraiki, bizitza sendatuz
eta sufrimena arinduz biziko gara.
Erlijioa beti jendearen zerbitzura jarriko dugu.

Jesus berpiztu hori, arrazoia zenuen.
Orain badakigu Jainkoak justizia egiten diela biktima errugabeei:
garaipena ematen diola biziari heriotzaren gain,
ongiari gaizkiaren gain,
egiari gezurraren gain, maitasunari gorrotoaren gain.
Borrokan jarraituko dugu gaizkiaren,
gezurraren eta gorrotoaren aurka.
Jainko horren Erreinuaren eta berorren justiziaren bila
ibiliko gara beti.
Badakigu horixe dela Jainkoak gugandik nahi duen lehenengo gauza.

Jesus berpiztu hori, arrazoia zenuen.
Orain badakigu Jainkoak bat egiten duela gurutzean jositakoekin,
inoiz ez borreroekin.
Ulertzen hasiak gara zergatik zaren zu beti sufritzen ari direnekin
eta zergatik defenditzen dituzun horrenbeste pobreak,
gosetuak eta mespretxatuak.
Makalenak eta zaurigarrienak defendituko ditugu,
gizarteak gaizki erabiltzen eta erlijioak ahazten dituenak.
Aurrerantzean, hobeto entzungo dugu zeruko Aitaren antzera
errukitsu izateko deia.

Jesus berpiztu hori, arrazoia zenuen.
Orain ulertzen hasiak gara, apur bat,
zure hitzik gogorrenak eta arraroenak.
Sumatzen hasiak gara
zugatik eta zure Ebanjelioagatik
bere bizia galtzen duenak gorde egingo duela.
Orain ulertzen dugu zergatik gonbidatu gaituzun
zuri jarraitzera azkeneraino,
egunero gurutzea lepoan hartuz.
Zugatik eta zure Ebanjelioagatik apur bat sufritzen jarraituko dugu,
baina laster partekatuko dugu zurekin Aitaren besarkada.

Jesus berpiztu hori, arrazoia zenuen.
Orain bizirik zara betiko
eta gure arten zaitugu zure izenean bizpahiru lagun elkartzean.
Orain badakigu ez gaudela bakarrik,
lagun zaitugula Aitaganako bidean.
Zure ahotsa entzungo dugu zure Ebanjelioa irakurtzean.
Zutaz elikatuko gara zure Afaria ospatzean.
Gurekin izango zaitugu aldien azkeneraino.

Jose Antonio Pagola

ASISKO ANAI FRANTZISKORI

Zeru urdina da nire otoitza,
eguzkiaren beroa,
zelaietako kilker apala,
haraneko galsorua.
Graziaren biluztasun hutsez
jantzi nahi nuke gogoa,
nire doinuek bete dezaten
Jainko-oihartzunez geroa.

Izar-kantua da nire otoitza,
samurtasun du izena,
ipurtargien ahots isila,
uraren doinu ozena.
Bihotz barruan hozka nahi nuke
kriseiluaren eztena,
iluntasuna izan ez dadin
gure lehiaren azkena.

Egunsentia da nire otoitza,
lehen izpien eztanda,
hasiera gardenen aukera,
errukizko besarkada.
Urratsez urrats bizi nahi nuke
barkamenaren bultzada,
bihotz berria izan dakigun
esperantzazko taupada.

Patxi Ezkiaga

ASKA GAITZAZU

Oi gure Jainko, aurrez aurre begiratzen dizugu aska gaitzazun,
bekatuaren egiturek beren atzamarretan
harrapa ez gaitzaten.

Zerbait egin gabe utzi badugu, Jauna,
gure eskuak bidegabekeriaz gainezka badaude,
maltzur jokatu badugu zintzoarekin
eta zapaltzaileari lagundu badiogu...

Une horretatik aurrera
etsipenak ez gaitzala lot
eta ez dezala ito gure itxaropena
gauaren betiereko bakardadean.

Jesus, aurki zaitzagula, hurbil,
Ebanjelioaren beroan.
Aska gaitzazu
agindu zapaltzaile guztietatik.

Gure familiek eta elkarteek
gorets zaitzatela
eta ireki ditzatela bake eta justiziazko ildoak,
oi Jaun, epaile erostezina!

Zure bizitza galdera ikur izan dakigula.
Bidegabekeriaren hats negatiboa
lurrindu dadila zure presentzian,
zuk antzaldatzen baituzu mundua.

Salbatzailea zara,
justiziaren bihotza,
inoiz huts egiten ez duen
gure uste onaren jomuga.

Ahulari segurtasuna ematen diozu,
ardura zure jarraitzaileari,
egitura zapaltzaileen mozerroak kentzen dituzu,
barkamenerako gonbita zara.

Metodo berri birfindu
eta gordeagoak asmatzen badituzte,
beren prentsa adierazpenek gaitzetsi egingo dituzte
eta haien izenak zikinduko du historia.

Jaunak pertsona guztiak onartzen ditu,
salbuespenik gabe.
Eman diezazkiogun eskerrak Jaunari
eta aldarrika dezagun bere presentzia.

ASKA NAZAZU NIGANDIK

Hemen nago, Jauna, tolestuta
erantzunaren zain dagoen
galdera-ikur gisa,
irrika tiranoaren presazko erritmoan.
Zuzendu nire galdera eta egizu
esker oneko mirespen-seinale bat.

Hemen nauzu, Jauna,
esku-ahurra bezain hutsik,
ura jasotzeko
ontzi bat eginda
atzerapenik gabe.
Lasaitu itzazu
eskale antsiatsuaeren hatzak,
dantza eta laudorioko
keinu arin batean

Hemen nauzu, Jauna,
amua bezain kurbatua
altzairuzko segurtasunarekin,
bere ahalegin tenkatuari
bidezko ordainketa gisa
zorrotz bilatzen duen
presa ukigarria.
Bigundu nire zurruntasuna
pita olatuen gainean bezala
kulunka leunean.

Hemen nauzu, Jauna,
zure dohaina onartuz,
Zure misterioaren
poza eta bakea.

Benjamín González Buelta, sj

BAI EDER DELA SENIDEAK ELKARTURIK BIZITZEA!

Bai eder dela senideak elkarturik bizitzea!
Senideak elkarrekin bizitzeak presentzia sortzen du,
freskura, bizi oparoa.
Senideak elkarrekin bizitzeak fruitu on oparo ematen du.
Senideak elkarrekin bizitzeak Jainkoaren bedeinkazioa erakartzen du.

Zein zoriontsua den, gurasoek eta seme-alabek eta senideek
elkar maite duten etxea!
Lokarri ona da odola, baina hobea maitasunaren lokarria.
Maitezko lokarri horretan ikasten dute anai-arrebek jolasean,
elkar ezagutzen, maitatzen, elkar laguntzen, zuzentzen,
zaintzen eta elkarrengatik interesatzen, elkar leial defendatzen,
bertuteak eta balore sozialak praktikatzen.

Maitasuna atsegingarria da, lurrin usaintsua bezala.
Maitasuna argia da gizakientzat.
Maitasunak busti, ernaldu eta aldatu egiten ditu giza errealitateak.
Maitasuna sua da, eta intentzio txarrak garbitzen ditu.
Maitasunak egoismo eta bekaizkeriak desegiten ditu.

Maitasuna irekita egotea da, eta atera egiten gaitu
geure mundu txikitik.
Maitasuna leiala da, ama bere seme-alaba txiki gaixoarekin bezala.
Maitasuna ederra eta paregabea da, udaberriko arrosa bezala.
Maitasuna leuntasuna da, gozoa, ontasuna, atsegin bizia;
ez behazunaren garratza.

Jauna, lagun iezadazu bizitzen, maitasuna ematen
eta senidetasuna egiten.
Emadazu bihotz handia, maitatzeko, zerbitzatzeko
eta nire senideei laguntzeko.

Mariano San José Díez

BAI, IXILIK ZAUDE

Bai, ixilik zaude,
baina guztiak dira Zutaz ixildu gabe ari,
maite zaituztenak bezala,
ezagutzen ez zaituztelako,
maite nahi ez zaituztenak ere.
Agi danez ezin inork
ez ezerk bestetaz ari,
ezin ezer esan ez bada Zutaz.
Dizkiotenak dizkiotela, ordea,
eta milaka eta milioika izan arren
mende eta mendetan dihardutenak horretan,
ezin dute, eta ezingo, zaren itsaso baztergabeaz
ttanttatxo bat besterik esan...
Eta halere,
horrako haurtxo horren loa
zaintzen dagoen amaren behakoak
Zuk diozun guztia diosku garbiki!
zeinek esan du
Izpiritua
ikusezina dela?
Hurbildik ari, urrundik ari,
are hurbil baino hurbilagokorik,
are urrun baino urrunagokorik ere
esaten digu batera izaki orok;
ezin urrunagorik diosku
geugan hurbilenetik begiratzen diogunean!

J.A. Artze

BANATU ETA PARTEKATU

Banatu eta partekatu ezer ez duenarekin,
baina dena merezitzeko duin denarekin
beraren eta Jainkoaren aurrean.

Banatu eta partekatu, ez soilik soberan duguna,
baizik baita geure lanaz lortua ere
eta are beharrezko duguna.

Banatu eta partekatu, justizia eta maitasunagatik,
legeak dioenaren gainetik,
konturik eraman gabe,
bestea gustura senti dadin arte.

Banatu eta partekatu, xalo izanez
eta emana biziz,
gehiago edo hobe izateko usterik gabe,
ordainik edo esker onik
exijitu gabe.

Banatu eta partekatu, ebanjelikoki
aldi oro,
nonahi,
egokiera guztietan,
oraintxe bertan.

Banatu eta partekatu,
edo saiatu behinik behin;
sekula ez bakarrik,
beti konpainian;
inoiz ez salbatzeko,
eta are gutxiago salbatua sentitzeko;
soilik banatzea eta partekatzea
posible egiteko,
zuk bezala, Jauna.

Florentino Ulibarri (Moldatua)

BARKAMEN JAINKOA, ONTASUN JAUNA

Barkamenaren Jainkoa, ez mendekuarena,
errukiz aberatsa, behazunik gabeko Jainkoa,
haserrerik gabea,
Maitasunaren Jainkoa, zure irudiko egin gintuzuna,
Ontasunaren Jainkoa,
bete ezazu bihotza ontasunaz,
gainezka egin eta isur dadin.

Gure oinazeak osatzen dizkiguzun Jainkoa,
senda ezazu bihotz hau, zauritua baitago,
baretu itzazu goibeltzen duten gorrotoa eta sumindura,
Egizu barkamena emateko mugarik gabe
eta gurutzean borreroengatik bere burua eskaintzeko gauza.

Zure mendekua da gu neurririk gabe maitatzea,
Zure garaipena, eraldatzen gaituen barkamena.
Bihozberatasunez tratatzen dituzu
egin zenituenak, samurtasunez zaintzen eta altxatzen gaituzu,
eta horrela gizatiarra izaten erakusten diozu gizakiari.

Osa iezaiezu bere itsutasuna harroei.
Uste dute ez duzula ikusten ez duzulako ekinean jarduten.
Euren kasa lasai asko ibiltzen direlako,
uste dute ez zarela konturatzen,
gaizto eta harroputzaren eskuetan
pobrea eta babesgabea abandonatzen dituzula

Ez dituzte ulertzen zure planak, zure bideak.
Seme-alabak zure legearekin hezten dituzu,
beren larrialdietan eusten eta lasaitzen dituzu,
probaren ondoren Zure eskutik
eramaten dituzu bizitzara,
zure grazia eta bakea ematen dizkiezu.

Nahiz eta zuzena eta errugabea gaitzetsi,
Zu zara bere gotorlekua, indarra eta salbazioa,
kartzeletatik eta hobietatik aterako duzu.
Zure aintzara altxatuko duzu betiko
Zure aginduei zintzoki eutsi zielako.

Bihotzak ulertuko du zure argitan
zoriontasuna bakarrik maitasunean dagoela,
eta ez da zapaltzailerik egongo, senideak baizik.
Zuk gorrotoa eta gaiztakeria garaituko dituzu,
Jaun onbera, Aita ahaltsua.

BATERATZEA

Bat egin zure baitan
nire sakabanaketak.
Itzali hutsera bultzatzen nauten
nire sedukzioak.
Desegin heriotzan geldiarazten nauten
nire beldurrak.
Finkatu nire nahia
Zugan bakarrik.
Hartu zure atsedenaldira
naizena eta izan nintzena.

Benjamín González Buelta, sj

BEDEINKA ITZAZU NIRE ZENTZUMENAK

Jauna, bedeinka itzazu nire eskuak,
leunak izanik inoiz atxilotu gabe
hartzen jakin dezaten,
kalkulatu gabe ematen,
bedeinkatu eta kontsolatzeko indarra izan dezaten.

Jauna, bedeinka itzazu nire begiak
premia ikusteko gauza izan daitezen,
eta inor liluratzen ez duena inoiz ahantz ez dezaten;
azalaren atzean dagoena ikus dezaten,
besteak nire begiradaren gozoagatik
zoriontsu senti daitezen.

Jauna, bedeinka itzazu nire belarriak,
zure ahotsa entzuten jakin dezaten
eta atsekabetuaren oihua garbi nabaritu dezaten;
jakin dezatela alferreko zarataren
eta berritsukeriaren aurrean
gorrarena egiten,
ez ordea deika ari diren ahotsak,
entzuten dituztenen ulermenaren eske,
nire erosotasuna aztoratzen badute ere.

Jauna, bedeinka ezazu nire ahoa
zure testigantza eman dezan
eta ez dezan zauritzen edo suntsitzen duen ezer esan;
arintzeko hitzak bakarrik esan ditzala,
inoiz ez ditzala konfidentziak eta sekretuak sal,
esnaraz ditzala irriak.

Jauna, bedeinka ezazu nire bihotza,
izan dadin zure Espirituaren tenplu bizia,
eta jakin dezan ematen aterpe eta beroa,
izan dadila barkatzen eta ulertzen eskuzabala,
eta jakin dezala maitasun handiz
partekatzen mina eta poza.

Sabine Naegeli

BEDEINKATUAK ERRUKITSUAK

Bedeinkatuak bitez, Jauna, besteen pausu
balantzazkoak eta esku akituak konprenitzen dakitenak.

Bedeinkatuak, Jauna, errukizko erraiez
keinu eta hitz egokia dituztenak
bakarrik eta babesgabe dabilenaren aurrean.

Bedeinkatuak, Jauna, anaia pobre eta gaixoaren aurrean
beste aldera begiratzen ez dutenak.

Bedeinkatuak, Jauna, pertsonei juzgurik egiten ez dietenak,
beti barkatzen dutenak eta beren bihotzean
erresuminari tokirik uzten ez diotenak.

Bedeinkatuak, Jauna, beren “arrazoi onak” kritikatzeko gai direnak,
beren gainjantzia mailegutuan emateko edo bidaiari nekatuari
milia bat gehiagoan laguntzeko prest daudenak.

Bedeinkatuak, Jauna, hainbaten oinazea,
gosea eta sufrimendua telebistan ikustea ohiko egiten ez dutenak.

Bedeinkatuak, Jauna, besteari gurutzea eramaten
laguntzeko prest daudenak
gurutze hori nolanahikoa delarik, eta adinari, erlijioari,
jatorri nahiz kulturari kasurik egin gabe.

Bedeinkatuak, Jauna, premian laguntza eman,
ematen edo emango didatenak haiengan agertzen baitzait
zure erraiaetik datorren Maitasuna. Amen

BEGIAK, BIHOTZA ETA ESKUAK

Denbora gutxi barru oporraldiei hasiera emango diegu.
Atsedenerako garaia da,
baita zereginen aldaketaren garaia, bidaiatzeko garaia ere...

Era berean etxeko lanetan eskua luzatzeko garaia.
Barrutik eta kanpotik hazteko garaia da.
Solidaritaterako sasoi ona da.

Horretarako gure inguruetako errealitateei
begiak adi adi eduki behar ditugu;
ez da aski futbol taldeen azken fitxaketetaz jabe izatea;
ezta ere "Operación Triunfo" [Arrakasta Ekintza]
delakoaren gazteen azken jardunaldietaz ohartzea...
Ziur asko komunikazio bideetan ere
behar bereziak dituzten pertsonak azalduko dira,
guk horretaz konturatzeko begi zorrotzak izanez gero.

Bihotza beharko dugu,
ez noski gure zilborraren itsasoan
aingura bota duen harrizko bihotza,
baizik eta onartzeko, ongi etorria emateko,
laguntzeko prest dagoen bihotza.

Azkenik uda honetan zure eskuak lanean jar ditzakezu.
Ziurrenik zure beharra duten pertsonak aurkituko dituzu.
Solidarioa izatea begiak, bihotza eta eskuak lanean jartzea da.
Ziur horrela aurkituko duzula zoriona.
Besteak zoriontsu egiten direnean nor bera zoriontsu da.
Uda zoriontsua!

BEHAR ZAITUT, JAUNA

Behar zaitut, Jauna!
nire bizitza agortu egiten baita, Zu gabe.
Otoitzean aurkitu nahi zaitut,
zure presentzia guztiz berezian,
isiltasuna nire eta zure aurrean
kokatzen den une horietan.

Zure bila jardun nahi dut!
Zuk sortu duzun naturari bizia ematen
aurkitu nahi zaitut;
muino batetik begiratzen dugun urrutiko zeruertzaren
gardentasunean,
basoaren sakontasunean,
hostoez bertako biztanleen taupada ezkutuak
babesten dituenean.

Nire inguruan sentitu nahi eta behar zaitut!
Zure sakramentuetan aurki nahi zaitut,
zure barkamenarekin eginiko topaketan,
zure hitza entzuten dudanean,
zure erro-erroko eguneroko ematearen misterioan.

Nire baitan sentitu nahi eta behar zaitut!
Gizon-emakumeen aurpegian aurkitu nahi zaitut,
nire senideekiko bizikidetzan,
behartsuaren premian
eta nire adiskideen maitasunean;
haur baten irrian
eta jendetzaren zaratan.

Ikusi behar zaitut!
Nire izaeraren pobretasunean aurki nahi zaitut,
eman dizkidazun gaitasunetan,
nigan sortzen diren irrika eta sentimenduetan,
nire lanean eta nire atsedenean,
eta, egunen batez, nire bizitzaren ahuldadean,
topaketaren ateetara hurbiltzen naizenean,
aurrez aurre, zurekin.

Teilhard de Chardin

BELARRIAK IREKI ZENIZKIDAN

Hemen nauzu, Jauna,
zure izenean joan nahi dut
zuk bidaltzen nauzunera.
Zure eskuetan jartzen naiz
buztina buztingilearen eskuetan bezala.

Egin nazazu fedearen lekuko,
ilunpetan dabiltzanei argi egiteko;
egin nazazu esperantzaren lekuko, etsituei ilusioa itzultzeko;
maitasunaren lekuko, mundua solidaritatez betetzeko.

Hemen nauzu, Jauna, bidal nazazu.
Jar ezazu zure Hitza nire ezpainetan,
jar ezazu zure prestasuna nire oinetan, eta nire eskuetan zure lana.

Jar ezazu zure Espiritua nire espirituan,
jarri zure maitasuna nire bularrean,
zure indarra nire ahuldadean, zure borondatea nire zalantzan.

Hemen nauzu, Jauna;
bidal nazazu errespetua jar dezadan izakien artean,
justizia gizon-emakumeen artean, bakea herrien artean,
alaitasuna bizitzan, ilusioa elkartean,
poza eta esperantza misioan.

BERANDU MAITE ZAITUT

Berandu maite zaitut,
edertasun hain zahar eta hain berri,
bai, oso berandu maite izan zaitut!

Barnean zintudan,
ni, berriz, kanpotik nenbilen zure bila;
eta ni, itxuragabe hau,
zuk egindako edertasunetan
oldarka sartzen nintzen zure bila.
Nirekin zinen
eta ez nintzen zurekin.
Zugan izan ezik,
inon ere ez liratekeen haiek
zugandik urrun nindukaten.

Dei egin didazu, dei eta oihu,
eta nire gorreria hautsi;
argi eta distira eginez
uxatu duzu nire itsumena;
zure usain gozoa zabaldu duzu
eta arnastu dut,
eta zure irrikaz nabil ordutik;
dastatu zaitut
eta gose-egarri naiz;
ukitu nauzu
eta zure bakeak sugarretan nauka.

San Agustin

BESTEIA, AURKITU BEHARREKO OPARIA

*Aita,
hona hemen eskola egiten jarraitzeagatik,
elkartea eraikitzen jarraitzeagatik
sentitzen ditugun poztasuna eta nekea;
eskerrik asko
gure artean zaudelako,
egunero gure pertsonak hazteko ahaleginean
gurekin bat egiten duzulako,
gurekin bat Erreinuaren aldeko lehian,
gurekin bat Zugana egin behar dugun
bidean.*

Gizadiarentzat daukazun proiektuaren aurrerakin
nahi dugu izan;
gaur gu guztion alde eskatzen dizugu,
zure elkartearen alde.
Egin diguzun oparia
estimatu nahi dugu,
adoretsu eta ausartak nahi dugu izan;
ez dezala gugatik huts egin
gure munduan bizigarri berria jartzeko
egiten duzun ahaleginak.

*Egin gaitzazu arduratsu,
dinamiko, sortzaile,
irekiak berrikuntzaren aurrean,
eta eman izan zaigun ondareagatik
esker oneko.
Onar dezagula geure burua
Zuk onartzen gaituzun moduan,
errespetatu dezagula geure burua,
zuk errespetatzen gaituzun bezala,
izan gaitzela libre eta ezberdin,
Zuk gugandik espero duzun bezala.
Lagun egiguzu geure burua zaintzen
Zeuk zaintzen gaituzun bezala,
eta gurekin bizitzako ibilbidea egiten duenari
ez diezaiozula animo-hitza uka.*

Erakuts egiguzu gure kritikaz
maitasuna ez urratzen,
eta gatazkari diogun beldurrarekin,
errespetu faltsuarekin,
kritikaren indar sortzailea ez akabatzen.
Egin gaitzazu xeratsu eta zorrotz,
samur eta arduratsu,
leial eta malgu
senidearekin.

*Emaiguzu alaitasunez emateko
eta esker onez hartzeko bihotz jatorra.
Aurkitu dezagula zure eskua
besteak eginiko oparian:
haren besarkadan, haren berban,
haren otoitz eta denboran,
haren estimu eta kulturan,
haren ikasteko ahaleginetan ...
Bai ematean bai hartzean
egin gaitzazu xume
Zure eta elkar tearen aurrean.*

Aita, era berean eskatzen dizugu
elkar tean, gure fede eta gure lanaz
taldearen ibilbidea animatzeko
ardura daukagunontzat.
Eskerrik asko haien eta gure ahaleginengatik.

*Jesus izan bekigu eredu
zerbitzuan;
ez dezagula geure burua inposatu,
ez gaitzela besteen esker ona hartu nahi izanaren
tentaldian eror;
bete ditzagula gure asmoak,
eta asmo horiek izan daitezela zuzenak,
onak eta komenigarriak.*

Egin gaitzazu hitzeko eta zintzo.
Paperek ez dezatela bete beren hizkiez
zure ausentziak uzten duen hustasuna
bizitzan.

*Gure esku jarri dituzun haur eta gazteengatik
eskatzen dizugu bereziki.
Bihotzez, eskerrik asko, haiengatik.
Aurkitu zaitzagula haien barre,
haien jolas, amets eta galderetan.
Antzeman dezatela gure bitartez
Zuk diezun maitasuna.*

Elkarte guztiagatik eskatzen dizugu,
gu guztion alde.
Emaguzu geure etxeko mugak,
gure kaskarkeriak hautsiko dituen
bihotz zabala
eta jar gaitzala zu bizi zaren munduan,
mendietan jauzika, eskolan lasterka,
pertsonak hazarazten diharduten
guztiekin batera,
behartsuenekin batik bat.

*Zure asmoetan inoiz atzera
egiten ez duzun Horrek
egizu ez dezagula atzera egin
gurean.*

Amen.

BETI HOR ZAUDE!

Plaza eta elizetan,
beti hor zaude;
merkatu eta klaustroetan,
beti hor zaude;
hiri eta desertuetan,
beti hor zaude.

Haran eta mendietan,
beti hor zaude;
lantegi eta festa gunetan,
beti hor zaude;
hondartza eta monasterioetan,
beti hor zaude.

Gailur elurtuetan eta oasietan,
beti hor zaude;
kale eta bihotzetan,
beti hor zaude;
Izarrik ez dagoenean
eta nik bide okerrak hartzen baditut ere,
beti hor zaude...

Ezer eskaintzen ez badizut ere
-ez urrerik, ez intsentsurik ez mirrarik-
beti hor zaude.

Bake eta segurtasun bila
etxera itzultzen banaiz ere,
beti hor zaude.

Nire ondoan ikusten zaitut
arrakasta eta lorpen egunetan
egun ilun eta atsekabez beteetan.

Nire ondoan ikusten zaitut,
aurretik batzuetan, atzetik besteetan,
baita alboan ere, defentsarik gabeko nire alorretan.

Nire ondoan ikusten zaitut,
ni inguratzen, ni babesten,
ni zeru ertzetara ateratzen.
Nire ondoan ikusten zaitut,
jende inguratuta
joan-etorrian dabilzanen aurpegiak ikusten ditudanean.

Eta begiak irekitzen ditudanean,
Bidean nahiz geldirik,
Zure aurpegia da argiz eta zirraraz betetzen nauena.

Ni nagoen toki guztietan, zu han zaude.
ni nagoen ordu guztietan, zu hor zaude;
eta zure aurpegi gizon-egina are maitagarriagoa zait beti ere.

Florentino Ulibarri

BIDEAREN BILA

Zergatik ibili behar dugu beti
-orrialde zuri bat balitz bezala-
bidearen bila?
Ezkerretik eskuinera idatzi behar dugu
-hori badakigu-
eta badakigu idatzi nahi duguna
itsusia denean,
hautsi egingo dugula, berriz hasiko garela
ezkerretik eskuinera,
behar hainbat aldiz egiteko bidea:
gure musu, laztan eta arimarena;
eta, bidearen amaieran,
beste bide bat aurkituko dugula,
gure urratsek uki dezaten zerbait sekretuagoa,
misteriotsuagoa.

Patxi Ezkiaga

BIHOTZA ALDATZEN UZTEA

Behar zaitugu, Jauna:
harik eta zoriontsuago bizitzea
lortzen dugun arte,
bizitza oparoa aurkitzen dugun arte,
harik eta zure justiziazko Erreinua
sortzen dugun arte,
elkarrekin gauzak partekatzen ditugun arte,
bestearen mina propiotzat hartzen dugun arte,
egozentrismo oro garbitzen dugun arte,
harik eta denok ondo bizitzea
lortzen dugun arte,
Zure maitasunak gu inbaditzen
utzi egin behar dugu.

Behar zaitugu, Jauna,
premiatzkoa baita zure Erresuma asmatzea:
harremanak iraularazteko
eta topaketak sortzeko,
elkarri tratatu duina eman diezaiozun,
pertsona bakoitzak aurkitu dezan
bere lekua munduan,
guztiontzat denetarik egon dadin,
bihotza festaz bete dakigun,
senide bezala joka dezagun.
gure bizitza armoniaz bete dadin,
heriotzaren zain egon gaitezen
Zure besarkada handitzat hartuz,
utzi egin behar dugu.
gure bihotza aldatzen.

Mari Patxi Ayerra

BIHOTZA ERROMES

Bihotza erromes
Neu nauzu barne-muin.

Laga pozari
barne tenpluan
leher egiten.
Laga pozari
zuhaitz eroa
zukan landatzen.

Bihotza erromes.
Neu nauzu barne-muin.

Haizeen labirintoan
arranoak badaki berea aurkitzen
teilatua sorbaldapean,
enarak bere habia eraikitzen
hala nola oinaztarriak
jai beltza zeruan marrazten.

Bihotza erromes.
Neu nauzu barne-muin.

Jo gora muinoz muino
haizeen sorlekuraino,
gainez gain gorago,
eskuragaitzeraino,
han bainago Ni
hegodun eta ezkutu.

Bihotza erromes.
Neu nauzu barne-muin.

Une bat nahiko
Isiltasuna, adorazio,
harrien estasian
hamar mila urtek
bat egiteko.

Bihotza erromes.
Neu nauzu barne-muin.

Alain Lerbret

BILBEAREN EDERTASUNA

Zenbat eta hari gehiago txirikordatu,
hainbat eta ederragoa da diseinua,
unibertsoa margotzen duten koloreen isla.
Konplexutasunak ematen baitio bilbeari bere edertasuna.

Oihal berriak eroapen handia eskatzen du.
Adorea jarri behar zaio;
izan ere, poza eta sufrimendua
zure eskuen indarrarekin,
zure bihotzeko taupadarekin behar dira brodatu.

Aniztasunaren bizileku izango diren tailerrak
inauguratu behar dira,
festatik eta topaketatik kanpo inor utziko ez duten
itxaropen aterpeak, sorkuntza guneak.

Konpon ditzagun denborak uzten dizkigun urratuak.
Ehundegian elkartu, eta batera ahalegintzeko ordua da,
zapalgarri izan zaizkigun korapiloak askatuz.

Herriarekin batera ehundu ditzagun sostengarri izango zaizkigun
justiziaren sareak, albaindu dezagun utopia
bere ametsen hariaz. Ez dago zeregin larriagorik.

Humberto Pegoraro

BIZIAREN JAINKOAGAN SINESTEN DUGUNOK

*“Aukeratu bizia, bizi zaitezten,
bai zeuek, bai zuen ondorengoek.
Horretarako, maita ezazue Jauna, zeuen Jainkoa,
obeditu eta bizi berari atxikiak,
horretan baitatza zuen bizia”
(Deuteronomio 30, 19-20)*

Biziaren Jainkoagan sinesten dugunok,
bizitzan Jainkoaren bila dihardugunok,
han ez badago ezin duela beste inon egon sinetsita...

Jainkoa ezagutzeko gizona ezagutu nahian gabiltzanok,
gizona ezagutzeko Jainkoari galdezka ari gatzazkionok,
Jainkoa gizakia, pertsona, izatea
pertsonaren poztasunik handiena gisa hartzen dugunok...

Gizonarengan bere irudi bizia defendatuz ez bada
ezin dugula Jainkoa defendatu dakigunok,
Jainkoa eta mundua hain maite ditugunok...

Ahulenek pairatzen dituzten sufrimenduen aurrean
gure begiak itxi orde, errukiz, tristeziaz, amorruez lausotuta
Jainkoarekin bat eginda zabal-zabalik dauzkagunok...

Maitasunetik kanpo den-dena heriotza zaigulako
maitasunean bakarrik bizi gaitezkeenok,
ezin dugulako beste inolako Jainko batengan sinetsi
biziaren Jainkoagan sinesten dugunok...

*mundua guztiz ederra dela ikusi dugu,
Jainkoaren handitasuna erakuts diezagukeela,
eta aurrerantzean ezingo ditugula bereizi Jainkoa eta mundua,
ezingo ditugula bereizi Denbora eta Eternitatea,
ezingo ditugula sorkariak maitatu
haiengan Kreatzailea maitatuz ez bada.*

Antonio López Baeza

BIZITZA AUKERA BAT DA

Bizitza aukera bat da, *atera iezaiozu probetxu.*

Bizitza edertasun da, *mirets ezazu.*

Bizitza zoriontasun da, *senti ezazu.*

Bizitza amets bat da, *bihur ezazu errealitate.*

Bizitza erronka bat da, *egiozu aurre.*

Bizitza betebeharrak bat da, *bete ezazu.*

Bizitza joko bat da, *joka ezazu.*

Bizitza preziatua da, *dasta ezazu.*

Bizitza aberastasun da, *gorde ezazu.*

Bizitza maitasun da, *goza ezazu.*

Bizitza misterio bat da, *jar iezaiozu muina agerian.*

Bizitza agintzari bat da, *bete ezazu.*

Bizitza tristura da, *gaindi ezazu.*

Bizitza abesti bat da, *kanta ezazu.*

Bizitza borroka da, *onar ezazu.*

Bizitza tragedia da, *aurre egiozu.*

Bizitza bizia da, *defenda ezazu.*

Bizitza abentura da, *hel iezaiozu.*

Bizitza zortea da, *bila ezazu.*

Bizitza hagitik preziatua da, *ez ezazu desegin.*

Kalkutako Teresa

BIZITZA GASTATZEA

Jesus Kristo Jauna,
beldurra ematen digu bizitza gastatzeak.
Baina zuk horretarako eman diguzu bizitza,
gastatzeko;
ezin da hura egoismo antzuan ekonomizatu.

Hori da bizitza gastatzea: besteen alde lan egitea
pagatzen ez dutenean ere,
mesede egitea ordainduko ez duenari;
bizitza gastatzea, are porrotean murgiltzea da
beharrezko bada, zuhurtzia faltsurik gabe;
itsasontziak erretzea hurkoaren alde. (...)

Bizitza gastatu,
ez da gastatzen espantu hanpatuz
eta imintzio faltsuz.
Bizitza eman egiten da, besterik gabe,
iragarkirik gabe, ura maldan behera doan antzera,
amak bularra semeei ematen dien antzera,
ereilearen izerdi apalaren antzera. (...)

Etorkizuna enigma bat da,
gure bidea behe-lainoan murgiltzen da;
baina emanak biziz jarraitu nahi dugu,
Zu zain baitzaude gauean
malkoz beteriko mila begiz.

Luis Espinal

BIZITZA, LABIRINTO DENEAN

Jauna,
bizitza labirinto egiten zaidanean,
lagun ieza dazu zure kalea aurkitzen;
itxaropenaren leihoa oso goian gelditzen zaidanean,
lagun ieza dazu zure eskailerak erabiltzen;
fedearen beroa izotzak estalita sentitzen dudanean,
lagun ieza dazu negua zure errukizko malkoekin
goxatzen.

Patxi Ezkiaga

BUZTINA

Buztinezko anfora bat bezala
bihotza Zurekin betetzen zait egunero.
Egunetik egunera gero eta gehiago
nire ontzi hauskorraz jabe egiten zara
barrutik zure altuera argitsua emanaz.
Nire ahots hauskorrek adierazten ditu zureak.
Arimaren erdian zure eskuek markatuta nago,
Buztinlari hain kuttuna,
beti melodiatsu kantak zipriztintzen nauten
erreketako buztina.
Zein hauskorra den nire lokatza zuk begira dezazun!
Zure samurtasuna oso sendoa da, ez nazan pitzatu.
Nola dakizu ni maitatzen apurtu ez nadin.
Zuk bakarrik egosi nauzu zure barruan egon nadin.
Jauna, nire buztin txikiaren ertzak beteiezazkidazu
zure argi mugagabeaz egunsenti bakoitzean.
Ez dadila egon nire hutsunerik
zurea ez den beste egarri batentzat, Jainko maitea.

Valentín Arteaga

EBANJELIOAREN ZERBITZURAKO

O Aita,
egizu kristauen artean
sor daitezela bokazio ugari:
lekaide eta lekaimeak,
eta bestelako zure jarraitzaileak izan daitezen.
Fedea iziotu dezatenak
eta Jesusen hitza zabaltzeko
trukean ezer eskatuko ez dutenak
sakramentuak bizi araziz
zure jarraitzaileak etengabe berriztatuko dituztenak.

Emazkiguzu ministro sailduak
eukaristiaren defendatzaile sutsuak izango direnak,
Kristok eman digun dohain gorena mundua salbatzeko.
Deitu zure errukirako ministroak
barkamena eta poza banatzen jakingo dutenak
barkamenaren sakramentua baliatuz.

O Aita,
egizu zure Elizak har ditzala pozik
zure Semearen Espirituak
argituko dituen hainbat eta hainbat zerubide;
ebanjelioaren irakaspenak bereganatuz,
begira ditzala kontu handiz
bai apaiz ministerio eta bai erlijioso ministeriorako
preparatuko diren bokazioak.
Zaindu bereziki gotzainak, apaizak, lekaime eta lekaideak,
bataiatu guztiak eta nolabait esateko
Zu bazarela sinesten dutenak,
beren misioarekin leialtasunez jokatzuz
ebanjelioa hedatu dezaten.

Den-dena, gure Aita!
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez eskatzen dizugu.

Benedikto XVI.a

EDONOR ZARELA ERE.

Edonor zarela ere
guztioz bizi gaituen Jainkoa bizi den etxean sartu zara.
Edonor zarela ere, Hark onartu egiten zaitu
zeure poztasun eta nahigabeekin,
zeure arrakasta eta porrotekin,
zeure itxaropen eta etsipenekin.
Ongietorri!

Zure aurreko belaunaldiek maitatu egin dute toki hau,
lagundu egin dute eraikitzen, ederragotzen;
bertan otoitz egin dute.
Errespeta ezazu. Egizu isiltasuna.

Sinestuna bazara, egizu otoitz.
Bila bazabiltza, hausnar ezazu.
Zalantzaz beteta bazaude, eska ezazu argia.
Sufritzen baduzu, eska ezazu indarra.
Pozik bazaude, eman eskerrak,
eta izan dezazula pozik jarraitzeko aukera!

Etxe honetan senideak aurkitu ahal izango dituzu,
eta haiekin batera otoiz egin ahal izango diozu Jainkoari.
Toki bero honetan egiten duzun egonaldiak
berotu dezala zure bihotza, pitz ditzala zure begiak!

Edonor zarela ere, Jainkoak onartu egiten zaitu.
Zeuk ere onar ezazu Jainkoa.

EGUBERRI ARGITSUETARAKO

“Lasai! Neu naiz. Ez beldurtu!” (Mk 6,50)
Ekaitzak jota utzi gaitu, Jauna.
Gaua da, nekatuta gaude, eta zu ez zaude.
Olatuek harrapatzen gaituzte.
Beldurraren deabruak lausotzen du gure ulermena.
Gure fedea zalantzan dago.
Ez al dizu axola gu galtzeak? (Mc 4,38)

Bai, axola zaizu, hain preziatuak baikara zure begientzat (Is 43,4)
Zentimo baten truke saltzen diren
txori guztiek baino gehiago balio dugu
Gure buruko ileak ere denak zenbatuak dauzka Jainkoak.
Zure esku barruan gauzkazu grabatuak (Is 49,16)
Eta zure masailetaraino altxatzen gaituzu,
aitak bere semearekin egiten duen bezala (Os 11,7)

Betidanik maite gaituzu,
Existentziara ekarri gaituzu,
Gutako bakoitzarentzat proiektu on bat duzu.
Eta une jakin batzuetan ez badugu ulertzen zer gertatzen den,
badakigu zure maitasuna indartsua dela (Sal 116)
eta ezerk ezin gaitu erauzi Jainkoaren eskutik. (Jn 10,29)

Badut fedea zugan,
Jainko fidagarria,
zure bizitza neurririk gabe eman duzu.

Badut itxaropena nigan,
betidanik maitatua,
maitatzeko gai sortua.

Badut fedea bizitzan,
onartzen eta maitatzen dudan bizitzan,
dohain preziatuena bezala.

Badut Itxaropena etorkizunean,
izan ere, gertatzen dena gertatzen dela,
Zu nirekin zaude.

Marana-thà!
Zatoz, Jesus Jauna!

Paolo Curtaz

EGUNEROKO DOHAINA

Irakats iezadazu, Jauna,
egunean eguneko dohaina bizitzen,
zure eguneroko plana,
beste planik gabe.

Lilura ahal nadila,
Aita, egunez egun
zure maitasunaz,
izan dadila niretzat berri
lagun hurkoaren aurpegia.

Emadazu, Aita, bihotz
otzana eguneroko sufrimenduaren bidez,
sendoa eguneroko borrokaren bidez,
maitetsua eguneroko otoitzarekin batera.

Jakin dekadala, Aita, Zugan konfiantza jartzen,
biharkoa zure eskuetan
kezka eta presarik gabe utziz.

Dasta dekadala egunez egun zure bakea,
egunero Zugandik hartuz:
osasuna nahiz gaixotasuna,
arrakasta nahiz porrota,
aurrera egitea nahiz atzera egitea.

Irakats iezadazu, Jauna,
egunean eguneko dohaina bizitzen.
Amen.

EGUNEROKOTASUNAREN JAUNA

Historiaren Jaun, nire urteen Jauna,
zure presentziak eguneroko arropak janzten ditu
nire bizitzaren gaurko egunean.

Ezagunak dituzu nire ametsak, itzalak, argiak,
nire penak, hegan egiten ez duten nire hegoak,
nire pauso sosegu gabeak...

Ezagutzen nauzu eta badakizu lanak ditudala
zu «pausoz pausokoan» ikusten,
betiko lanetan, «egunez egunekotan»,
distirarik ez eta mugak dituztenetan.

Garbitu nire begiak, nire Jainko senide egina!
Ezagutzen nauzu eta badakizu ez naizela jartzen zure janzkira,
koloretan urria, zehatza, arrunta, higatua denera.

Zure aurpegi bila ibili naiz, nire urteen Jauna!
Zu igarotzean nire begiek itun-seinalea
ikusi dute, ezin gehiagoko maitasuna.
Konfiantza handiz itzuli dira zureen bila,
grazia, kementa, atsedena eskatuz.

Bidelagun beti, nire Jainko eltzegile,
egin nazazu zure erara lurrontzi xume,
bakezko, isiltasunezko,
entrega bihurturiko doakotasunezko lurrontzi.

Ene bizitzako Jaun, adiskide, senide,
egin nazazu zure erara eguneroko keinu,
fede, entzute, eskaintza, besarkadazko keinu.

Ene Jainko laztan, ene Jainko bidelagun,
eskerrik asko ondotik igaro zarelako.

EGUNEZ DATOR

Egunez dator, gauez dator.
Atetik sartuko dela espero dugu,
leihotik sartzen da.
Alaitasunean aurkitu nahi dugu,
baina etorri, gurutzearekin etortzen da.

Erne gaude,
barrutik deitzen digu.
Aztarnak arakatzen ditugu,
bidezidor berrietatik dator.
Oparotasunean dator,
eta are sarriago pobrezian.

Gure arrakastarekin dator
eta lagun dugu porrotean.
Irrikatan gaudenean iristen da,
eta espero ez dugunean agertzen.

Isiltasunean dator
eta haize zakar kiskalgarrian.
Jendetzaren eta zarataren erdian ere badator.
Gu lotaraztera dator
eta gu esnatzera.
Gure eguneroko ibilbidean aurkitzen ditugun
aurpegi guztietan dator.

Espero-gabeko iturburuetako desertuan dator,
putzu ezezagunen estepan,
gure urrats erratuen basoetako zuhaitzen artean,
zapaltzen ditugun gailur garaietan,
eta zorabioan jartzen gaituzten haranetan.

Une oro dator.
Toki oro guztietan.
Gauden hartan dago.

Gure zain zaude,
zure hitzarekiko zintzo.

Florentino Ulibarri

ELIZ ZORIONTASUNAK

Zorionekoa «espirituz pobre» eta bihotzez xume den Eliza,
handi-mandi eta harro izan gabe diharduena, aberastasunik eta osperik gabe,
makulu bakarra Jesusen aginte apala duelarik.

Harena da Jainkoaren erreinua.

Zorionekoa negar dagitenekin «negar» egiten duen Eliza,
eta pribilegioak eta boterea kendu dizkiotelako sufritzen duena;
hobeto partekatu ahal izango baitu galtzaileen zoria, baita Jesusena ere.

Egun batean Jainkoak kontsolatuko du.

Zorionekoa indarrez, bortxaz edo zapalketaz inposatzeari uko egiten dion Eliza,
beti bere Maisu eta Jaunaren otzantasuna praktikatuz.

Egun batean hitzemandako lurraldeaz jabetuko da.

Zorionekoa, bere baitan nahiz mundu osoan,
«zuzentasunaren gose-egarri den» Eliza,
bere konbertsio bila ibiliko baita
eta guztientzat bizitza zuzenago eta duinago baten bila,
azkenak direnengandik hasita.

Jainkoak aseko du haren irrika.

Zorionekoa gupidatsu, zorrozkeriari uko egin
eta opariak baino errukia nahiago duen Eliza,
bekatariak onartu egingo baititu eta ez baitie Jesusen Berri Ona ezkutatuko.

Errukia iritsiko du Jainkoagandik.

Zorionekoa «bihotz-garbi» eta jokabide gardeneko den Eliza,
bere bekatuak ezkutatzen ez duena,
ezta ezkutukeria eta anbiguotasuna sustatzen,

Jesusen egian ibiliko baita.

Egun batean Jainkoa ikusiko du.

Zorionekoa «bakearen alde» eta gerren aurka dagien Eliza,
bihotzak elkarganatzen dituen eta adostasuna ereiten,
munduak eman ezin duen Jesusen bakea kutsatuko baitu.

Jainkoaren alaba izango da.

Zorionekoa justiziagatik etsaikeria eta pertsekuzioa jasaten duen Eliza,
martiritzari berari uko egin gabe,
biktimekin negar egiten jakingo baitu eta Jesusen gurutzea ezagutuko.

Harena da Jainkoaren erreinua.

Jose Antonio Pagola

ELIZAREN ALDEKO OTOITZA

Jauna, eskerrak ematen dizkizugu Elizagatik,
Elizan ebanjelioa eta Jesusen arnasa ematen
dizkiguten guztiengatik;
maite dugu zure Eliza, Jauna, eta berarekin
elkartasunean bizi nahi dugu;
Eraiki egin nahi dugu hura geure hitzaz,
geure bizitzaz, geure testigantzaz.

Maite dugu zure Eliza.
Eta maite dugulako eskatzen dizugu,
izan dadila topaketa eta zerbitzurako gune,
askatasun eta itxaropenari eginiko kantu,
barkamenaren etengabeko ospakizun,
pobre eta baztertuentzat sutondo,
adiskide-dantzarako esku luzatu,
ogia banatzeko mahai.

Elizaren alde, bai, egiten dizugu otoitz;
izan dadila egia eta maitasun toki,
askatasun, justizia eta bake toki,
guztiek berarengan itxaroten jarraitzeko
arrazoia aurkitu dezaten.

ELKAR PARTEKATUZ

Parteka ditzagun
uneak uneko besarkadak eta musuak,
bidean bizi izaniko gozamina,
geure bihotz zaurituaren taupadak
eta afari hau, hain berezia, hain bihozkoia.

Parteka dezagun
urte hauetan ulertu dugun apurra,
harrapatu gaituen eta atxiki ezin dugun argi urria,
labirintotik irteteko ahalegin huts eginak
eta une orotan metatu beldurra.

Parteka ditzagun
geure egitasmo gauzatu gabeen zirriborroak,
hainbat oihu eta isiltasunen garrasia,
zirikatze eta suspirio barnekoienak
eta gorputzaren eta espirituaren izerdia.

Parteka dezagun
geure barru-hondoari darion hitza,
goitik etorria, intzigarra bailitzan,
iturri lausoetarik sortua,
gu harrapatu eta lehiatzen dena kanpora nola irtengo.

Parteka dezagun
poemen eta kanten aldia,
isiltasun, dantza eta hitz sagaratuarena,
ilargipean bizi izaniko
ilunabar eta gauetako solasenak.

Parteka dezagun
geure historiaren pobretasuna,
urtetan metatu jakinduria,
geure aurpegiko zimurrak eta arrastoak,
eta haurtzarotik gelditzen zaizkigun pinportak.

Parteka ditzagun
geure anai-arreba arteko irakaspenak,
geure etxe emankorreko beroa,
geure talde-laneko sareak
eta geure amets guztien matazak.

Parteka ditzagun
gau astun hartako irakaspenak,
zuk guri doan utziriko ogi-ardoak,
oinak garbituz zuk guri utzi etsenplua
eta zuri jarraitzeko Espirituaren ildoak.

Parteka ditzagun
intuizio zoro ustekoak,
geure egia apur eta ez-segurak,
bidexkak eta eroriak Aitagana bidean
eta babesleku ditugun txabolak.

Parteka dezagun
zientzia eta fedearen argi-itzala,
karitate eta esperantzarena,
pobretasun eta graziarena,
gozamen eta giza irriarena.

Inoiz ez azken hitzik,
inoiz ez goi-jakinduriaren zantzurik,
inoiz ez katedra-nagusitasunik,
inoiz ez erabateko egiarik!

Eta horrela, Jauna, gara eta goaz garatzen, seme-
alaba eta anai-arreba, ikasle eta adiskide, nekaldi
eta aintza-aldi honetan,
elkar partekatzen dugula.

Florentino Ulibarri

ELKARTEAREN ALDEKO OTOITZA

Jauna,
nire elkartearen alde eskatzen dizut,
zure asmoak hobeto ezagutu
eta gure mugak hobeto uler ditzagun.

Guk guztiok bestearen beharrak sentitu
eta gure bizikizuntzat har ditzagun.

Bestearen nekezia, nahigabea, etsipena
inoiz arrotz gerta ez dakizkigun.

Gure tirabirek,
banandu ordeztu,
egiaren eta ongiaren bilaketan
bat egin gaitzaten.

Geure bizitza eraikitzean
bestearen ahaleginaren oztopo
izan ez gaitezen.

Gure arteko desadostasunek,
elkartetik inor baztertu ordeztu,
batasunaren aberastasunaren bila
eraman gaitzaten.

Jauna, guztiak zure begiez ikusi
eta elkar maita dezagun zure bihotzak maitatzen duen legez.

Gure elkarte
eskuzabaltasunean eta sentikortasunean
besteen irritsetara irekita egon dadin,
bere baitaren itxituran sartu ordeztu.

Bide guztien helmugan,
bilaketa guztietatik haratago,
eztabaida eta
topaketa bakoitzaren ondoren
garailerik edo garaiturik egon ez dadin,
anai-arrebak soil-soilik baizik.

EMADAZU BIHOTZ BERRIA

Emadazu, Jauna, bihotz berria.
Zurea bezalako bihotz haragizkoa.
Bihotz sentibera eta eman zalea,
sufritzen duten guztien minez hunkitzen dakiena.

Emadazu, Jauna, bihotz garbia.
Gibel asmorik gabeko bihotza.
Bihotz egiazalea,
kosta ahala kosta egia bilatzailea.

Emadazu, Jauna, bihotz alaia, egunez egun
zure maitasuna eta gorespina kanta ditzana.
Emadazu bihotz sutsua,
zu ezagutzearen eta maitatzearen
ederra besteei helarazi diezaiena.

Emadazu, Jauna, bihotz apala,
dena eder ikusten duen haur baten bihotza.
Emadazu, Jauna, bihotz beti esker onekoa,
zure bihotzak maitatua sentitzen delako.

Emadazu, Jauna, gazte den baten bihotza.
Hunkitzen eta arriskatzen den bihotza.
Egun bakoitza, lehenengoa eta azkenekoa balitz bezala,
bizi dezan bihotza.

Emadazu, Jauna, pobre denaren bihotza,
Zu zeu ez zaren guztiaz erantzia.
Bihotz apal eta zerbitzu emailea,
argia eta kemena Zugan aurkitzen dituen.

Emadazu, Jauna, bihotz berria,
jakin dakiena Zu zarela
Bide bakarra, funtsean dagoen Egia,
pil-pil dagien Bizia, babesten duen Maitasuna,
eta poza iragartzen eta itxaropenez betetzen duen Bakea.
Amen.

EMAN ZURE ARGIA

Non dago zure argia?
Emadazu, Jauna, zure esku gidatzailea.
Esadazu non ezkutatzen den eguzkiaren argia.
Non benetako bizitza.
Non dago benetako heriotza berreroslea?
Itsu nago, Jauna,
orain jakin nahi dudala.
Tira, Jauna, erantzun behin betiko.
Esadazu non dagoen
hain itsugarria omen den Zure argia.

Emadazu, Jauna, zure eskua.
Emadazu Zuganantz
gizaki indargabea daraman haizea.
Edo esadazu non dagoen, bilatzeko.
Itsu nagoela, Jauna.
Jada ez dudala sentitzen argia
nire begi izoztuen gainean
eta ez dut gurtzeko Jainkorik dagoeneko.

Jacinto López Gorgé

ENE BIZITZAREN JAUN HORI!

Zeure aurrean, zeure baitan izango naiz,
nire bizitzaren Jaun hori,
bekoz beko.
Eskuak bat eginik,
hitz ororen Jaun hori,
zure aurrean izango naiz,
bekoz beko.

Zeure zeru handiaren azpian,
bakardadean eta isiltasunean,
bihotz apalarekin,
zure aurrean izango naiz,
bekoz beko.

Lanabes eta borrokaz
beteriko mundu honetan,
presaka dabilen jende-oldearen erdian,
izango ote naiz gauza
zeure aurrean egoteko,
bekoz beko?

Rabindranath Tagore

ERAKUTS IEZADAZU...

Erakuts iezadazu nola joan daitekeen
hitz eta izen orotatik haratago dagoen lurralde horretara.
Erakuts iezadazu nola otoitz egin mugaz honako aldean,
baso hauek dauden tokian.

Zure gidaritzaren beharrean nago.
Nire bihotza zure eraginaren beharrean dago.
Nire arima zure otoitzaren bitartez araztu beharrean nago.
Nire borondateak zure indarraren premia dauka.
Zure beharrean nago, mundua antzalda eta salba dezagun.
Sufritzen duten guztientzat zure beharrean nago,
preso dauden guztientzat,
arriskuan edo atsekabean dauden guztientzat.
Erotu diren guztientzat behar zaitut.
Nire bizitza zure esku sendalarien beharrean dago.
Zure Semearekin egin zenuen bezala,
egin nazazu sendatzaile, kontsolatzaile, salbatzaile.

Hildakoei emaiezu, arren, izen bat.
Hilzorian daudenei lagun iezaiezu ibaia gurutzatzen.
Eta niretzat behar zaitut, bizirik nahiz hilik egon.
Hala bedi. Amen.

Thomas Merton

ERAKUTSI BARRE EGITEN

Jauna, irakats iezadazu barre egiten,
eguneko orduak bizipozaren soinuaz betetzen,
irakats iezadazu
maite nauzun bezala zu maitatzen.

Irakats iezadazu tristeziaren sarrailak hautsi
eta zeru-lurrak ostadarraren gerrikoaz lotzen,
irakats iezadazu
maite nauzun bezala zu maitatzen.

Irakats iezadazu esku, hortz eta besoez
zure presentzia hurbilari eusten;
irakats iezadazu
maite nauzun bezala zu maitatzen.

Patxi Ezkiaga

ERAMAN NAZAZU, JAUNA

Inguratzen nauten ilunpean zehar
eraman nazazu, beti aurrera.
Iluna da gaua eta etxetik urrun nago:
eraman nazazu, beti aurrera.
Gida nire urratsak: ezin dut ikusi
han behean ikus litekeena:
urrats bakar bat, bakoitzean,
nahiko da niretzat.

Ni ez naiz beti horrelakoa izan.
Eta ez dut beti otoitzik egin eraman nintzazun.
Nire bidea ikusi eta aukeratu egin nahi nuen,
baina orain, eraman nazazu, beti aurrera.

Ospe egunak irrikatzen nituen eta,
beldur izan arren,
nire nahia handikeriak gidatzen zuen:
iragan diren egun horiek ez izan gogoan!
Hain oparo bedeinkatu nauen zure indarrak,
ni nola eraman beti aurrera jakingo du,
lautada eta zingira artetik,
haitz latz eta uholdeen orroen artetik.
Gaua iragan arte
eta goizean irribarreka aurkitu arte,
orain dela denbora asko
maite nituen aingeru aurpegi horiek,
garai batez galduta eduki nituenak.
Eraman nazazu, argi kuttuna,
eraman nazazu, beti aurrera.

John Henry Newman

ERAUZI NIRE BIHOTZEKO MISERIA

Ene Jainko, hau da nire otoitza:
Erauzi, erauzi ezazu
nire bihotzeko miseriaren sustraia.
Emadazu nire poz eta atsekabeak
arin eramateko indarra.
Emadazu indarra
nire maitasunak fruitu onak eman ditzan.
Emadazu indarra
pobreari inoiz uko ez egiteko,
harroputzen aurrean ez belaunikatzeko.
Emadazu indarra nire pentsaera
eguneroko txikikerien gainetik jartzeko.
Azkenik, emadazu indarra nire adorea,
maiteminduta, zure borondatera lerratzeko.

Rabindranath Tagore

ERNE

Jauna, zuk ondotxo dakizu:
zenbait gauza lur honetan bakarrik egin ditzakegu:
hemen bakarrik sinets dezakegu zugan,
hemen bakarrik itxaron dezakegu zugan
hemen bakarrik eman dezakegu bizitza
zugatik, eta zure izenean.

Izan ere, mundu honetatik haratago
ez da federik izango, ikuskizuna baizik,
ez da itxaropenik izango, zure geureganatzea baizik,
ez da heriotzarik izango,
betiko bizitza, betiko piztuera baizik.

Baina nola ikusiko zaitugu egunen batez, Jauna,
aurretik sinetsi ez badugu?
Nola geureganatuko zaitugu,
aurretik itxaron ez badugu?
Nola biziko dugu piztuera,
aurretik, gari alea bezala, hil ez bagara,
Bizitza Berrira, Zeugana,
birjaiotzeko?

Jauna, lur honetan bizi garen bitartean,
eraman ezazu gure fedearen, itxaropenaren
eta pazko heriotzaren hazia heldutasunera.
Egizu ez gaitezela luzamendutan ibili,
gaur gugandik espero duzun erantzuna,
gure ezjakinean, biharko utzirik.

Egun batek ez baitu ordezkutzen bestea,
ezta gaurko eginbeharrak ere biharamunekoa.
Eta, ai, Jauna!, noizbait etorriko baitzaigu
egutegian jarraipenik izango ez duen eguna!

Zuk bakarrik dakizu oraintxe bizi duguna
ote den egun hura.
Eta garbi esan diguzu egon gaitezela erne
eta, neskatxa zuhurak bezala,
kriseiluak piztuta.
Amen.

ERREALITZATEAZ ARDURATU

Errealitateaz arduratu,
inguratzen eta sostengatzen,
zeruertzak lausotzen edo irekitzen dizkidan
errealitate hurbileko edo urrunekoaz;
kreazio osoa baitaratzen duen
Jainkoaren errealitateaz;
hain ezberdin eta hain senide zaizkidan
besteen errealitateaz,
eta egunero eragiten didan
neure giza errealitateaz.

Errealitateaz arduratu
eta, horretarako, aurrez aurre begiratu eta ikusi;
ahotsik ez dutenei entzun;
munduaren errailetan sartu
eta etenaldi bat egin nire negozioen bidaian;
oztoporik jarri gabe, lasai,
askatasun osoa eman bihotzari
nahi duenera eraman gaitzan;
zarata edo bakardadea sentitzen baditugu ere,
egon behar dugun tokian egon beti;
eta ez atzera jo, ez gorputzean ez espirituan.

Errealitateaz arduratu
kanpoaldeko bideak zeharkatuz,
haien ahotsak, oihuak eta xuxurlapenak sentituz,
haien usain gozo irekia hautemanez,
neure egoera eta baldintzak kontuan hartuz,
toki, egun eta sentimenduei dagozkienak,
errealitatea, edozein dela ere,
geure aterpearen eta bizitokiaren arabera baitago
minez, hondamendiaz eta ilunpeaz beteta,
edo, aldiz, edertasunez, misterioz eta etorkizunaz gainezka.

Florentino Ulibarri

ERREINUAREN ALDEKO KONPROMISOA

Zure erreinua, Jesus Jauna, nigan dago
eta zelai batean altxor ezkutua bezalakoa da.
Nigan daramatzat deitzen didan Aitaren maitasuna,
salbatzen eta askatzen nauen zure maitasunaren grazia,
indartsu egiten nauten zure Espirituaren adiskidetasun eta komunioa.

Etor bedi gugana, gure Aita, zure erreinua!

Zure Erreinua, Jesus Jauna, gure erdian dago,
presente egin da gure elkartean.
Gure harremanen muinean daramatzagu
zure maitasun Espirituaren ontasuna eta samurtasuna,
zure presentzia berpiztuaren poza eta grazia,
Aitaren gupida eta errukia.

Etor bedi gugana, gure Aita, zure erreinua!

Zure erreinua, Jesus Jauna, gure Elizan dago,
sinestedunen erdian presente egin da.
Gure bihotzetan daramagu zure Hitzaren hazia.
Gure ondasunak partekatzen ditugunean,
zure Erreinua indartzen da.
Elkarrekin otoitz egiten dugunean,
zure Erreinua agertzen da.
Behartsuari laguntzen diogunean,
zure Erreinua azaltzen da.

Etor bedi gugana, gure Aita, zure erreinua!

Zure Erreinua, Jesus Jauna, mundu erdian kokatzen da,
pertsonen erdian presente – ezkutua dago.
Maitasuna gorrotoa baino indartsuago den lekuan,
hantxe dago zure Erreinua.
Barkamena mendekua baino indartsuago den lekuan,
hantxe dago zure Erreinua.
Justizia zapalketa baino indartsuago den lekuan,
hantxe dago zure Erreinua.
Samurtasuna maitasunik eza baino indartsuago den lekuan,
hantxe dago zure Erreinua.

Etor bedi gugana, gure Aita, zure erreinua!

Jesus Jauna, emaguzu aukera
askatasunaren Ebanjelio lan gogorretan parte hartzeko.
Emaguzu zure maitasunaren indarra
zure Aitak eman digun Erreinuaren aldeko lekuko alai eta aske izateko:
Oraingo eta betiko Erreinua.
Zurekin batera Aitari aldarrikatzen diogu:

Etor bedi gugana, gure Aita, zure erreinua!

ERREINUAREN HAZIAK

Erreinuaren haziak zarete
historian landatuak.
Onak zarete,
samurrak,
bizitzaz beteak.
Eskuan zauzkat,
maitasunez eta kulunka,
eta horregatik botatzen zaituztet mundura:
Barreia zaitezte!

Ez izan ekaitzen, lehorteen,
zapalduak izatearen edo arantzen
beldur.
Pobreak izan bitez zuen edari,
blaitu zaitezte nire ihintzaz.

Ernal zaitezte,
egizue eztanda,
ez zaitezte gera lurpean.
Lora zaitezte
eta eman ezazue fruitua.
Haizeak eraman zaitzatela
haren dantzan.

Bidezidor edo bidetatik,
bila edo galduta
dabilen bidazti orok
iraulka senti dezala bere burua
zuek ikustean,
eta izan dadila zuek maitatzeko gauza.
Nire Erreinuaren haziak zarete!

Zure Erreinuaren haziak gara!

Florentino Ulibarri

ESAZU BIHOTZAREKIN

Esazu bihotzarekin: Jesus da Jauna.
Esazu ezpaineekin: Jesus da Jauna.
Josi ezazu zeure erraietan. Jesus da Jauna.
Kanta ezazu zeure ahotsaz: Jesus da Jauna.

Jesus da Jauna:
askatasun zuzi,
alaitasun iturri,
bake haize,
heriotzaren gaineko garaipen,
lurraren goieneko zutoihal,
geure hondoeneko eguzki,
gure ibilbidearen helmuga,
bizitzaren eta esperantzaren bidaide...
Inork ezin kenduko diguna.

Jesus da Jauna:
Harengandik isurtzen da bizitza,
Harengandik gure esperantza,
Harekin gure on guztia,
Harentzat gure onespena,
Harentzat gure nahia,
Haren bitartez gure osotasuna,
Bera baita gure justizia,
Bera gure salbazioa...
inork ezin kenduko diguna.

Jesus da Jauna:
ez dago beste jaunik;
beste jaun guztiak,
diruarenak eta osasunarenak,
armenak eta legeenak,
boterearenak eta negozioenak,
demokraziarenak eta estatu arrazoiarenak,
haragiarenak eta tenpluarenak;
mundu honetako printze guztiak,
ilunpetako jaun guztiak...
bentzututa daude.

Jesus da Jauna:
bizi dena eta biziarazten duena,
atzo, gaur eta beti sendatzen,
birsortzen eta salbatzen gaituena.
Jesus da nire Jauna.
Ez dago beste jaunik.
Jesus da gure Jauna.

ESKU ELKARTUAK

Izan gaitezela, Jauna, eskuz elkartuak
otoitz eta dohainean,
zure eskuekin elkartuak Aitaren eskuetan,
Espirituaren hego emankorrekin eskuz elkartuak,
behartsuen eskuekin elkartuak.

Izan gaitezela Ebanjelioaren esku, Bizi-
ereile,
Itxaropen-kriseilu,
Bake hegaldi.

Zure esku solidarioekin eskuz elkartuak,
denen ogia banatuz.
Zure esku zulatuekin eskuz elkartuak
munduko gurutzeetan.

Jada pazko-loriaz beterik dituzun eskuekin eskuz elkartuak.
Esku irekiak, mugarik gabe,
eskurik den tokiraino.

Mundu osoa besarkatzeko gauza direnak,
geure munduarekin leialak,
Erreinuarekin leial izanez.
Esku elkartuak tenkan justiziaren aldeko grinan,
goxoak maitasunean.

Pedro Casaldáliga

ESPIRITU SANTUA

Zatoz gugana euriaren antzera
eta blai eginda utz gaitzazu.
Bete gaitzazu zure dohainez,
zure presentziaren gozotasunez,
Zu gabe ez baitago ezer onik,
ezer zuzenik eta egiazkorik.

Zatoz, Espiritu Santu!
Bete gaitzazu zure indarrez,
irakats iezazkiguzu Jesusen bideak,
egin gaitzazu partekatzeko
gai diren senide.

Orienta gaitzazu
gure gizadiaren arazo zahar eta berriei
ematen dizkiezun erantzun berriak
bizitzeko orduan.

Argitu gure adimena,
zuzen pentsatu
eta gauza guztietan Jainkoaren ikuspegia
izan dezagun.

Biror gaitzazu,
bidali zure arnasa gure buztinaren gainera.
Barnera ezazu gure bizitza,
gure eguneroko esperientziak,
gure bokazioa.
Senti dezagula zure dohainen fruitu
diren guztiekiko
komunioa.

Zatoz, maitasunezko Espiritu!
Bete ezazu gure bihotza,
eta egizu eten gabe Jainkoa
goretsi eta goratuko duen
tenplu.

Sendatu gure gaixotasunak,
leundu gure minak.
Norabiderik gabeko bideetatik
itzularaz gaitzazu.
Eraman gaitzazu, zure bultzada
leunaren esku jarritako Maria
eraman zenuen bezala.

Zatoz, Jainkoaren Espiritu!
Garbitu gure ahuldadea,
Egizu urratsez urrats gure historia,
bertan ezer hilik gera ez dadin,
eta gure existentziaren joan-etorriak
Jaunaren etengabeko gorespena
kanta dezan.

Egizu kanta dezagula gizon-emakumeon
edertasuna, Elizarena,
elkarteena, profetena,
kreazio osoarena.

Emaguzu minaren eta nekearen
barrenetik kantatzeko adorea,
Erreinuaren alde isuritako
malkoak emankorrak direla sinetsita.

Gure giza betetasunean,
egin gaitzazu Jesusen neurriko,
guri begira, Aitak, liluraturik
ikus ditzan gugan Haren begiak,
Haren bihotz bera.

Zatoz, Espiritu Santu!
osa ezazu gure bizitza,
har, antzalda eta, zure dohainez,
bete ezazu.

Emaguzu mundu berria sortzeko gaitasuna.
Eraman gaitzazu maitasunaren esperientziara.
Erakutsiezaguzu Aitaren
ezkutuko presentzia gauza guztietan.

ETORKIZUNETIK ORAINALDIRA

Jaun Piztua,
etorkizunaz bizi nahi dut.
Etorkizuna orainaldian bizi nahi dut.
Taborretik jaitsi nahi dut,
nire erraietan daramadalarik.

Nahi dut, nahi dut, nahi dut...
A, Jauna!
Zuk ereiten dituzu desio hauek nire baitan, badakit.
Une batez indar handiz sentitzen ditut.
Baina ahula naiz eta nik gogoratu ez.
Orduan zeru urdinek nire zerua estaltzen dute
eta, ekaitzik eta erauntsirik gabe ere,
zure eguzkia ezkutatzen diote nire bihotzari,
eta urdin bihurtzen naiz, ahalik gabe, argirik gabe...

Eraman nazazu Taborrera egunero,
egiazko errealitatearen etorkizun aintzagarrira.
Piztu nire soinekoak zureez,
eta nire maitasuna zureaz.

Ondoren jaitsi nazazu egunero etorkizunetik orainaldira,
lur honetan biharko eguna eraikitza,
Zure Aitaren borondatea,
Zure gurutzearekiko elkartasuna,
Zure piztueraren anaitasuna,
zuek hor daukazuen gizarte berria.

Eraiki, eraiki!
Eraiki etorkizuna lur honetan, justizia, elkartasuna,
behartsuen eskubidea - eskubide unibertsala -,
Bazko loraldiko eguzki bikainarekin,
Zure Aitaren seme-alabak eta anaiak legez,
gure Aita eta Ama.
Hau izango ahal da nire bizitzaren laburpena!

ETTY-REN EUKARISTIA

Ogia puskatzen den bezala
partitu dut nire gorputza
eta gizakien artean banatu dut;
izan ere, goseak zeuden haiek
estualdi luzeetatik zetozen.

Etty Hilesum

EZ EPAITU

Jesu Kristo, gure Jaun eta senidea:
itxi giltzaz gure bihotzeko atea,
guk inorengatik ez pentsatzeko gaizki,
inor ez gaitzesteko,
suminik inori ez izateko,
susmo eta interpretazio txarrik ez egiteko,
intentzioen santutegi sagaratuan indarrez ez sartzeko.

Jesus Jauna, senidetasunean biltzen gaituzun lokarria:
gorde gure ezpainak josirik,
inoren kontrako maiseatze eta esamesei
bidea ixteko,
guri egin-konfidentziak gordetzeko,
jakinik isilik egotea dela
lehen maitasun-modu zehatza.

Erein gure erraietan
sentiberatasun-zuntzak.
Emaguzu adeitasun-espirtua,
begirunea erakuts diezaiogun elkarri,
zeuri bezala.

Eta aldi berean emaguzu jakinduria,
kortesia hau senide arteko konfiantzarekin
komeni den bezala elkartzeko.

Jesu Kristo Jauna,
emaguzu elkar errespetatzeko grazia.
Amen.

EZ ESKU EMAN

Ez esku eman, oraindik
helmugaratu eta berriz hasteko garaiz zaude,
garaiz zure itzalak onartu,
zure beldurrak hobiratu,
lasta bota
eta berriro hegaldatzeko.

Ez esku eman. Izan ere horretan datza bizitza:
bidaia jarraitu,
ametsen atzetik jardun,
denbora askatu,
hondakinak baztertu
eta zerua irekitzean.

Ez esku eman, otoi ez etsi,
hotzak kiskaltzen badu ere
eta beldurrak hozka egiten,
eguzkia ezkutatu eta haizea
isiltzen bada ere;
oraindik bada surik zure ariman,
bada bizitzarik zeure ametsetan.

Izan ere, bizitza zeurea da; irrika ere bai.
Zuk nahi izan duzulako eta maite zaitudalako.
Egon ardoa eta maitasuna badaudelako. Egia da.
Ez dagoelako denborak sendatuko ez duen zauririk.

Ateak ireki,
sarrailak kendu,
babesten zaituzten harresiak utzi,
bizitza bizi eta erronka onartu,
barrea berreskuratu,
kantuari ekin,
goardia jaitsi eta eskuak hedatu,
hegoak zabaldu
eta saiatu berriro,
bizitza ospatu eta zeruak berreskuratu.

Ez esku eman, otoi ez etsi,
hotzak kiskaltzen badu ere
eta beldurrak hozka egiten,
eguzkia ezkutatu eta haizea
isiltzen bada ere,
oraindik bada surik zure ariman,
bada bizitzarik zeure ametsetan.
Izan ere, egun oro hasiera berri bat da
eta hau da ordurik eta unerik egokiena.

Ez zaudelako bakarrik. nik maite zaitudalako.

Mario Benedetti

EZ NAIZ NAHI NUKEEN BEZALAKOA

Ez naiz nahi nukeen bezalakoa,
eta horrek sufrimena ematen dit.
Jauna, ene Jainko eta Aita,
lagun niri neure buruarekin bakeak egiten,
neure burua onartzen
eta maitatzen.

Neurekin ditut
neure noraezean ibiltzea,
neure beldurrak,
neure purrustada eta pazientzia faltak,
inoiz neure inbidiak,
neure nagikeria...

Ez, ez naiz nahi nukeen bezalakoa,
baina aldatzeko modu bakarra,
aurrera egiteko modu bakarra,
neure buruarekin bakeak egitea da,
nire ahulezia onartzea,
eta horrela neure burua maitatzea.

Zeren eta zuk, ene Jainko eta Aita,
onartzen eta maitatzen nauzu,
eta barkatzen.
Eta ez zara nitaz inoiz aspertzen,
eta eskutik hartzen nauzu,
aurrera egin dezadan.

EZ ZAITEZ DESAGERTU NIRE BARRUTIK

Putzu sakon bat dago
nire barruan
eta putzu horretan
Jainkoa dago.
Batzuetan horra iristea
lortzen dut, baina
sarritan gertatzen da
harriek eta hondakinek
putzu hori
eragozten dutela,
eta Jainkoa hobiratua
geratzen da.
Orduan nahitaezkoa da
argira berriro ekartzea.

Etty Hilesum

EZ ZAITEZ INOIZ GELDITU

Gogoan izan beti:

Azala zimurtzen dela,
ilea urdindu egiten dela,
egunak urteak bilakatzen direla.
Baina garrantzizkoena ez da aldatzen,
zure indarrak eta uste osoak ez dute adinik.

Zure espiritua edozein armiarma-sarearen luma-erratza da.
Helmuga bakoitzaren ailegaeran,
beste bat dago irteteko;
lorpen bakoitzaren gibelean, beste dema dago.

Bizirik zauden bitartean, senti zaitez bizirik.
Egiten zenuen ona faltan botatzen baduzu,
egizu berriz ere.

Ez zaitez argazki horiez bizi,
egiozu aitzinerat besteek utz dezazun itxaron arren.
Ez ezazu utz herdoiltzen
zure barruan dagoen burnia.
egizu zutaz lastima izan dezaten baino,
begirunez so egin diezazutela.

Urteak direla-ta korri egiterik ez baduzu, egizu trostan,
trostan egiterik ez dezazunean, ibili,
ibiltzerik ez baduzu, makulua erabili,
baina ez zaitez inoiz gelditu.

Ama Teresa Kalkutako

EZBERDIN IKUSTEN OMEN DA

Diotenez, Jainkoa -egotekotan-
urruti dago,
maitasunak ez du funtzionatzen,
bakea amets hutsa da,
gerra amaigabea;
eta indartsua nagusitzen da
koldarra isilarazi
eta txikia menderatuz.

Baina aingeru batek dio
hau guztiau aldatzen duena
nire ondoan dagoela,
hauskorra dela, eta handia,
ahula eta geurea.
Kaleetan omen dago,
eta geure haragian berberan
ezagutu behar omen da,
bertso baten biluztasunean,
eta, aurkitzen duenak
uxatzen ikusten omen du beldurra,
txukatzen ikusten omen ditu malkoak,
eta bizi berria mortuan.

Diotenez, Jainkoa -egotekotan-
urruti dago,
baina zuk eta nik badakigu
hurbil dagoela, zure senideengan
... eta barru-barruan, zure baitan.

José María R. Olaizola

EZIN IZANGO DUTE HIL

Hankaz gora jarri nahi izango dute eta ezinezkoa izango da.
Oso-osoan hautsi nahi izango dute eta ezin lortu.
Hil nahi izango dute eta ezin hil.
Zatitu, haustu,
belztu, zapaldu eta indar gabe utzi nahi izango dute,
baina, dena bukaturik dagoela ustean,
oinaze gorri hauen hirugarren egunera,
askatasuna oihuka itzuliko da.
Eta ezin izango dute hil!

J. Romualdo

EZIN ZAITUT ESTUTU

Ezin zaitut estutu
argudio tematiekin
ezta otoitz obsesiboekin ere
eman diezazkidazun
Zu zerbitzatzeko osasuna,
gauza gehiago burutzeko bizi luzea,
ateak zabalik aurkitzeko ondra,
eraginkorragoa izateko baliabide ugari...

Ezin dut sufrimendurik ere eskatu
nire indarrez harro sentituz,
beharko bazenu bezala
min kuota bat
guri beharrezko gauzak emateko.

Eskatu besterik ez dizut egin nahi
Zuk beti eskaintzen didazuna:
bizitza sortzen duten
Zure maitasuna eta Zure onginahia,
baina heriotzara eraman dezakete
erasotuak defendatzeagatik;
osasuna sortzen dutenak,
baina galtzera eraman dezakete
ahulen zerbitzuan;
maitagarriak bihurtzen gaituztenak,
baina giza-deskalifikazioa eragin dezakete
legeetara ez moldatzeagatik;
lurrean fruitu ematen dutenak
beharrezko ondasun guztiekin,
baina ezer gabe utz gaitzakete
munduko kanporatuekin
senide egiteagatik.

Eskatu besterik ez dizut egin nahi
zure maitasuna eta onginahia:
Onar ditzala nigan
azken egia bailitzan,
eta nire bihotzak esan diezazula:
"Nahikoa dut".

Benjamin Gonzalez Buelta

FUNTSEZKOENA BILATZEA

Badakit bizitzak elikagaiak eta jantziak
baino gehiago balio duela.
nahiz eta modak eta jostunak izan,
gure gorputzaren osagarria besterik ez da.

Badakit soroko liliek ez dutela iruten
eta ederrak eta laudagarriak dira;
eta belarra hainbesterainokoa
eta hain merkea izanda ere,
maitemintzen gaituen
eta atsedena eskaintzen digun kolorea duela.

Badakit txoriek ez dutela ez ereiten
ez uzta biltzen, urtaro onetan,
eta, hala ere, ez zaie elikagaia falta,
ezta beste gauza asko ere
bere kantu eta festetarako.

Badakit Salomon handitasun mugarri bat izan zela.
Eta beste errege eta jaun batzuk
haren urratsak jarraitzen dituztela,
baina inor ez da soro eta zelaietan sortzen diren
loreak baino ederrago eta koloretsuago.

Badakit zuretzat baliotsua eta bakarra naizela
zure arnasa eta marka
baitaramatzat nire erraietan,
baina ez ditut ulertzen
zure eskakizun ebanjelikoak
eta hautsita amaitzen dut
zure sutekira egunero itzuliz.

Badakit oso kezkatuta izan arren
ez dudala lortzen nire altuerari arra bat eranstea,
ezta ordu bat nire bizitzari,
eta harri berean estropezu egiten jarraitzen dut.

Badakit inor ezin dela egon
bihotz oso osoak eskatzen dituzten
bi jabereren zerbitzura.
Horregatik asmatu ditugu dibortzioa
eta konpromiso ez iraunkorrak.

Badakit historia guztietan, azkenean,
borrokatzen duzula diruarekin,
eta ezin dela akordiorik egon,
izan ere, biek dituzue kontrako interesak
eta bihotz osoak nahi dituzue.

Badakit ez dela kezkatu behar biharamunaz,
zeren egun bakoitzak aski baitu bere ahalegina.
Badakit zu nire gau eta egunen zaintzailea zarela.
Eta hala eta guztiz ere, ezin dut lasai lo egin.
Nik, funtsezkoena nahi eta bilatzen dudan honek,
batzuetan noraezean eta galduta sentitzen naiz
bizi naizen mundu honetan
eta ez dizkidala ematen horren seinaleak besterik.

Horregatik, nahiz eta ebanjelioaren
kontseilua izan, kezkatu egiten naiz,
larritu eta ez dut lorik egiten,
eta bakarrik atseden hartzen dut
eta zure besoetara itzultzen naiz
garaitzen nauzunean eta magalean jartzen.

Florentino Ulibarri

GARIZUMA IRAGARTZEKO

Konbentzituta daudenen garaia da hau.
Entrenatzeko garaia,
ariketa eta borrokarako garaia;
motxila arinekoa eta pauso azkarrekoa.

Biderako eta bereizmenaren garaia,
onbideratzeko eta konpromisokoa,
probak eta topaketak sortzekoa
basamortuan, estepan, isiltasunean.

Bizi-egitasmoen garaia da,
erabaki eta aldentzeena;
batzuetan, antzaldatzeena.

Paradisua edo agindutako lurra
irrikatzen duen gizatasunaren
garai hautsia eta zatitua,
tentaldien garaia,
taboreen eta onbideratzeena,
behaztopen, zaurien eta itsutasunena,
barkamen, zaharberritze eta ur biziarena.
Dena bakarrik berrogei egunetan!

Hau da pertsona berrien garaia,
idolo sekretu eta hutsalkeria faltsuen
lasta askatu dutenena,
eta jadanik errukia eta Aitaren besarkadak
besterik irrikatzen ez dituztenen garaia.

GARIZUMAKO PREGOIA

Bataiatuak izan zaretenok,
Izpirituaren ahotsa entzun duzuenok,
Jainko biziaren errebelazioa hartu duzuenok,
Haren seme-alabak zaretela jakin duzuenok,
sartu basamortuan beldurrik gabe.
eta pauso arinez ibili!

Garizuma datorren eta doan denbora da,
bidean bizi izateko denbora,
instalatu gabe, atxiki gabe, damurik gabe,
itxaropenarekin beti larruazalean
eta begirada beste denbora batean finkatua,
Pazkoan, behin betiko den denboran.

Sartu Garizuman konbentzituta,
prest borrokarako,
equipaje arinekin;
burua argi,
barrenak samurtasunez eta errukiz beterik,
oinetako egokiaz jantzirik,
eta pazientzia handia zuen buruarekin.

Utz ezazue Izpirituaren brisarak
zuek kulunkatuak izatea;
jarri zuen bihotza sintonian
Jainkoaren taupadekin eta atsekabetuen garrasiarekin,
edan ezazue bizitzaren iturburuetan
eta ez zaitezte engainatu basamortuko ameskeriengatik.

Jaitsi menditik bizitzaren bideetara,
jaitsi beldurrik gabe eta misterioz beterik.
ez itzazue profanatu tenplu biziak ,
bilatu gauez Nikodemo bezala
eta greziar haiek bezala, galdetu ikasleei,
eta Jesusen eta bere Erresumaren lagunei,
eta nola erein munduaren eremuan
bere erara ernetzeko.
Bizi ezazue Garizuma ondo esnatuta,
elkarte gisa ibiliz,
fedez, itxaropenez eta maitasunez,
Jesusengan begiak jarrita.
Eman iezaiozue zuen buruari aukera hori!

GAUERDIAN JAIOA

Jende askoren bihotzean gaua gorputz egin da
eta maiz nire bihotzean berdin, Jauna.
Zenbat gizonezko eta emakumezko,
eta zenbat haur zorion izateko aukerarik gabe gelditu diren?
Zenbat isilune, zenbat irteera makur,
eta lainoek bustitako karrika anitz...
Zenbat bizitza hasi eta bukatzen diren “zergatik?” galdezka,
makalaldian norabiderik ezin aurkituz.

Beharbada honengatik jaio zara gauerdian.
Itzalei beldur izan bazenio,
eguerdian jaio zinatekeen.
Beharbada honengatik jaio zara gauerdian.
Eta mundu berri bati hasiera eman zenion
gau hartan hasita.

Zenbat melodia beren gakoa bilatzen ez dutenak
eta maiz nire abestietan berdin, Jauna.
Zenbat, zenbat aurpegi uzkur
ikaraz eta beldurrez zerratuak?
Zenbat ilazki Maisurik gabe
sabel huts eta auskalo zerez puztuak?
Baina zurekin, haien zalantza
itxaropenaren ahotsaz entzuten da.

Beharbada honengatik jaio zara gauerdian...

Gaua luzea bada, luzeagoa egunsentia.
Zuk diostazu: “Entzun gehiago oraindik”.
Gaua luzea da, orduan eta ederragoa egunsentia.
Zuk diostazu: “Hura ederragoa jalgiko da”.
Promesen goiza izango da
eta hilobiak jaiotzak bihurtuko.
Hezur lehorrak dantzan hasiko dira
jaioberriak aireratuko dituen biziaren oihuez.

Guk ez dugu ahantziko gauerdian jaio zarena.
Itzalei beldur izan bazenie, eguerdian jaio zinatekeen.
Guk ez dugu ahantziko Zuk gauerdian jaio zarena,
zure munduak gauerdian ikusi zuela argia.

Patrick Richard

GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO OTOITZA

Gu guztion aita,

eskerrak ematen dizkizugu
gizaki guztiok libre jaiotzen garelako
eta duintasun eta eskubide berberak dauzkagulako.
Lagun iezaguzu zure aurrean
anaia eta arreba gisa bizitzen.

Jesus jauna,

gure modura etorri zinen gure baitara
eta ez zintugun hartu.
Gaur egun, Herri askotan,
gure anaia eta arreba andanari
giza eskubideak ukatzen dizkiegu.
Oraindik ere gurutziltzatzen zaitugu.
Barka iezaguzu eta salba gaitzazu.

Espiritu Santua,

gure bihotzetako argia,
zatoz eta irakats iezaguzu
Jainkoaren seme-alaba izatearen duintasunetik
jaiotzen den jakituria.
Emaguzu ahalmena
denok lekua izango dugun mundua sortzeko.
Jauna, izaki libre gisa jaiotzen garenez,
egizu libre iraun dezagula
Zuregana itzuli arte.

GIZA ESKUBIDEEN EGUNERAKO LETANIA

Esperantzarik gabe
presondegiko burdinei eusten dietenen alde
askatasunez pasea gaitezen.
Gogamena.

Iluntasunean usteltzen direnen alde
eguzkiaren argi izpien argitan pasea gaitezen.
Gogamena.

Saihetsak hautsi dizkietenen alde
arnasa egokiro har dezagun.
Gogamena.

Bizkarra puskatu dietenen alde
tente ibil gaitezen.
Gogamena.

Aurpegia masailekoz bete dietenen alde
inork jotzeko beldurrik gabe pasea dezagun.
Gogamena.

Ahoa txikitu dietenen alde
ozenki hitz egin dezagun.
Gogamena.

Beren harrotasun zehatua leotzetan daukatenen alde
goraki mintzo gaitezen.
Gogamena.

Emaztekiak atsekabeturik bizi dituztenen alde
gure emaztekiak pozik bizi daitezen.
Gogamena.

Herria kateaturik daukatenen alde
gure herriak libre izan daitezen.
Gogamena.

Eta hauen guztien kartzelari eta borreroen alde.
Gogamena.

Salvador de Madariaga.

GOIZ ARGÍ

1.- Ezerez, huts, ilun gauza denak gauean:
sorkunde berri bat eguna hastean.
Argiaren hatsak uki gaudiari...
So nago gauza denen agerkundeari.
Ilunbe hartatik hantxe zaizkit ager
lehenago mendiak, gero soro musker.
Eguna jaio da. Zenbat margo eder!
Argiak pizteke ez da geldi ezer.

Zenbat ederrago argi suspergarri,
hainbat ederrago ager zait Izadi.
Udazken-goizetan zuria argia,
orobat orduan mendien garbia.
Inoiz baina, baita
-ilunabarrean-
hodei odol gorri...

Argiak baititu su-garretan jarri.
Argi! Gauza denak, zu zarenoi zaizkigu:
Ederra bazara, eder ikusten dugu.
Zure dirdir eder, bizi, pizgarria
ez balitz... non ote gauzaren bizia?

2.- Nire gogamena ihes doakit
argia bera den Jaunaren ondotik.
Ez nago lurreko argia ukatzeko.
Baina gauza guztiak ederragotzeko,
txinpart bat nahi nuke jainkotiarrago,
dirdir bikainean
gauzak ikus ditzadan izate hobe.

Eguzkia argia, ene argi, zatoz!
Besoak zabalik zaizu ene bihotz...
Baina ezin ase zuk nire ixira:
ezin egon nauzu soilikan begira.
Noan neurririkan ez duen argira.
Argia... Argia ez. Bera zaigu dena:
Argi eta ikuskai
ta gainera ikusle,
Hirutan bat dena.

3.- Nire bihotzeko gaudi ilun honetan
inoiz biztu bekit
 zorion hutsetan
 argi-ikuskai hori
orain sinesmenez, ilun, antz irudi;
gero zaitzadala aurpegiz-aurpegi.
Zatozkit, oi! Argi-dirdai zaituguna!
Nigan biztu ezazu zerutar eguna.
izan hutsarekin, zure Izatean
bizi nadin, bizi,
 Zuri begira, maitale, goi-
 argi betean!

Juan Mari Lekuona

GOIZERO

Goizero
Zugan murgilduko naiz,
bizitzaren ura,
edalontzia izan baino lehen,
ildoan ongarria,
jolasa iturrian,
sosegua lakuan.

Goizero Zugan dituko naiz,
Aitaren Hitza,
belarrira xuxurlatu baino lehen
ikasgelako diskurtsoa,
iragarkia haizean,
isilunea entzutean.

Goizero orientatuko naiz Zugan,
Erresumarako bidea,
kalean pasabide izan baino lehen,
ibilbidea mukan,
etenaldia itxaronaldian,
airean jauzia.

Goizero atsedeen hartuko dut Zugan.
jakinduria haragitua,
loaren beila izan aurretik,
gezia arkuan,
jostura zaurian,
nekea zure eskuan.

Egunero begiratuko dut Zugan,
Aitaren irudia,
aurpegian poza izan aurretik
indarra besoetan,
begietan fereka,
argia lokatzetan.

Benjamin Gonzalez Buelta, sj

GORESPEN OTOITZA

Bizitza eman egiten zaigu, *eskerrik asko*.
Betiereko bizitza grazia da, *eskerrik asko*.
Bizitza jainkozko taupada da, *eskerrik asko*.

Bizitza Espirituaren arnasa da, *eskerrik asko*.
Bizitza maitasunaren garaipena da, *eskerrik asko*.
Bizitza uhalditan doan ibaia da, *eskerrik asko*.
Bizitza hobekuntza atsegingarria da, *eskerrik asko*.

Bizitza kantua eta hitza da, *eskerrik asko*.
Bizitza harremana eta topaketa da, *eskerrik asko*.
Bizitza pasioa eta estasia da, *eskerrik asko*.
Bizitza dohaintza eta entrega da, *eskerrik asko*.

Bizitza bakea eta samurtasuna da, *eskerrik asko*.
Bizitza ahalegin eta itxaropenen landa da, *eskerrik asko*.
Bizitza, kimatze eta lehia da, *eskerrik asko*.
Bizitza nekezia eta tristezia da, *eskerrik asko*.

Bizitza bilaketa eta hustasuna da, *eskerrik asko*.
Bizitza iluntasuna eta heriotza da, *eskerrik asko*.
Bizitza heriotza gehiago da, bizitza gehiago, *eskerrik asko*.
Bizitza Guztiarekin bat egitea da, *eskerrik asko*.

Eskerrik asko, bizitza.
Eskerrik asko, maitasun.
Eskerrik asko, piztutako Kristo.
Eskerrik asko, Espiritu bizi-emaila.
Eskerrik asko, Jainko kreatzaile.

GUREKIN DAGO

Gurekin dago.
Ez da erlijio batekoa edo bestekoa.
Ez da kristauon jabetza
ezta onak direnena ere.
Haren seme eta alabena da.
Deitzen dutenekin dago eta baita ezagutzen ez dutenekin ere.
Giza bihotz oroetan bizi da
bakoitzari pozetan eta nahigabeetan lagunduz.
Ez da inor haren bedeinkapenik gabe bizi.

Gurekin dago.
Ez dugu haren ahotsa entzuten.
Ez dugu haren aurpegia ikusten.
Haren presentzia apal eta neurritsua, hurbil eta barrukoa
konturatu gabe pasatu dakiguke.
Ez badugu bihotzean sakontzen
bizitzan bakarrik goazela irudituko zaigu.

Gurekin dago.
Ez du oihurik egiten.
Ez du inor behartzen, beti errespetatzen du.
Gure adiskiderik onena da.
Ongira, ederrera eta zuzena denera erakartzen gaitu.
Harengan argi apala eta indar kementsua aurki ditzakegu
bizitzaren gogorrari eta heriotzaren misterioari
aurre egin ahal izateko.

Gurekin dago.
Inork ulertzen ez gaituenean hark hartzen gaitu.
Samin eta makalaldietan kontsolatzen gaitu.
Ahultasun eta ezintasunean eusten gaitu.
Beti gonbidatzen gaitu bizitza maitatzera,
zaintzera eta hobetzera.

Gurekin dago.
Zapalduekin dago haien duintasuna defenditzen,
zapalkuntzaren aurka ari direnei ahalmena ematen.
Denengan dago bizitza zuzenagoa
eta anaikorra goa eraikitzeke deika,
duinagoa, azkenekoekin hasita.

Gurekin dago.
Gure erantzukizuna itzartzen du
eta gure duintasuna ernetzen.
Gure espiritua indartzen du
edozein idoloren mendean ez erortzeko.
Gurekin dago gal dezakeguna salbatzeko.

Gurekin dago.
Bizitzan dago eta baita heriotzan ere.
Egunero laguntzen digu eta azken orduan hartuko gaitu.
Orduan ere seme eta alaba bakoitza
besarkatuko du, betiko bizitza erreskatatuko.

Gurekin dago.
Hau da kristauok Eguberrietan ospatzen duguna;
sinestunak, ez hain sinestunak,
sinestun gaiztoak eta ia sinesgabeak.
Fede honek gure itxaropenari eusten dio
eta gure bizitzetan alaitasuna jartzen du.

José Antonio Pagola

GURUTZE APALAGOA

Apala, apain gabea.
Handikeriarik gabe,
gehigarri eta apaindurarik gabea,
enborrak biluzik
eta zuzen-zuzen ikus daitezzen.

Besoak lurra besarkatzen,
hazta-makila zerurantz begiratzen.
Ezaugarri hau,
agindu bien arteko giza orka hau
apurtu ez dadin,
apaindurarik ez.

Apala, apain gabea,
arotz jauna, egizu gurutze xehea.

León Felipe

HAITI HERRIKO JENDEAREN ALDE

Jauna, eskerrak eman nahi dizkizut, besterik ez;
izan ere, gaur goizean esnatu naizenean, banekien non
zeuden nire seme-alabak.

Izan ere, gaur goizean nire etxeak zutik zirauen, eta ez
diot negarrari eman behar izan, nire senarra bizirik ikusi
dudalako eta, halaber, ez ditudalako hondakindegitik atera
behar izan ez nire semea, ez nire anaia edo arreba, beste
gizajo asko atera behar izan dituzten bezala.

Izan ere, gaur goizean baso bat ur hartu ahal izan dut,
eta ez dut argia pizteko arazorik izan, eta bainua hartu dut.

Izan ere, gaur goizean ez dut hiletarik izan,
baina, batik bat eskerrak eman nahi dizkizut,
bizirik nagoelako, ahotsa dudalako eta Haiti Herriko
jendearen aldeko negarra egin dezakedalako.

Jauna, zuregana natorkizu Zuk daukazulako ezinezkoa
ahalezkoa bihurtzeko ahalmena;
iluntasuna argi bilaka dezakezulako;
gurasoei eman iezaiezu indarra, baita oroz gain aurki
daitekeen bakea ere;
Zeuk zabaldu ditzakezu datorren laguntza emateko kaleak;
era berean, zeu zara osagileak, erizainak, elikagaiak, ura, etab.
hornitzeko gai zarena, heldu bezain azkar.

Jauna, etxekoren bat galdu dutenen alde eskatu nahi dizut,
eman iezaiezu bizitzen jarraitzeko bakea, itxaropena eta kuraia.
Begira itzazu haurrak Zure ahalmenez.
Hau guztia Jesusen izenean eskatzen dizut!!
Amen.

HAR EZAZU ETA...

Har ezazu irriño bat
eta opari egiozu inoiz izan ez duenari.

Har ezazu eguzki izpi bat
eta egizu hegan egin dezala
gaua nagusitu den bazterrera.

Aurkitu ezazu iturriño bat
eta egizu bertan bainu bat har dezala
lohian herrestan dabilenak.

Har ezazu malko bat
eta jar ezazu inoiz
negar egin ez duenaren bisaian.

Har ezazu balorea
eta jar ezazu borroka egiten
ez dakienaren adorean.

Aurkitu ezazu bizitza
eta konta iezaiozu atzematen ez dakienari.

Har ezazu esperantza
eta bizi zaitez haren argitan.

Har ezazu ontasuna
eta emaziozu ematen ez dakienari.

Aurkitu ezazu maitasuna
eta emaziozu ezagutzera munduari.

HAR EZAZUE ESPIRITUA

Apurka-apurka, ikasten ari gara nola bizi barnetasunik gabe.
Jada ez dugu harreman beharrik geure baitako gune hoberenarekin.
Aski dugu denbora-pasa bizitzearekin.
Konforme gara arimarik gabe funtzionatzearekin
eta janaritzat ogia bakarrik izatearekin.
Ez dugu egiaren bila arriskatu nahi.

Zatoz, Espiritu Santua, eta libra gaitzazu barnea hutsik izatetik.

Jada badakigu sustrairik gabe eta helmugarik gabe bizitzen.
Aski dugu kanpotik programatuak izaten uztearekin.
Etengabe gara mugitzen eta higitzen,
baina ez dakigu ez zer nahi dugun, ez nora goazen.
Gero eta informazio handiagoa dugu,
baina inoiz baino galduago sentitzen gara.

Zatoz, Espiritu Santua, eta libra gaitzazu noraezean ibiltzetik.

Ez diogu ia axolarik ematen existentziaren arazo handiei.
Ez dugu axola bizitzari aurre egiteko argirik gabe gelditzea.
Eszeptikoago bihurtu gara; alabaina,
ahulago eta segurtasunik gabeago ere bai.
Adimentsu izan nahi dugu eta argi.
Zergatik ez dugu topatzen sosegurik eta bakerik?
Zergatik gaitu horrenbeste bisitatzen tristurak?

Zatoz, Espiritu Santua, eta libra gaitzazu barne-ilunetik.

Gehiago bizi nahi dugu, hobeto, denbora luzeagoan; alabaina, zer bizi?
Ondo sentitu nahi dugu geure burua, hobeto sentitu; alabaina, zer sentitu?
Bizitza biziki nola gozatuko gabilta, etekina nola aterako;
alabaina, ez gara konformatzen ondo pasatzearekin bakarrik.
Nahi duguna egiten dugu.
Ez da guretzat apenas ez debekurik, ez alor eragotzirik.
Zer dela eta nahi izaten dugu beste zerbait?

Zatoz, Espiritu Santua, eta irakats iezaguzu nola bizi.

Aske eta burujabe nahi dugu izan;
alabaina, gero eta bakarrago sentitzen gara.
Bizi beharra sentitzen dugu eta geure mundutxotik,
zenbaitetan hain aspergarri den mundutxotik, ez gara irteten.
Maitatuak izatearen beharrean gara;
alabaina, ez gara gauza harreman bizi eta adiskidetsuak sortzeko.
Sexuari «maitasuna» deitzen diogu eta plazerari «zoriona»;
alabaina, nork ase dezake gure egarria?

Zatoz, Espiritu Santua, eta irakats iezaguzu maitatzen.

Gure bizitzan ez da jada Jainkoarentzat lekurik.
Haren presentzia itorik gelditu da gure barnean edo itxura galdurik.
Zaratak hartu digu barnea, jada ezin dugu haren ahotsa entzun.
Hamaika desio eta sentipenetan murgildurik,
ezin dugu haren hurbiltasuna sumatu.
Harekin ez beste guztiekin dakigu hitz egiten.
Misterioari atzea emanik bizitzen ikasi dugu.

Zatoz, Espiritu Santua, eta irakats iezaguzu nola sinetsi.

Fededun eta fedegabe, fede txikiko eta fede okerreko,
horrela goaz erromes askotan bizitzan aurrera.
Espiritu Santuaren kristau-jai honetan,
guztioi diosku Jesusek behin batean bere ikasleei esan zien hura,
gainera hats eginez: «Har ezazue Espiritu Santua».
Gure bizitza gaixoaren sostengu
eta fede ahularen arnasa den Espiritu hori sar daiteke gure baitan,
berak bakarrik dakien bidetik.

Jose Antonio Pagola

HAR NAZAZU ESKUTIK

Ene Jauna, har nazazu eskutik!
Bizi-bizi segituko dizut, eragotzi gabe.
Ez diet muzin egingo
bizitza honetan nire gainera
etor dakizkidakeen ekaitzei.
Horiek sor diezazkidaketen talkak
jasango ditut atsegin handiz.

Baina inoiz edo behin
emadazu bake une labur bat.
Ez dut uste izango, inuzente ni halakoa,
nire gainera eroriko den bakea
betierekoa denik.
Gero etor dakizkidakeen
kezkak eta borrokak onartuko ditut.

Berotasunean eta ziurtasunean iraun nahi nuke,
baina ez naiz matxinatuko
hotzaren latza jasan beharko dudanean
zure eskutik banaramazu.
Alde guztietara segituko dizut
beldurrik gabe, ahal delarik.
Edozein lekutan nagoela ere,
saiatuko naiz maitasun pixka bat islatzen,
nire barruan dagoen
lagun hurkoarekiko egiazko maitasun hori.

Etty Hilesum

HAZIA IZAN

Eskerrik asko, Aita, hazia izaten laguntzen diguzulako.
Zuk txikienak aukeratzen dituzu
biziaren eta salbamenaren sortzaile izan daitezen.

Jesusek bere burua zuen hizpide, eta bere dizipuluak,
ordukoak, betikoak.
Zure seme Jesus izan zen, zinez, hazirik txikiena.
Zuk mirabe apal baten sabelean erein zenuen,
eta harengandik sortu zen munduaren salbazioa.

Aita, hau da zure logika:
pobre eta txiki egiten direnak
direla, zure semeari jarraituz,
fruitu iraunkorra ematen dutenak.
Horiexek ematen dute bizitza egunez egun,
edo *gaur* gogoratzen dugun martiritzan.

Aita, begi bistan jarri diguzu
munduak “ahultzat” daukana aukeratzen duzula
indartu dezan gure fedea,
eta horrela ereiten direla duintasuna eta errespetua.

Gaur eta beti, Aita, munduan
hazirik txikiena ereiten duzu
eta bertan jartzen duzu, atseginez,
zure ernaltzeko indarra.

Irribarrearen hazi txikia nahi dugu izan,
hazi txiki eta ezdeusa,
eguzkiaren izpi egingo dena
haur bakartiarentzat,
gaixoarentzat,
zahar abandonatuarentzat.

Esku estutuen hazi txikia,
hazi txiki eta ezdeusa,
nerabe babesik gabearentzat
salbagarri bihurtzen dena.

Doaneko keinuaren hazi txikia,
hazi txiki eta ezdeusa,
diskurtsoz nazkatuta dauden gizon-emakumeentzat
biziaren hitz bihurtzen dena.

Anaiarteko komunitatearen hazi txikia,
hazi txiki eta ezdeusa,
gizarte guztiarentzat
itxaropenerako hitzordu bihurtzen dena.

Solidaritatearen hazi txikia,
hazi txiki eta ezdeusa,
kultura ebanjelizatuarentzat
Berri On bihurtzen dena.

Otoitzaren hazi txikia,
hazi txiki eta ezdeusa,
eternitatearen bila dabilenarentzat
arnas bihurtzen dena,
Presentzia baten onarpen.

Hauek hazi txikiak dira.
Gu geu ere bai,
eta egunez egun bizitza emateko prest gaude
haziak fruitu eman dezan.

“HEDADURARIK GABEKOEN” OTOITZA.

Gure Aita, non zaude?
Har ezazu mugikorra eta entzun gure otoitza.

Egizu gure erregistroa atera dadila beti
zure helbideen libretan,
hor, zure kutunen taldea gordetzen duzun horretan.

Etor bedi gugana zure mugikorraren zenbakia,
Beti “lokalizatuta” egon zaitezen,
edonoiz zurekin kontaktatu ahal dezakegun.

Egin bedi zure deia
eta, komunikatzen ari garela ikusten baduzu,
utzi zure mezua ahotsaren kutxatilan.

Emaguzu eguneroko ukitua
edo bidaliezaguzu SMS bat,
hor zaudela kontura gaitezen,
gu guztioz arduratuta.

Barkatu kobrantza itzulian
egiten dizkizugun deiak,
guk ere, ezkutuan, “mesprezu ukituak”
egiten dizkigutenei barkatzen diegunez gero.

Eta, arren eta arren,
ez gaitzazu utz zure hedadura eremutik kanpo erortzen,
eta libra gaitzazu
zugandik aldentzen gaituzten
baimendu gabeko sareetatik.

José María Escudero

HEMEN GAITUZU

Jauna, hemen gaituzu zure izenean bildurik.
Bilduta gaude eta elkaturik sentitzen gara,
kezkutzen gaituena eta arduratzen garena
Zuretzat ere, Jauna, gauza bera baita:
fedea aldarrikatzen eta bizitza ospatzen duen senide-
mundua.

Zuk ondo dakizu, Jauna:
zaila, batzuetan oso zaila, egiten zaigula bidea.
Gure eta besteen erruak onartzea zaila da.
Antzutasun uneetan itxaropena zaila da.
Axolagabetasun giroan adorea zaila da.

Zaila da behartsu, apal eta txiroen aldeko hautapena,
axolagabetasunak, konformismoak eta
ozta-ozta irauteak Zu baztertzen zaituztenean,
erosotasun izenean.

Zaila da hobetzea, etorkizuna eraikitzeke konpromisoa.
Aurrera egitea, arriskatzea, ilusioa berriro izatea zaila da.
Leialtasun sortzailea zaila da.
Zure bide beretik beste batzuk joateko
gonbita egitea zaila da.

Baina ematen diguzun indarra
zailtasunak baino handiagoa dela sinesten dugu.
Jakin badakigu Zuk porrot egitetik, heriotzatik,
bizitza, irabazia eta berpiztuera ateratzen dituzula.
Geroz eta behar handiagoa dugu sinesteko
Zu zarela salbatzen duen egia bakarra,
askatzaile bakarra, bide bakarra,
bizitzari zentzua ematen dion Bizitza bakarra.

Lagundu iezaguzu, Jauna, gure elkarte jarrera hobetzen,
kritika sortzaile egiteko gaitasuna izaten,
beste pertsonetikiko elkartasuna handitzen,
Anaia eta Salletarrentzako etorkizuna
eraikitzeke konpromisoa sustatzen.

HEMEN NAUZU BERRIRO ERE

Hona hemen ni berriro ere.
Gogoratzen azken aldia noiz izan zen?
Gaur berriro itzuli naiz Zuregana,
Zu, nire iradokizunen berezko postontzia.
Nire aterpe, nire itxaropen eta kontsolamendua.

Eta oraingoan, beste askotan ez bezala,
ez natorkizu eskatzera,
(badakizu zein maisu on naizen kontu honetan!),
ezta nire haserrea azaltzera ere,
(badakizu zein ongi egiten dudan hori!),
ez natorkizu berriro aitortzera
(noiz ote da azkenenekoa?!)
aitortu ezin ditudanak,
eta zenbat aldiz izan diren gure elkarriketa
eta isiluneren hizpide, zenbat!

Gaur zure aitzinean naukazu, txalotzeko,
Zu txalotzeko, eskertzeko eta Zuri eskerrak emateko
bizi izandako une oro
eta etorkizun diren beste hainbat oro.

Gaur zurekin erdibitu nahi dut,
ahaztuta eduki izan ditudan altxorrak
berriro ere aurkitzean sortarazi didaten poza.
Ene, zenbat irudi, usain, ahaire! Gogoratzen?
Zu hor izan zaitut beti
zalapartan, festan, mahai inguruko bileretan,
amaren errietan, aitaren begirada konplizean,
oporraldi haietan, eguzki eta igerileku...

Sentitu zaitut bai, sentitu,
nire seme-alaben azaleko usainea,
haien irribarrean eta malkoetan,
logelako barne giroan
edo ospitaleko gela batean zein bestean.
Jakina, baita saminean ere,
bai fisikoan eta bai sakonekoan ere:
gabezia (aita-ama).

Zuk, nire barne-barnean,
egiten duzu den-dena errazagoa
eta eramangarriagoa izan dadin,
berdin dio noiz eta zein egunetan,
berdin dio muturtuta egon
edo azkarregi ibili haizea bera aztoratuz.
Laguntasuna bilatzean beti zaitut Zu,
kontsolamendua behar dudanean, Zu hor zaude,
eta baimena ematen didazu
negar egiteko, lasaitzeko, itxaroteko...

Badakit sarri askotan zail samar jartzen dizudala
baina Zu ez zara kikiltzen
eta behin eta berriro aurkitzen zaitut.
Gaur badakit hamaika arrazoi
dudala zuri eskerrak emateko:
hemen nauzulako,
haiek ere hemen dituzulako
hemen zaudetelako,
banaizelako eta sentitzen dudalako
eta merezi duelako.

Musu potoloa!

HERIOTZA EZ DA AMAIERA

Heriotza ez da deus.
Aldameneko logelara pasatu naiz.
Ni neu naiz, zuek zeuek.
Elkarrentzat garena jarraitzen dugu izaten.

Emadazue beti eman izan didazuen izena.
Hitz egin nitaz beti egin ohi duzuen legez.
Ez erabili ahaire desberdina. Ez izan handiusterik.
Egizue barre denok barre eginarazten zigunarekin.
Otoi egin, barre egin, nitaz pentsa ezazue.

Nire izena erabilia izan dadila beti bezala,
harrokeriarik gabe, itzalik gabe.
Bizitza beti izan zena da. Haria ez da eten.

Zer dela-eta ibili nintzen zure adimenetik at?
Zure ikusmenetik at nagoelako soilik?
Zain naukazu. Ez nago urruti, bidearen beste aldean soilik.
Ikusten? Dena ongi dago.
Ez negar egin egia bada maite ninduzula.

Jainkoaren dohaina ezagutuko bazenute eta paradisia zer den!
Ortzemugak ikusterik izango bazenute,
zeharkatzen ditudan landak eta bidexkak!
Kontenpla bazenezakete edertasuna
zeinaren aitzinean beste guztiak zurbiltzen diren!

Sinets iezadazue: heriotza irits dadinean
eta paradisu honetara zatoztenean,
maite zintuena bera eta orain be
maite zaituena ikusiko duzue berriro,
eta haren bihotza aurkituko duzue
aurkituko duzuen bezala haren samurtasuna
erabat garbi.

Berriro ikusiko nauzue, baina antzaldatuta eta zoriontsu,
ez jada heriotzaren zain,
baizik zuekin batera aurrera eginez
Bizitza eta Argiaren bidexka berrietatik,
sekula asetzen ez duen nektarra edanez
Jainkoaren alboan, mozkortu arte.

San Agustin

HERIOTZEAK DESEGITEN DU...

Heriotzak desegiten du bizi-
lekua munduan.
Baina Zuk, Jauna, hartzen gaituzu
zeure etxean zeruan.
Joan zaiguna
onartu, Jauna,
Zeu bizi zaren lekuan.

Jaunaren nahiez aurkitzen gara
agurtzera behartuak.
Baina zeruko pozak ditzala
xukatu negar-malkoak.
Honen bidera
bitez atera
aingeru eta Santuak.

Gure arteko gertakizunek
ezbehar asko dakarte.
Elkar maitatzen dugunok ezin
bizi gintezke aparte.
Jainkoa lagun
esan dezagun:
“Agur! Egun Handira arte”.

Juan Mari Lekuona

HEZITZAILEAREN OTOITZA

Jauna, lagun iezadazu nire kristau hezitzaile lanetan,
guztiek onar dezaten nire testigantza,
eta onbiderako deia zurea dela senti dezaten.
Ager zaitez nire lanean,
ager zaitez nire presentzia isilean,
ager zaitez nire irrian,
zure ontasunaren eta elkar-ulertze unibertsalaren
lekuko izan dadin.

Emaiezu ikasleei bihotz zintzoa,
zure egia ezagutu eta bete-betean onar dezaten.
Emaiezu eguneroko esperientzietara irekita dagoen espiritua,
nire bitartez egiten dituzun zure deiei erantzuteko prest.
Onar gaitzatela, Jauna,
eta, gurekin batera, onar dezatela zure hitzaren egia.
Haiengandik ikas ditzagula argitasuna,
bizitzaren maitasuna, bizitzearen ilusioa.

Gure hezkuntza lana, lurra eta lurreko guztia zaharberritzeko
gauza izan dadila: irizpideak, balioak, norberekeriak...,
zure laguntzarekin, Eskolan, XXI. mendeko gizon-emakumeek,
Zuk maite gaituzun bezala,
zu maitatzen eta elkar maitatzen ikas dezaten.

Jesukristoren, lehen hezitzailearen bitartez, eskatzen dizugu.
AMEN.

HILDAKO BATEN ALDE OTOITZA

Eskerrak, Jauna, gure artekoa izan
eta berehala gure ondotik joan zaigun senide honengatik.
Eskerrak ematen dizkizugu, berak eman zigun maitasunagatik
eta bere inguruan zabaldu zuen bakeagatik.
Eskerrak ematen dizkizugu bere oinaze eta minetan
iraupena agertu zuelako
eta bere ezerezean maite izan genuelako.

Jauna, bere bizitzako ezer gal ez dadila eskatzen dizugu;
eta bere atzetik datozenak,
beretzat errespetagarri izan zen guztia errespetatzea
eta hilda dagoenez gero,
bere ekintza onak guztiontzat eredu izan daitezela.
Bere seme-alabengan
bere bihotzetan eta bizitzeko gurarian,
bere pentsaera eta bere barnean
bizitzen jarrai dezala nahi dugu.
Bera bizi zen bitartean bere inguruan elkaturik geundenok,
aurrerantzean elkartuago bizi gaitezela.

Eta elkarte honetan, lur honetako adiskidetasun
eta bake guztietan bezela,
heriotzera arte gurekin leiala izango zarenaren zure hitza
beteta ikus dezagula.

H. Oosterhuis

HOBETO ZERBITZATZEKO

Oi Kristo Jauna, emadazu bihotz noblea
zu hobeto zerbitzatzeko.

Bihotz indartsua
ideal altuak irrikatzeko
eta ez aukera kaskarrak.

Bihotz eskuzabala lanean,
horretan inposizio bat ez baina
ematen didazun misio bat ikus dezadan.

Bihotz handia sufrimenean,
soldadu bulartsu izanez
neure gurutzearen aurrean
eta zirenetar sentibera besteen gurutzearentzat.

Bihotz handia munduarentzat,
adikor izanik haren ahuleziekin,
baina haren maxima eta sedukzioek
zauritua izan gabe.

Bihotz handia gizakiekin,
leial eta arretatsu guztiekin,
baina bereziki lagunkoi eta emana
xume eta apalei.

Bihotz ez kiribildua inoiz neuregana,
beti zuregan sostengu duena,
pozik zu eta neure senideak zerbitzatzeko,
oi ene Jauna,
nire bizitzako egun guztietan.
Amen.

HONA HEMEN GURE HAURRA

Haur bat daukagu gure baitan...

Herria heriotzaren ilunean dabil
baina martxan goazen guztiok argi bat ikusi dugu.
Argia itzaletako bazterretan
piztu da Gau magikoan.

Haur bat daukagu gure baitan...

Haur bat jaio zaigu
Haur bat eman zaigu
Gaur eta betiko.
Haur bat jaio zaigu
Haur bat eman zaigu
Hark piztuko du argia.

Haur bat daukagu gure baitan...

Ederra deituko dugu
Zoragarria
Kontseilaria
Jainko ahalguztiduna
Aita betiko
Zoragarria
Aholkularia
Jainko ahalguztiduna.

Haur bat daukagu gure baitan...

Bakearen printzea dugu
Jainkoak bedeinkatu gaitu
Herrian poza sortu digu
Uzta biltzeko sasoia dugu.
Leher ditzagun kateak
astunegiak baitira guretzat.
Aurrerantzean gure etsaiek
ihesari emango diote, ilunpean.

Haur bat daukagu gure baitan...

HURA POZA NIREA

*Hura poza nirea "Goazen Jaunaren etxera" esan zidatenean!
(121. salmoa)*

Goazen guztiok Jaunaren Etxera.
Ez da gizon-emakumeok geure eskuz egindako harrizko etxea.
Ez dago hiri dotoreetan, megalopolis harrigarrietan.
Jaunaren Etxea bizirik dago; Espirituak eraiki du.
Goazen Jaunaren Etxera, fedean oinarrituta,
maitasunaren indarrak sendotu duen elkarte gisa.

Han daude nire senide eta lagunak,
han, nire bizigarri eta aterpea, nire bizitza partekatua;
elkarrekin dihardugu lanean, elkarrekin hartzen dugu atsedena,
elkarrekin ospatzen dugu Jaunarekin eta bere izenean.
Han daude justizia egin
eta pobrearen eskubideak defendatuko dituztenak,
han daude santutasunaren iturriak, alaitasunaren iturbegiak.
Senideok, ez dakizue zenbateraino nagoen zuen beharrean,
zenbateraino maite zaituztedan. Bakea bedi zuekin!

Eta hura poza nirea "Jauna etxera datorkigu" esan zidatenean.
Nire etxea txikia eta pobrea da, baina Jauna dator nigana.
Nire etxea hotz eta iluna da, baina Jauna dator nigana.
Nire etxea zaharkitua dago, itsusia da, baina Jauna dator nigana.
Badaki ez naizela nor... baina Jauna dator nigana.
Zatoz, Jauna.

HUSTU NIRE IDOLOAK

Ene Jainkoa:
Hustu nire “idoloak”.
Nire etxetik atera itzazu
okerreko lekuan dauden
pertsona edo gauza oro:
nire bakardadea babesten duena,
nire buruaren ukatzea gozarazten duena,
galdu nahi ez dudana...
Nire idoloak dira, Jauna.
Zu eta bion artean tartekatzen dira.
Hustu nire barrua, Aita!
Zu bakarrik zara nire Jainkoa,
nire aukera ebanjelikoaren euskarri bakarra...
Aire zabalean bizitzea:
nitaz gabetze, ukatze,
bakardadea den barneko pobrezia horretan,
elkartasunari lekua egiteko.
Bizitzeko beste arrazoirik gabe.
Zu eta zure herria bakarrik!

A. Sanchís, o.p.

HUTS EGITEAK AITORTZEKO GRAZIA

Emadazu, Jauna,
neure huts egiteak aitortzeko grazia,
neure nahia kosta ala kosta,
besteen iritzi eta desirak kontuan hartu gabe,
ez ezarri nahi izateko grazia.

Emadazu gaitasuna
neure burua kritikatu ahal izateko,
jakituria, senideei kalte egiten ari naizela ezagutzeko
egin dudan iraina zuritzeko arrazoi faltsuen bila
ibili beharrik gabe.

Soilik oinarri honen gainean
alda dezaket neure portaera
eta harremanetan harmonia berreskuratu.

Emadazu, Jauna, bihotzez barkatzeko grazia.
Hori egiteak on gehiago dakar
muturka ibiltzeak baino,
urruntzea eta aldentzea dakarten jarrera itxiek baino.

Ireki, Jauna, espazio hutsak nigan,
zuk eta nire senideek bete ditzaten.
Horrela nire bihotza, urratsez urrats,
xaloagoa egingo da,
ulermen eta pazientzia handiagokoa.

Eta horrela ikasiko dut zuk bezala pentsatzen,
zuk bezala sentitzen, zuk bezala jokatzeko,
eta jakinez joaten, senidea, ni bezala,
Aitak maite duen seme-alaba maitea dela.

IBILIKO NAIZ

Beti zure presentzian ibiliko naiz
bizitzaren bidean.
Nire bizitza ematen dizut, Jauna, egizu emankorra.
Nire borondatea ematen dizut, egizu zurea bezalakoa.

Oinutsik ibiliko naiz,
nire altxorra zarela jakitearen
poztasun bakarrarekin.

Hartu nire eskuak, egin itzazu abegikorrak.
Hartu nire bihotza, egizu gori-goria.
Hartu nire oinak, egin itzazu nekagaitzak.
Hartu nire begiak, egin itzazu gardenak.
Hartu nire ordu grisak, egin itzazu berritasun.

Bihur zaitez nire erorketa eta atsekabetako bidaide hurbil
eta irakats iezadazu nola goza dezakedan
bidean ematen dizkidazun gauza txikiekin,
beti aurrera eginez,
bide bazterrean gelditu orde.

Hartu nire nekeak, egin itzazu zeureak.
Hartu nire bidezidorrak, egin itzazu zure bide.
Hartu nire gezurrak, egin itzazu egia.
Hartu nire heriotzak, egin itzazu bizitza.
Hartu nire pobrezia, egin ezazu zure oparotasun.
Hartu nire obedientzia, egin ezazu zure poztasun.
Hartu nire ezereza, egizu nahi duzuna.
Hartu nire familia, egizu zurea.
Hartu nire maitasunik eza,
nire betiko gabeziak,
nire betiko desilusioak, nire mikaztasun orduak.

Egizu bidea nirekin, Jauna;
Hurbil zaitez nire urratsetara.
Eskaintzan egin nazazu berri,
entregan egin nazazu poztasun;
bizitza eman eta zure zerbitzuan ahitzen denean
sentitzen den gainezkako poza.
Amen

IGANDE GOIZEKO OTOITZA

Ene Jauna,
garaiok beldurrezko garaiak dira.
Gau honetan, lehenbiziko aldiz,
esna gelditu naiz iluntasunean,
begiak gori, erre,
nire aitzitik, gelditu gabe,
sufrimenduzko irudiak
iragaten ziren bitartean.

Gauza batez hitz ematen dizut, ene Jauna,
gauza oso txiki batez:
uko egingo diot gaur
etorkizunak eragiten didan
antsia eta etsipena nire bihotzean zintzilikatzeari.
Baina honetarako
entrenamendu apur bat behar dut.
Oraingo, nahikoa da
egun bakoitzari berea ematea.

Jauna, lagunduko dizut
nire barruan itzalita gera ez zaitezen,
baina ezin dizut deusik aitzineratu.
Hala ere, gauza bat daukat gero eta argiago:
ez zara Zu guri laguntza emango diguzuna.
Aitzitik, gu gara Zuri laguntza emango dizugunak.

Etty Hilesum

IKASTURTEA HASTEKO OTOITZA

Jauna, berriro hemen, ikastetxean...
Atsedena hartzeko aukera ezin hobeia izan da
igarotako oporraldia.
Garai honetan gure burua gaurkotzeko uneak izan ditugu,
zenbait libururen irakurgaien bitartez.
Baina, egia esan, ikasleen falta ere
sumatu dugu bi hilabete hauetan.

“Gure ikasleak”, “gure mutikoteak”, “nire ikasgelako neskak”...
Zergatik hitz egiten dugu horrela?
Zergatik sumatu dugu euren falta oporraldian?
Ikasturtean zehar beraiekin nazka nazka eginda aurkitu ohi gara,
baina haiekin ez gaudenean,
gure bizitzan zerbait faltako balitz bezala aurkitu ere.
Gure senitarteak (senarra, emaztea, seme-alabak...)
gauzarik pertsonalarena eta hurbilena dira bizitzan.
Baina zergatik hartzen ditugu hain “gureak” baliran
zuk, Jauna, gure eskuetan ipintzen dituzun neska-mutil hauek?

Uste dugu erantzuna jakin badakigula: “Bokazioagatik”.
Hori gugan hain da naturala eta berezkoa,
non ezin dugun bazterrean laga, jaramonik egin barik.
Bokazioa, deia, joera, barneko grina, beharkizuna,
ideala, biziaren arrazoia...
Izena ez da garrantzizkoa.
Axola zaiguna hauxe da: hori sentitzea,
horrela bizitzea, haren arabera jokatzeta.
Jauna, egizu, ikasturte honetan errealitate hori
bizi eta zaindu dezagula,
sarritan larri eta estu ibili arren.

Zergatik erakartzen gaitu irakasle edo-ta
hezkuntza elkarteko kide izateak?
Zuri kontatu behar al dizugu, zerorrek dei hori eskaini diguzun horri?
Jakin badakizu, baina utz gaitzazu berriro esan diezazugula:
Heziketa atsegin zaigu; areago, liluratzen gaitu.
Bizitzan burutu daitekeen gauzarik ederrenetakoa dela uste dugu.
Gure arteko batzuek beren odol bereko seme-alabak ditugu/ dituzte
eta honek hezkuntzari beste ikuspegi batzuk irekitzen dizkio.
Jauna, ez ditugu soil-soilik gure seme-alabak,
baizik eta ehundaka eta, agian, milaka seme-alaba,
zeinengan utzi baititugu gure bizitzaren aztarnaren bat edo beste.
Ikasleek ez digute “aita” edo “ama” esango;
bakarrik “irakasle”, “maisua”, “andereño”,
baina guretzat hitz horien barnean hainbeste usteon,
begirune eta afektua dauden,
non berezko seme-alabek “aita”,
“ama” esaten dutenen oihartzuna antzematen baitiegu.

Iraileko aurreneko egun hauetan
gure bilera eta batzarretan gure buruak argitzen joan gaitezela,
lehentasunak denon artean markatzen ditugularik;
txopa norabide egokian jar dezagula
eta hezkuntza zerbitzu hau guztiok aurrera
eramaten konpromisoa har dezagula,
batik bat gure arteko ahulenak
eta behartsuenak gogoan daramatzagularik.

Hala izan dadila.
Amen.

ILUNBETAN BARNA

Inguratzen nauten ilunbetan barna
eraman nazazu Zuk, beti aurrerago.

Gaua iluna da
eta etxetik urruti nago:
eraman nazazu Zuk, beti aurrerago.

Zuzen itzazu ene urratsak.
Ezin dut jada ikusi
han behean ikusi beharrekoa:
aldian behin pauso bakar bat
ematea aski dut.

Ni ez naiz beti honelakoa izan,
eta ez dut beti errezatu
Zuk eraman nintzazun.
Aukeratu nahi nuen eta ene bidea ikusi;
baina orain eraman nazazu Zuk beti aurrerago.
Aintzazko egunak irrikatzen nituen eta, nahiz eta beldurrak izan,
harrokeriak zuzentzen zuen ene nahia.

Ai ene! Ez zaitez gogora iraganeko urte horiekin.
Zure botereak hainbeste bedeinkatu nau jada
ezen jakingo baitu ni nola eraman beti aurrerago
ordekan eta zingiretan,
leku malkartsuetan eta marruma dagiten uharretan,
gaua iragan arte

Eraman nazazu Zuk, beti aurrerago.

John Henry Newman

ISILDU EGIN NAHI DUT UNETXO BATEZ

Isildu egin nahi dut unetxo batez
eta lasaitu nire ideien eta sentipenen zurrumbiloa;
zure aurrean adi-adi egon nadin,
nire zentzumen guztiak iratzarri.

Hustu egin nahi dut nire etxea
hainbeste gauza eta apeta betegarritz,
eta libre egon, zure etorreraren zain
hutsik, biluzik.

Geldiune bat egin eta zerumuga begiztatu nahi dut,
zurekiko topaketarako bidean, ibilian eta oinez
eta zeure kuttunekiko topaketarako bidean
zurekin batera.

Isilean egon nahi dut
eta zure ahotsaren murmurioa entzun,
egunero berri onak baitakartza
bizitza zeharkatzen dugunontzat.

Zurekin bakarrik egon nahi dut,
zure bihotzaren erritmoa sentitu
eta, zure antzera, munduaren bihotzean
bizitzen ikasi.

Ikusi egin nahi zaitut, ezagutu;
zure aurpegian jarri nahi ditut nire begiak
bekoz beko, eta nire eskuaren gainean sentitu
zure eskua: isilik egon, gozatu eta itxaron.

ITXAROPEN KANTA

Jauna, zugana jartzen ditut begiak,
zeruetan eta gizakion seme-alaben artean bizi zaren Horrengana.
Begiak jasotzen ditut, nondik datorkidan itxaropena jakiteko.
Itxaropena borborka datorkit zure maitasunaren oparotasunetik.
Inoiz ahanzten ez nauzulako zara nire itxaropen.

Gizon-emakume askok arrakastan jartzen dute itxaropena,
haien arazoen konponbidean...
Nire itxaropena zure izena esatean datza.
Zu eta zure ontasun amaigabea ezagutzean datza nire alaitasuna,
nire arrazoiaren jomugetatik haratago.

Zu ate zabala zara, leiho argiz betea.
Gizakiek begiratzen didatenean, zergatik jarraitzen dudan sinesten
galdetzen didate, zergatik zaren nire itxaropena oraindik ere.

Eta nik diot nirekiko: ezagutuko bazintuzte,
zutaz apurtxo bat jakingo balute,
zuk eman didazuna aurkituko balute,
ez lirateke mintzatuko horrela.
Izan ere, zoragarria zara,
gizakion premiei adi-adi zaude,
eta abegi egiten diezu nire oin nekatuei.
Horregatik, beste gauza guztiengatik eta betiko,
Jauna, zu zeu zara nire itxaropena.
Amen.

ITXAROTE GUZTIEN AMA

Abenduko Andre Maria,
gure itxarote guztien ama!
Zure sabelean herriaren itxaropena,
zure Jainkoaren Salbamina hartu nahi izan duzu:
izan zaitez gure amatasun eta aitatasun
haragizko nahiz espiritualen euskarri.

Gure itxaropen guztien Ama,
Zuk Espirituaren indarra onartu zenuen
Jainkoaren agintzariei haragi emateko.
Egizu geure bizitzako keinu guztietan
maitasuna haragitzeko gai izan gaitezela,
Jainkoaren Erreinuaren keinu.

Abenduko Andre Maria,
gure zaintza guztien ama.
Zuk aurpegi bat eman zenion gure etorkizunari,
Emaiezu indarra
nekez eta minez justiziazko eta bakezko mundu berri baten
erditze lanetan dihardutenei.

Belengo haurra kontenplatu zenuen horrek,
egizu arretaz azter ditzagula espero gabe
datozkigun Jainkoaren samurtasunaren zeinuak.

Abenduko Andre Maria,
gurutziltzatuaren ama,
luza zeure eskua hiltzen diren guztiei
eta eraman itzazu Aitaren besoetan berriro jaiotzera.

Abenduko Andre Maria, pazko ikonoa.
Egin gaitzazu eguneroko bilbean
Kristoren, Jaunaren, joan-etorriak
bereizten dituen zaintza pozgarrirako gauza.
Amen.

IZAN BIHOTZ, BAKARRIK EGOTEKO

Benetan lortzen baduzu, orduan soilik;
nola egiten den jakitera iristen bazara,
orduan soilik eskuratu ahal izango duzu
bihotz gabonetako bat oparitzeko esperantza
–bihotz ezti bat, egonarritsua, bipilki barnebildua,
samurra baina eztikeriarik gabekoa–,
kosta ahala kosta maite dituzun haiei oparitu ere.
Hauxe duzu Gabonetako zuhaitzaren azpian jarri behar duzun oparia.

Gela bat ere izango duzu, beharbada, bakarrik har zaitzakeena.
Edo badakizu bide bakarti baten berri, eliza isil batena.
Ez hitz egin jada, ez zeure buruarekin,
ezta eztabaidan edo borroka bizian gabiltzanekin ere,
nahiz eta haiek aurrean ez egon.
Itxaron. Entzun.

Eta ez jasan isiltasuna, hartaz hitz egiteko gero.
Hainbeste egin behar duzu isiltasunean barrena,
non bertatik ez irtetea erabaki behar baituzu,
harik eta, haren baitan gertatutako deitik,
infininitutasun isilaren magalean,
zure azken hitza degizun arte, bere baitan dirauen hitza,
bere buruari esker bizi dena eta ez beste ezeri esker;
inork entzun behar ez duen hitza, estimatzen duenak baizik.

Hala, bada, eutsi, eta isildu, eta itxaron.
Ez egin ezkelarena, esperientzia mistiko bitxi baten ondotik.
Isiltasun horretatik ezin daiteke erne egiaren soiltasuna baizik:
garbi-garbia eta isil-isila.
Jaunaren jaiotzaren mezua kanpoan geratuko litzateke,
baldin eta entzumenarentzat esana izango balitz eta kontzeptuetan,
baina ez litzateke bihotzean sartuko ez han ospatua izango.

Karl Rahner

IZAN ULERBERA

Izan ulerbera jasanbera bainoago.
Tolerantziak bere baitan darama
nolabaiteko amore emate harroxkoa.
Toleratzea iraintzea da.

Izan errukitsu Jainkoa aurkitzeko.
Bila ezazu hurkoarenganako maitasunean,
han bakarrik aurkitzen baita.
Harentzat berdinak gara denok,
ez dago arrazarik
ez erlijiorik,
ezta aukeraturik ere.

Bakea lortuko duzu
zeure baitan baldin baduzu.
Besteengana eskualdatzen den barne-
dohaina da bakea.
Ez da indarrez inposatzen.

Euren etxolatik irten
eta euren eremua baino haratago joateko
gauza direnek bakarrik
aurkitzen dute Jainkoa.

Euren jaioterria baino haratago
etxola jartzen dutenek,
Kaldeako Ur-etik irteten direnek,
Abrahamen antzera erromesaldia egiten dutenek,
egunero euren txalupa
itsasertz berrietara daramatenek,
horiek gero eta hobeto ezagutzen dute
gauza irakurgaitzen nondik norakoa.
Gauza irakurgaitzak
gauza irakurgarrien gibelean daude.

Aginduriko lurraldea ez dago hemen,
itxaropenean aurkitzen da beti.
Aginduriko lurraldeak
ez du mugarririk ez herritarrik,
Jainko fededunak besterik.

Hau dio Isaias profetak (Is 2,3-4):
“Zatozte, igo gaitezen Jaunaren mendira;
bere bideak erakutsiko dizkigu
eta gu haren bidexketan ibiliko gara.
Hark epaituko ditu nazioak,
erabakiko herrialde askoren auziak.
Ezpatak golde bihurtuko dituzte
eta lantzak igitai.
Ez da naziorik
nazioren aurka altxatuko
ez dira gehiago gudurako prestatuko”.

Luis de Lezama

JAINKO ERRUKIORRA

Jainko errukiorra,
lañoki esanda ez dut ulertzen
zergatik datorkidan sufrimendu hau.
Ni beti saiatu naiz
zure aginduak betetzen, otoitz egiten
eta Jesu Kristoren Espirituari jarraituz bizitzen.

Zergatik ez duzu aldendu nigandik
sufrimendu hau?
Errukior bazara, zergatik ez nauzu, orduan,
atera nahigabe honetatik?

Tentatua nago zuregana ez irekitzeko.
“Ezerk ez du zentzurik.”
“Zuri erregutzeak ez dit ezertarako balio:”
“Gertatu beharrekoa dena, nonbait, gertatzen da.”

Baina hala ere ez dut Zugandik urrundu nahi.
Zurekin dudan historia
inportanteegia da niretzat,
albora utz zaitzadan.
Entzun iezadazu, nire nahigabea arin dadin.

Ez gorde niri zeure aurpegia!
Bidal iezadazu zeure Espiritua,
amore eman gabe
neure bidea eginez jarrai dezadan.

Ager zaitez nirekin
Jainko onbera eta errukior.
Alda ezazu nire sufrimendua,
horrela berriro malko artean ikus dezadan,
ez nauzula inoiz ene bizitzan abandonatu
eta lagun zaitudala ene bide guztietan.
Amen.

Anselm Grün

JAINKO GAIXOA

Jauna, iritsiko al zaizu nire ahotsa!
Hemen nauzu.
Ez daukat esateko hitz handirik.
Ez daukat eskaintzeko lan handirik.
Ez daukat egiteko zeinu handirik.
Hemen, bakarrik. Bakarrik. Zurekin.

Eman nahi didazuna onartuko dut:
Argia nahiz itzala.
Kantua nahiz isiltasuna.
Esperantza nahiz hoztasuna.
Zori ona nahiz zoritxarra.
Alaitasuna nahiz larritasuna.
Baretasuna nahiz ekaitza.

Eta lasai onartuko dut,
bihotz narez,
jakin baitakit, ene Jainko,
Zu zeu ere Jainko pobrea zarela,
noizbehinka bakarrik dagoen Jainkoa.
Exijitu ez, baizik gonbidatu egiten duen Jainkoa,
behartu ez, baizik itxaron egiten duena,
derrigortu ez, baizik maitatu egiten duena.

Eta hori bera egingo dut nire munduan,
nire jendearekin, nire bizitzarekin:
Datorkeena onartu, opari bat bezala.
Exijentzia ezabatu nire hiztegitik.
“Eman” aditza azpimarratu.
Sarritan zera galdetu: “Zer behar duzu?”
“Zer egin dezaket zugatik?”
Eta gutxitan esan “nahi dut” edo “emadazu”.

Eta horrela jarraitzen dut, Jainko: hemen,
besterik gabe, bakardadean. Isilean.
Zurekin, ene Jainko gaixo horrekin.

Jose M^a R. Olaizola

JAINKO JAINKOA DA

Haur baten gisa amaren besoetan,
harro izateko batere arrazoirik gabe,
endredatzeko eta entretenitzeko gaitasun izugarriarekin:
honela nahi nuke nik egon zure aurrean,
aitatxo, aita eta ama, aitama.

Haur txiki bat bezala,
zeinentzat ama besterik ez baitago,
haren nia idolo etsai izan gabe:
honela nahi nuke nik
niretzat Jainko soilik Jainkoa izatea.

Baina nire nia ene gorputzarekin batera hazi da
eta berriro haurtxo bilakatu behar naiz
heldu bat haur, zu soilik izan zaitezen nire jainko,
inor gehiago eta ezer gehiago.

Orduan Zu bakarrik izango zara nire ongia,
dena ongia, ongi gorena,
eta lurraren jainko txiki eta jauntxoek ez naute asebeteko,
ezta nire obra onek ere,
Zuk baizik, Zuk soilik, beste inork eta beste inork ez.

Haurtxo txikiak amarengana korri egiten duen bezala
haur-penak sorbaldan dituela eta poza aurpegian,
honela korri degit nik zuregana, antsiatz,
nire arrakasta ez gurtzera,
zurea soilik baizik, beste inorena eta beste inorena ez.

JAINKOAK NAHI DUEN BARAUA

Jainkoak nahi duen baraualdia hauxe da:
Bidegabeko kateak haustea,
uztarriaren uhalak askatzea,
zapalduak libre uztea,
zapalkuntza guztiekin amaitzea,
goseak dagoenarekin ogia partekatzea,
txiroak zure etxean ostatu ematea,
biluzik dagoenari jantziak eskuratzea
eta zure lagun hurkoak alde batera ez uztea.

Orduan zure argiak distira egingo du,
egunsentiak bezala
eta zure zauriak berehala sendatuko dira,
zure jokabide zuzena zure aurrean ibiliko da
eta Jainkoaren aintzak jarraituko dizu.
Orduan Jaunari deituko diozu
eta berak erantzungo dizu;
laguntza eskatuko duzu.
eta esango dizu: "Hemen nago".

Isaias

JAINKOAREN GIZAKUNDEARI SALMOA

Jo bezate tronpetek kosmosaren bazter guztietan.
Aldarrika bezate berri handia: Jainkoa mundura etorri da.
Durunda bezate unibertsoaren erraiek, dardar egiteraino:
Jainkoa gizon egin da, gizaki gaixo.
Jainko handi, beldurgarri, sortzaile eta epaileak
jo beza alde batera, Jainko gizon egina baitator,
ahuldade, haragi, abegi eta erruki egina.
Izerdia, nekea, nahasmena,
larrimina, pena eta poza ezagutzen dituen Jainko-gizona.

Aingeruen koruek kanta bitzate kantu zerutiarrak,
jo bezate munduko biolin guztien sokek,
gure Jainkoa gurekin bidean doan Jainko hurbila baita,
giza bihotzaz, neurrigabeko gaitasunez maitatu eta
ama baten samurtasunez barkatzen dakiena.

Jar bedi errealitate guztia poz eta zorionez jauzika,
baita azpipartikula atomikorik oinarritzkoena ere,
den guztia antzaldatuta gelditu baita.
Materiak Jainkoagana jotzen du
Jainkoak gizadiari bisita egin eta Haren Misterioaren
hondoenean baitaratu duelako.
Orain guzti-guztiak Jainkoaren marka dauka.
Senideok, ez dago ezer profanorik; den-dena sakratua da,
eta gizakia da lurreko izakirik sakratuena.

Dantza bitez neskatzak dantza unibertsal eta pozgarrian,
senidekor eta solidarioan
quarkei helduta,
Jainkoari ezaguna baitzaio errealitate guztia,
bere ezkutuko dinamismo sakonarekin,
izaki guztiak bultzatzen dituen motore,
Espirituaren Haizeak gure amets guztien
belak puzten dituen bezala.

Poztu bitez behartsuak, poztu sufritzen dutenak,
zapalduak eta biktimak,
abandonatuak eta errukarriak,
ez baitaude bakarrik,
Jainkoak haiengana egin eta haien erdian
jarri baitu bere etxola.
Erreguka, aurpegi horietatik begietara begiratzen digu,
eta, errukiak bultzatuta, geure baitako zerbait
eskaintzen dugunean
bedeinkatu deitzen gaitu.

Goretsia izan zaitez ene Jaun hurbil, samur eta maitatia.
Unibertsoarekin, materiarekin eta antimateriarekin,
bizidunekin eta kontziente den guztiarekin
bat egiten dut nire ahotsa,
Hosannarik unibertsalarena kantatzeko.
Nire bihotzaren hondoenetik gurtzen zaitut.
Zuk han daukazu zure habia, eta han hitz egiten didazu,
ahapeka edo ozenki
mundu eder honetako minen berri emateko,
hain maite dituzun zure seme-alaben berri.
Ez didazu zure Espirituari esku bat ematea
beste ezer eskatzen,
bere Betera eramateko zure Gizakunde solidarioa.

Milesker, Ganbelako Jauna,
etengabe etortzen zarelako gure bizitzara
munduaren aurpegi eta gorabeheretan;
milesker zure eguneroko gizakunde unibertsalagatik,
betiereko Gabonengatik
zure amaierarik gabeko bilaketaren opari ordainezina
direlako, gure giza bihotz txikiaren atzetik egiten duzun
jainkozko jazarpena.

Gurtzen zaitugu, jainkozko Haur, kosmosaren sekretu nagusi,
haren existentziaren ezkutuko giltzarri,
unibertsoaren jainkozko kantu,
Jainko Hirukoitzak munduari eginiko komunikazio.
Orain gure Anaia zara, Kreazio Betearen Hasikina,
gure patuaren Etorkizuna.

José María Mardones

JAINKOAREN IRMOTASUNA

Ez etsi, Jauna, segi irmo gurera etorri nahi horretan,
minaren eta malkoaren auzoko izan gura horretan.
Zatoz sarriago goiztirian, ez inoiz utzi hurbiltzeari.

Jakin, badakizu: buztina honelakoa da.
Pitzatuta dago maitasunez eta nostalgiaz
eta gure pegarra eguzkirik gabe gelditzen zaigu.
Ura jarioan dihoakio Zugana.

Segi setatsu gure egarriaren bidean
gure eta albaren gogoz kontra bada ere.
Egunen batez –etorriko da–
den-dena Zuk nahi bezala egongo da.

Valentín Arteaga

JAINKOARENGANA BIHURTZEA

Segi nire gainean makurtuta, Jauna,
birmoldatzen,
nahiz eta nik aurre egin.
Zein ausart pentsatzea
nik daukadala nire giltza!
Ez dakit neure buruaz!
Zu bezalako inork ezin badit esan
barruan daramadana.
Ezta inork ezin banau
nire okerbideetatik itzularazi
zeinak ez baitira zureak bezalakoak.

Segi nire gainean makurtuta, ni zizelkatuz,
nahiz eta batzuetan minez oihu egiten dizudan.
Ahultasun hutsa naiz, badakizu.
Honen ahula naiz, ezen, batzuetan,
zure laztanek ere min ematen didaten.
Landu nire begiak eta eskuak,
gogoa eta oroimena,
eta bihotza, nire sakratua baita,
non sartzen uzten ez zaitudan
deitzen didazunean.

Sartu, Jauna, deitu gabe,
nire baimenik gabe.
Zuk, nireaz gain, beste giltza bat baduzu,
nire lehen egunean Zuk eman zenidana,
eta, haur banintz bezala,
ixteko erabiltzen dudana.
Nire gainean senti dezadala
zureganako 'bihurketa'
eta nirea piztu dadila,
Zurearen sutik,
betidanik izekita dagoena
nire barruan.
Eta has nadila senide izaten,
gizakia izaten,
pertsona izaten.

Hau pazientzia, Jauna
zure mundu honetan!
Gurea balitz bezala,
tratu txarrak ematen dizkiogun mundua;
lehen iristen denaren mundua,
maltzurarena,
edo amarrutsuenarena;
mahatsa dolarean,
edo inurri bat edo kakalardo bat
zapaltzen diren bezala,
minik sentitu gabe,
besteak zapaltzen dituen mundua.

Segi, Jauna.
Zure eguzkiarekin eta Zure euriarekin
guztiontzat,
on eta gaiztoentzat,
otzan eta gogorrentzat,
biktimak eta borreroentzat,
euria egiten eta berotzen
gu garen lur hau.

Guztiengan ernarazten jarraitu
Zu zaren hazia.
Hazi dezagun,
zorabiatu gabe,
hainbeste irakaren artean!
Eta jende askori jaten eman diezaiodala
Zure ogia eta gure ogia
Zugandik izaten ikasi duguna
besteen alde ugaltzen ari garenean.

Ignacio Iglesias, sj

JAINKO-ZERBITZARIAREN BOKAZIOA

Hona hemen nire zerbitzaria, nik eusten diodana,
nik hautatua, atsegin dudana.

Beronen gain ezarri dut neure espiritua:
nazioei justizia ekarriko die.

Ez du oihu egingo, ez ahotsa goratuko,
ez kaleetan bere mintzoa entzunaraziko.
Kanabera printzatua ez du hautsiko,
ahulduriko argi-metxa ez du itzaliko.

Justizia ekarriko du leialki.
Ez du adorea galduko, ez etsiko,
lurrean justizia ezarri arte.
Haren legearen zain egongo dira urrutiko uharteak.

Hau diotso bere zerbitzariari
Jainko Jaunak, zeru zabalak egin zituenak,
lurra finkatu eta landaretza sortu zuenak,
gizakiei eta lurrean mugitzen diren
guztiei bizi-arnasa eman zienak:

«Nik, Jaun honek, salbamen-ekintzarako
dei egin dizut eta eskutik heldu;
nik eratu zaitut eta egiteko hau ezarri:
herriarentzat nire ituna berritu
eta nazioei argi egitea.

Itsuen begiak zabaldu
eta presoak espetxetik ateratzea,
ilunpetan bizi direnak kartzelatik.

Ni naiz Jauna, horixe dut izena:
ez diot neure ospea inori utziko,
ez niri zor zaidan gorespena
idoloei emango.

Begira, bete dira
lehen iragarri nituenak;
orain gauza berriak iragartzen ditut,
gertatu baino lehen
adierazten dizkizuet»

JAITSI NIRE GAU HONETARA

Jaits zaitez nire gau honetara orain
hostoan ihintz-tanta jartzen den
musuaren errukiarekin
eta garbi iezadazu
hautzarorik gabeko haurren tristura
eta aterperik gabeko zaharren mundu hau
kopiatzen dudan ispilua.

Abes iezadazu zure sehaska-kanta, Jauna,
diruaren jabeek ehundu dituzten
itzalen eta Nikei eta Ibex 35 indizeekin
etxe orratzak sortzen dituzten
zelaien hoztasunaren
beldur naizela,
loreek ihes egiten dutenean
eta txoriak hiltzen direnean
adar babeslerik gabe.

Egizu atzera,
noraezean gabiltza galdurik,
itxaropen bila
asfaltoari aztarrika egiten diogu eta.
Itzuli etxera, adiskide, piztu...

Pedro Miguel Lamet, sj

JAUNA, BARKA NAZAZU

Jauna, barka nazazu,
ohitu naiz aldiri pobreetara joaten,
alabaina, nik nahi dudanean dut joateko aukera, baina haiek ez.
Jauna, barka nazazu,
ohitu naiz zaborraren usainarekin,
alabaina, nik handik urrutira joateko gaitasuna dut, eta haiek ez.
Jauna, barka nazazu,
izan ere nik argia iziotu dezaket,
baina egin ezin dutenez ahaztu egiten naiz.

Jauna, barka nazazu,
nik gose greba bat egin dezaket,
baina haiek ez, izan ere beti daude goseak.
Jauna, barka nazazu,
nik gizakia ez dela ogiaz bakarrik bizi esan behar diet,
baina ez dut nire ahalegina egiten
haiek eguneroko ogia izan dezaten.
Jauna, nik maite nahi ditut,
haien alde bizia emateaz amesten dut,
baina zuk lagun nazazu haien alde bizia eman dezadan.

Jauna, nik haiekin egon nahi dut,
argiaren ordua irits dadinean.

Sor Lucía Caram

JAUNA, EMADAZU ZURE BEGIRADA

Jauna, emadazu zure begirada,
talaia horretatik ikus dezadan
egunaren hasiera, mendiak argitu
eta berotzen dituen eguzkia.

Jauna, emadazu zure begirada,
talaia horretatik goza ditzadan
egunaren agurra eta ilbeteak,
apirila datorrenean.

Jauna, emadazu zure begirada,
graba ezazu bihotzean: arrago horretan
zure maitasuna maitaria baita,
irmoa zure urratsa, sortzailea zure keinua.

Jauna, emadazu zure begirada,
emazkidazu errukizko erraiak.
Eman sendotasuna nire urratsei,
bete nire espazioa
eta izan zaitez nire kanta.

Jauna, emadazu zure begirada,
emazkidazu errukizko erraiak.
Egin nire eskuak samurtasun,
egin nire sabela betetasun.
Hemen nauzu, Jauna.

Jauna, emadazu zure begirada...

Jauna, jar ezazu begirada
beste bihotz horren ondoan:
lotuta dauzka eskuak,
begiak ezkutuan,
zain eta isilik daudenen minez.

Jauna, erein ezazu zure begirada,
sor dadin kantu berri bat:
esku irekien, ahots betearen kantua,
mugarik gabe gure barruan.

Jauna, emadazu zure begirada...

JAUNA, EZ AL DA GEHIEGITXO IZAN?

Ene Jauna, den-dena kontuan hartuta
agian hau guztia gehiegitxo izan da!

Orain burura etorri zait, bai,
gizakiak gorputza daukala.
Uste izan nuen nire bihotza eta espiritua
den-dena jasateko gauza zirela
baina, begira gauzak nolakoak diren:
nire gorputzak “aski da” esan du.

Nire gainean sentitzen dut, ene Jauna,
neronekin eraman behar dudan guztia:
hainbeste gauza eder eta hainbeste frogak!
Frogak beti izan dira zerbait eder
eta edertasuna handitasuna bilakatu izan da.
Nola izan daiteke, ene Jauna,
bihotz batek hainbeste jasatea
eta beste hainbeste maitatzea?

Eskerrak ematen dizkizut
nire bihotza aukeratu duzulako
jasan duen guztia jasan ahal izateko.
Agian, gaixotasun hau gauza ona izango da
nahiz eta oraindik herren ibili,
norabiderik gabe, indarrik gabe.
Hala ere, pazientzia berria daukat
egoera berri honetarako: ohartu naiz horretaz.

Metodo berri bat hasiko dut, ene Jauna:
nire barnera sartuta zurekin berba egingo dut.
Ongi al deritzozu? Zuregana zuzendu nahi dut.
Izakiak hain kartsuki maite baditut,
haiengan Zu ikusten zaitudalako da,
Zu horretatik puska bat maite dudalako,
honela Zu besteen bihotzetara eramaten.

Saiatzen naiz, ene Jauna.

Etty Hillesum

JAUNA, HANDITU GURE FEDEA

Jauna, handitu gure fedea.

Erakutsi guri, fedea ez datzala zerbait sinestean,
Zugan sinistean baizik, Jainkoaren seme gizon egin Horrengan,
gure barrua zure Espirituari irekitzeko,
zure Hitzak atzeman gaitzan uzteko,
zure biziera bizitzen ikasteko eta zure urratsei hurbiletik jarraitzeko.
Zu bakarrik zara «gure fedearen hasiera eta betetasuna».

Jauna, handitu gure fedea.

Emaguzu erdigunetzat funtsezko dena izango duen fedea,
zure Ebanjelioaren muintetik urruntzen gaituzten eranskinetatik
eta adabaki gehigarrietatik garbitua.
Erakutsi iezaguzu garai hauetan fedea bizitzen,
ez kanpoko euskarrietan sostengatua, baizik zure presentzia bizian,
geure bihotzetan eta geure fede-elkarteetan bizi dugun presentzian.

Jauna, handitu gure fedea.

Egizu, zurekin bizi-harremanak era sakonagoan izan ditzagula,
jakinik Elizan zu zaitugula, gure Maisu eta Jaun hori,
orotan lehenengoa, hoberena, baliotsuena eta erakargarriena.
Emaguzu fede kutsagarria,
kristautasunaren aro berri batera bidera gaitzakeena,
zure Espirituari eta zure ibilbideari leialagoa izango den kristautasunera.

Jauna, handitu gure fedea.

Biziaraz gaitzazu Jainkoaren erreinuko zure egitasmoarekin bat eginez,
zinez eta konbentzimenduz parte hartuz, bizitza gizatarragoa egiteko,
Aitak nahi bezala.
Lagundu gaitzazu fedea apalki bizitzen,
Jainkoarenganako suaz eta gizakienganako errukiaz.

Jauna, handitu gure fedea.

Erakuts iezaguzu bizitza era ebanjelikoagoan bizitzen,
hala moduzko kristautasunera ohitu gabe, non gatza gezatzen den
eta Elizak, modu harrigarritz, legami izaera galtzen duen.
Iratzar ezazu gure artean lekukoen eta profeten fedea.

Jauna, handitu gure fedea.

Ez gaitzazu utzi gurutzerik gabeko kristautasun batean erortzen.
Kontura gaitezela fedea ez dela komeni zaigun Jainkoagan sinestea,
gure erantzukizuna sendotzen
eta maitatzeko ahalmena garatzen duen Harengan sinestea baizik.
Erakuts iezaguzu zuri jarraitzen, egunean eguneko gurutzea hartuz.

Jauna, handitu gure fedea.

Suma zaitzagula gure artean pizturik,
gure bizitzak eraberrituz eta gure elkarteak sustatuz.

Jose Antonio Pagola

JAUNA, NON BILATU ZU?

Jauna,
hemen egon beharrean
kanpotik bazabiltza, non bilatu zu?
Eta, nonahi bazaude,
nolatan ez gara oraindik elkartu?
Heldu ezinezko argitasunean bizi zara Zu.
Baina non aurkitzen da heldu ezinezko argitasun hori?
Nork eramango nau bertaraino ikus zaitzadan?
Eta gero, zein seinale edo ezaugarritan bilatuko zaitut?
Ez zaitut inoiztxo ere ikusi,
neure Jaun eta Jainkoa.

Irakats iezadazu zure bila jarduten
eta ager zakizkio zure bila dabilenari,
ezin baitut zure bila joan,
baldin eta zeuk deitzen ez banauzu,
eta ezin zaitut aurkitu
zu zeu agertzen ez bazaizkit.
Irrikatan bilatuko zaitut,
bilaka irrikatuko zaitut,
maitasunean aurkituko zaitut
eta aurkitutakoan maiteko zaitut.

San Anselmo

JAUNA, NORENGANA JOANGO GARA?

Egun batean zure txalupara igotzea eta
lema zuri ematea erabaki genuen.
Ordutik
bizitzan zehar nabigatzen dugu
eta mota askotariko soinuak entzuten ditugu,
Ekaitza iragartzen duen trumoiaren hotsa
paradisu ezinezkoak agintzen dituzten
sirenen kantak,
gure hauskortasuna gogorarazten digun
itsaso boteretsu baten orroa,
ilunabarrean bidelagun desberdinekin izandako
elkarrizketak,
oraindik bisitatu ez ditugun leku-
izenak
eta inoiz itzuliko ez garen
leku haietakoak.

Batzuetan tentatuta sentitzen gara
itsasontzia uzteko,
ibilbidea aldatzeko,
lur lehorren segurtasunean babesteko.
Baina, Jauna,
norengana joango gara?
Zuk bakarrik lagun diezagukezu
maitasunaren eta justiziaren lurralderantz
branka jartzen?

José María Rodríguez Olaizola, sj

JESUS, GURE JAUN BAKARRA

Jesus, Jainko biziaren Semea zara zu.
Jainkoagandik zatozela sinesten dugu.
Zuk, beste inork ez bezala hurbil gaitzakezu Jainkoaren Misteriora.
Zugandik ikas dezakegu beti harengan konfiantza izaten,
gure bizitzan sortzen diren galderak, duda-mudak,
ziurtasun-etak eta guzti.

Nork biziberri dezake gure fedea,
Jainko Adiskidearekiko fedea, zuk izan ezik?
Inguratzen gaituen gau honetan, erakutsiezaguzu Aita.
Jesus, Mesias zara zu, Aitak munduari egin dion erregalu handia.
Jarraitzaileek dugun gauzarik onena zara zu, baliotsuena, erakarleena.

Zergatik itzali da poza zure Elizan?
Zergatik ez dugu onartzen, gozatzen eta ospatzen
zure presentzia ona zure Elizan?
Jesus, aska gaitzazu tristuratik eta kutsatu zeure poza.
Jesus, gure Salbatzailea zara zu.
Gure bizitza sendatzeko indarra duzu
eta giza historia bere behin betiko salbaziora bideratzeko indarra.

Jauna, zuk maite duzun Eliza gaixo dago, makal eta zaharkitua.
Indarra falta zaigu aurrera egiteko,
zure Berri Ona kementsu hots eginez.
Jesus, nahi baduzu, senda gaitzakezu.
Jesus, haragi egindako Jainkoaren Hitza zara zu.

Gure artean kanpatu den Sumindu handia, gure bekatua salatzeke,
behar dugun errotiko berriztapena abian jar dezagun.
Astindu ezazu zeure jarraitzaileon bihotza.
Esnaraz gaitzazu lasaitzen eta loarazten duen erlijiotik.
Oroitaraziezaguzu hasiera hartako geure bokazio hura
eta bidal gaitzazu berriro
zure erreinua hots egitera eta bizitza sendatzera.

Jesus, gure Jaun bakarra zara zu.
Ez zaitugu beste inorekin ordezkatu nahi.
Zurea bakarrik da Eliza. Ez dugu beste jaunik nahi.
Zergatik ez zaude zu beti gure elkarteen erdian?
Zergatik baztertzen zaitugu geure protagonismoaz?
Zergatik ezkutatzen dugu zure ebanjelioa?
Zergatik jarraitzen dugu zure hitzekiko hain sorgor, haiek izanik espiritu eta bizi?
Jesus, norengana joango gara?
Zuk bakarrik dituzu betiko bizirako hitzak.

Jesus, gure Adiskidea zara zu.
Horrela deitzen gaituzu zuk zeuk, nahiz ia-ia ahaztua dugun hori ere.
Zure Eliza adiskideen elkarte izatea nahi izan duzu.
Zeure adiskidetasuna oparitu diguzu.
Zeure bakea utzi diguzu, betirako eman.

Gurekin zaude azkeneraino.
Zer dela-eta horrenbeste liskar,
errezelo eta borroka zure jarraitzaileen artean?
Jesus, emaguzu gaur zeure bakea, guk ez dakigu eta aurkitzen.

Jose Antonio Pagola

JESUS, ONDASUN-ITURRI

Jesus, ondasun-iturri,
ur bizi, gogoen argi,
inongo pozgai guztien
gainetik Zu maitagarri.

Opa zaitut mila bidez,
“noiz zatozkit, Jesus?” galdez.
Noiz poztuko nauzu behingo?
Noiz haseko zure onez?

Ezin esan inork ahoz,
idatziz ere ezin eman;
gertatu zaionak daki
Jesus maitatzea zer dan.

Jauna, geldi zakizkigu,
gogo hau argi bekigu;
Zuk iluntasuna ohilduz
Lurra poztarazten duzu.

Aingeruen taldeak Zu
zeruan goosten zaitu;
mundu hau alaituz, Aitaz
gu Zuk baketzen gaituzu.

Zakizkigu poz-atsegin,
gure sari zeruetan,
zakizkigu argitasun,
mende guztien mendetan.
Amen

JESUSEK IKUSI ZUEN

Jesusek Espiritua gainera zetorkiola ikusi zuen.
Hau da gizaki batek eduki dezakeen esperientziarik handiena,
baldin kontuan hartzen badugu
Jainko-Espirituak ez duela inondik etorri behar,
gure barruan dagoelako geu izaten hasi baino lehen.

Nire izatearen barruan Espiritua deskubritzea,
Jesusek Nikodemori eskatzen dion bigarren jaiotza da.
Esperientzia honekin,
egiazkoa den beste bizitza hasten da.
Jainkoa bera den bizitza hedatzen da nire barruan.

Ez dut burua galdu behar erdiesteko.
Jainkoak berak jada egin didan dohain bat da.
Jainkoaz ernari nago.
Egin behar dudan gauza bakarra erditzen ausartzea da.

Fray Marcos

JUSTUA JAINKOAREN AURREAN

Jauna,
Nor bizi daiteke zure aurrean?
Zintzotasunez jokatz
eta justizia praktikatz duena.
Asmo zuzenak dituen
eta hitzarekin kalumniatzen ez duena.
Lagun hurkoari kalterik egiten ez diona
eta auzokoa kalumniatzen ez duena,
bidegabekeria salatzeko gai dena
eta errukia baloratzen duena.
Besteak esplotatzen ez dituen,
errugabearen aurkako eroskeriarik ere
onartzen ez duena.
Eskua behar duenari luzatzen diona.
Suntsitzen, ebakitzen, baztertzen eta abandonatzen duen
gaitzaren aurrean ikaratu egiten dena.
Aukerengatik eskertuta bizi
eta mundu honetan zure erresumaren alde
egin dezakeenaz jabetuta dena.
Mugarik gabe maite duena.
Horrela jokatz duenak ez du inoiz huts egingo.

14. salmoaren egokitza pen

KALE ERTZEAN

Begira niri, Jauna,
kale ertzean,
bizitza lasterka doan bitartean.

Etengabe pasatzen zara
jendearen azal mulatoan,
baina ez zaitut ikusten.

Makurtzen den bizkar ororen
azken euskarria zara,
baina ez zaitut besarkatzen.

Pobreziaren usaina
gurea da, eta zurea,
baina ez zaitut usaintzen.

Ahosabai maiteminduetako
samurtasun tanta zara,
baina ez zaitut dastatzen.

Gurpilen bira eta duintasunaren oihua
bultzatzen dituzu,
baina ez dizut entzuten.

Erruki zaitez nitaz,
Absolutuaren halabeharrezko eskalea bainaiz!
Eutsi nire beilari,
gauzen azala desegin
eta nire zentzumenei,
itxaropenaren orduan fintzen dituzunei,
agertzen zatzaizkien
une zehatza etorri artean.

Benjamin González Buelta

KOHERENTZIA

Zuk begiratzun duzun bezala begiratu,
begi garbi eta gardenez,
beti anaia ulertuz,
koherentzia.

Ikasle garela jakin,
ez hartu geure buruak maisutzat,
eta egunero ikastearekin gozatu,
koherentzia.

Zuhaitzak beren fruituagatik ezagutu,
ez espero laharrak pikurik emango duenik,
ez elorriak mahatsik,
koherentzia.

Bihotzean onberatasuna metatu,
egiazko solidaritatea landu
eta onak gainezka egiten digula sentitu,
koherentzia.

Onartu guztia ez dela lur irmoa,
harkaitzaren gainean eraiki gure etxea,
haize bortitzen eta uholdeen beldur izan gabe,
koherentzia.

Onartu norberaren kaskarkeria eta hutsak,
Kendu lehenbailehen geure begietako habea
eta ez umiliatu anaia gu bezalakoa ez delako,
koherentzia.

Ireki gure begiak mundura.
poztu bere urrats eta proiektuengatik,
ez erori lakio eta zuloetan,itsuak baikina,
koherentzia.

Hitzak egiaztatu,
ekintzen hizkuntzan hitz egin,
ahaztu mozerroak eta itxurak,
koherentzia.

Koherentzia, Jauna,
batzuetan Zu maisu gisa zauzkan
ikasle hasiberriarena .

Florentino Ulibarri

KRISTO NIRE LOALDIAN

Jauna, zuk dakizu noiz nabilen edo noiz nagoen etzanda;
nire bide guztiak zabal-zabalik daude zure aurrean.
Lana uzten dudanean, lasaitu nire burua.
Bakarrik nagoenean, izan zaitez nire lagun eta adiskidea.
Nekatuta eta guztiz zamatuta nagoenean
zure Espirituak berrizta nazala.
Etzaten naizenean, etzan nadila bakean
loak senda eta lasaitu nazan,
zuk bakarrik sentiarazten baitidazu seguru, Jauna.
Zaindu nazazu lotan,
gorde nazazu iratzarri nagoenean,
zaude beti nire ondoan.

LIBRA NIRE BEGIAK HERIOTZATIK

Libra nire begiak heriotzatik,
emaiezu beren xedea den argia.
Nik, bideko itsua bezala, miraria
eskatzen dizut zu ikusteagatik.

Egizu nire eskuetako harri hau
tresna eraikitzailea;
senda ezazu sukar posesiboa
eta nire anaien onerako ireki ezazu.

Konpreni dezadan, Jauna,
kexatu eta atzera egiten duena;
ez dadila bihotza gera batere hotza,
eginez ez entzunarena.

Gorde nire fedea etsaiarengandik aske
(Hainbatek diote hilda zaudela!)
Zuk, desertua ezagutzen duzun hori,
emadazu eskua eta zatoz nirekin.

José Luis Blanco Vega, sj

LURRAREN KANTA (EARTH SONG)

Zer gertatu da egunsentiarekin?
Zer gertatzen da euriarekin?
Zer gertatu da *menderatu* behar genituela
esan zenuen gauza guztiekin?

Zer gertatzen da sarraskitze-esparruekin?
Ba al dago denbora bat honetarako?
Zer gertatu da zureak eta nireak direla esan genuen gauzekin?
Inoiz gelditu al zara eta pentsatu al duzu zenbat odol isuri dugun?
Inoiz gelditu al zara eta begiratu al diozu
Lurraren negarrari eta kostaldeen nahigabeari?
Zer egin diogu munduari?

Begiratu zer egin dugun:
Non dago zure seme bakarrari agindutako bakea?
Zer gertatu da lorez betetako zelaiekin?
Ba al dago denbora bat honetarako?
Zer gertatu da zureak eta nireak izango zirela esan zenuen ametsekin?

Inoiz gelditu al zara eta begiratu al diezu gerretan hildako hurrei?
Inoiz gelditu al zara eta begiratu al diozu
Lurraren negarrari eta kostaldeen nahigabeari?
Nik amets egin ohi nuen, izarretatik harago begiratzen nuen.
Orain ez dakit non gauden, baina badakit galduta gabiltzala.

Zer egin dugu iraganarekin?
(Zer gertatuko da gurekin?)
Zer egiten dugu itsasoekin?
(Zer gertatuko da gurekin?)
Zeruak erortzen ari dira, ezin dut arnasarik hartu.
Zer gertatzen da odolusten ari den Lurrarekin?
Ez al ditugu nabaritzen haren zauriak?
Zer gertatzen da naturaren balioarekin?
Gure planetaren sabela da.

Zer gertatzen da animaliekin?
Erreinu asko hauts bihurtu ditugu.
Eta elefanteak?
Haien konfiantza galdu al dugu?
Zer gertatzen da negar-malkoetan dauden baleekin?
Itsasoak ebasten ari gara.
Zer gertatzen da gure erreguei
jaramonik egin gabe erre diren basabideekin?
Zer gertatzen da kredoek zartatutako Lur Santuekin?

Zer gertatuko da gizon-emakume xumeekin?
Izango al gara haiek askatzeko gai?
Zer gertatzen da goseak jota hiltzen diren hurrekin?
Ez al duzu haien negarra entzuten?
Zertan ari gara huts egiten?

Ea norbaitek esaten didan honen guztiaren zergatia.

Zer gertatuko da haurtxoekin?
Eta egunekin?
Eta haien pozarekin?
Zer gertatzen da gizakiarekin?
Eta negarrez ari denarekin?
Zer gertatu zen Abrahamekin?
Zer gertatzen da heriotzarekin, berriro?

Ez zaigu batere axola.

Michael Jackson

MAISUAK, LEKUKOAK, MEZULARIAK

Jainko Jauna,
Zuk sortu dituzu gizon-emakumeak,
eta Egia ezagutzera eraman nahi gaituzu.
Izan ere zu zeu zara Egia, Jesusek azaldu ziguna,
Apostoluek iragarri eta Elizak aldarrikatutakoa.

Zure nahia da giza adimen guztia fedearen argiz piztea.
Baina zelan sinetsiko dute, ez badute entzun zutaz?
Eta zelan entzungo dute, inork aldarrikatzen ez badie?
Bidal itzazu zure Hitza aldarrikatuko duten predikariak eta maisuak.

Zuk, Jauna, gizon-emakumeen ministerioaren bitartez
zabaltzen duzu zure ontasuna.
Zuk distirarazi zenuen argia iluntasunean;
Zuk argitzen dituzu haurrei zure Hitza
aldarrikatzeko hautatzen dituzunen bihotzak,
zure aintzaren berri eman diezaieten.

Jauna, zuk gure eskuetan jarri duzu kristau hezkuntzaren ministerioa;
argi egiguzu zure Hitza aldarrika dezagun, ez gurea;
egizu zure Egia aldarrika dezagula, ez gure egia,
zure ministroak baikara, zure misterioen banatzaileak.

Aita zoragarria zara
Eta haur eta gazteek fedea Jesusengan ezagutu eta bizitzea nahi duzu;
horregatik, gurasoek, beren ezjakinean edo pobrezian,
edota negozioetan
murgilduta daudelako beraien hezkuntza lana burutzen ez dutenean,
kristau hezitzaileak bidaltzen dituzu, jakinaraz dezaten zure Egia.

Egiguzu argi, Jauna, Jesusen etsenpluaren arabera,
haurrengan Jainkoaren fedearen eta maitasunaren
oinarriak eta zimenduak jar ditzagun.
Zuk hautatu gaituzu irakatsi, erakutsi eta adoretzeko:
Mugi itzazu ikasleen bihotzak eta borondateak Jesusi jarraitzeko.
Lagun egiguzu gurasoen hezkuntza lanaosatzen,
gazteen anai-arreba eta adiskide izanik.

Jauna, zu zara soroak lantzen dituen nekazaria.
Zu zara etxea eraikitzen duen arkitektoa.
Gu gara zure langileak eta igeltseroak
zure Ebanjelioa aldarrikatzen dugunean,
zure Egia transmititzen dugunean

Eskerrik asko, Jauna,
Ebanjelioaren mezu beti gaztea txikienei aldarrikatzeko zeregina
eman diguzulako, salbaziorako baliabideak izan ditzaten.
Hitz xumeez Kristo Gurutziltzatua erakutsi nahi diegu,
Bera baita salbamenaren iturria.

Guk erein egiten dugu.
Zu zara, Jauna, ernamuindu eta hazten duzuna;
zu, fruitua ematera daramazuna.
Irakatsiezaguzu hezitzaile onak izaten,
lagun egiguzu zure lekukoak izaten.

MAITASUNA ERDIESTEKO KONTENPLAZIOA

Jauna, uholde zara,
eralgitze.
Linfa isil baten gisa blai egiten duzu
den eta garen guztia.
Jainko isuria zara.
Utz iezadazu Zu jasotzen;
utzi bizitzako ibaiaren hareetan iragazten,
urrezko pipita baitzina.

Eraman nazazu Zu bilatzera, zu aurkitu eta oparitzera,
ezkutuko urrea bezala, nirea ez dena
baizik guztiona.

Jauna, ez iezadazu utz Zu metatzen,
Zu erresalbatu eta gordetzen.
Zu zaindu eta arazteak
ez nazala ase,
museoko pieza bitxia bazina bezala
giza turismorako...

Irakats iezadazu galtzen. Egizu gal nadila.
Erabil ezazu Zeurea dena.
Jauna, isur nazazu Zeure bi eskuez
Zuk nahi duzunera.
Erein nazazu, neurririk gabe, besagainka.
Ez nadila gal usteldu eta
Zure bihitegia lodituko duen
galbururik utzi gabe.
Milaka gose ase behar baitira
Zu Zeu zaren, Zeurea egiten nauzun ogitik.

Hartu, Jauna, eman zenidana,
Zu egiten zaituena, ni egiten nauena:
nire geroa erabakitzeko gaitasuna.
Maitasun izatea erabaki dut,
eta grazia, Zu bezala.

Aski dut horrekin!

Ignacio Iglesias

MAITE DUGU

Maite dugu.
Ikusi gabe maite dugu.

Ikusi gabe maite dugu,
ikusi gabe dakusagu ;
orain ikusi gabe maite dugu
gero ikusiko duguna.

Ikusi gabe ikusten dugu,
orain bertan ikusten
gero hartan ikusiz
ikusiko duguna guziz,
ikusiak garen gisan
ikusiko dugunean.

Orain ikusi gabe maite dugu
Betitik maite gaituena.
Maite gaituelako maite dugu,
maite dugulako ikusi gabe ikusten dugu
maitatuz baizik ikus ez daitekeena,
maitatuz baizik ikus ez dezakeguna,
maitasun hutsa dena.

J. A. Artze

MAITE DUT ASKATASUNA

Maite dut askatasuna.
Nik aske izan nahi dut;
aske, ideia berrien bila nire ametsentzat.
Aske, proiektu berrien protagonista izanik,
jada haur ez den eta pertsona heldu izan nahi duen norbaitek bezala.
Aske, bere arrazoiak dituen eta esan nahi dituen norbaitek bezala,
bideko seinalerik behar ez duen norbaitek bezala.
Aske, erantzule sentitzen den norbaitek bezala;
askatasuna estreinatu duen norbaitek bezala.
Jauna, zure Ebanjelioa ez al da, bada, bihotz askearentzako kantu bat?

Lagun iezadazu, Jauna, neure aurpegia bilatzen,
Zu nire baitan aurkitzen, benetan naizen bezalakoa onartzen.
Lagun iezadazu nire beldur eta zalantzak eramaten,
nire porrotak gainditzen eta nire lur-jotzeetatik irteten.
Lagun, aurrera jarraitzen atzera itzuli gabe,
adore-gabeziak eta desilusioak gainditzen.
Lagun, egunero eta beti hasten.

Zu, Jesus, itsas bazterreko arrokaren antzekoa zara,
zuhaitzari eusten dion sustraia bezalakoa.
Iturburu zara, erreka elikatzen duen iturria.
Behar dudan indar eta sostengua zaitut, Jesus.
Ez dut neure baitan itxia gelditu nahi, Jesus Jauna;
hautsi nire eskola, eraitsi nire harresia,
izan Zubi niretzat,
nire loturetatik bihotz berri eta biziz bete baten askatasunera
igarotzeko behar dudan Zubi hori.

Sor, Jauna, guregan bihotz aske,
garbi eta gardena zure aurpegia ikusi ahal dezagun.
Sor guregan bihotz apal, ezti eta anaikorra,
zure presentzia jai pozgarri
bihur dadin gure bidean.

MAITE DUZUN BATEN ALDEKO OTOITZA

Bakea eta isiltasuna.

Bizitzaren paradisura eraman zuten.

Galderak zertarako egin?

Haren egoitza, aurrerantzean, atsedenleku deituko da
eta haren soinekoa, argia betiko.

Bakea eta isiltasuna.

Zertaz gara gu jabe,

historiaren jaun eta jainkoa,

iraganaren eta geroaren jabe zaren hori?

Zure esku daude

bizitza eta heriotzaren giltzak.

Bakea eta isiltasuna.

Guri galdetu gabe, eraman zenuen

zure egoitza santura

eta guk begiak zerratu genituen.

Minez negar egin genuen,

gero bekokiak umilduz.

Hauxe besterik ez genizun esan: Ongi da.

Bakea eta isiltasuna.

Akabo borroka,

akabo negar-malkoak harentzat,

akabo lantu eta izu-ikarak.

Ekiak argituko du eta

bake eskuzabalak ziurtatuko ditu

haren zedarriak.

Bakea eta isiltasuna.

Bizitzaren Jauna eta gure patuen jabea,

zure altzoan uzten dugu

hainbeste maite izan dugun gizaki hau,

zeren Zuk, errukizko Aita,

jaso baituzu zure ondasunean.

Amen.

Ignacio Larrañaga

MIKRO-MAKRO ETA AREAGOKOA

Heraklitok:
"Gizakiaren etxea Jainkoa da".

Haizezko eta suzko,
lurrezko eta urezko munduan,
hona gu harrizko eta zurezko etxeotan,
haragizko eta hezurrezko gorputzotan...

Haragiz jantzitako hezurrok,
hezurrez gotortutako haragiok,
Zu zaituzte, Jauna, oin eta buru,
eta hauen arteko bizkarrezur.

Zu, oinarri eta giltzarri,
eta bion arteko lokarri
Zu zaitu zutarri...
Nik ez dut beste etxerik.

Honako ene gorputz honek
Zu zaitu zola bezala sabai,
bizkar lau eta bular borobil
eta bion artean
erdian bihotz;
Zu oinpean lur lau eta lauki
buru gainean zeru borobil
eta bion erdiko eguzki, Zu...
Nik ez dut beste mundurik.

Zu zaitut goitik beheraino
eta aitzinetik gibeleraino
mundu eta etxe,
eta etxe barnean,
barnenean, Zu, su:
goratasunean barnatasun
eta luzetasunean zabaltasun...!

J. A. Artze

MURMURIOAK

Aski dut zubiaren gangan
dardarka dagoen
eguzkiaren islarekin,
ur atzeman ezinetik gora datorren
putzuaren freskotasunarekin,
pinuen hosto ukiezinen artean
dabilen gaueko haizearen musikarekin,
lorategian barreiatzen den
perfume iheskorrekin,
nire eztarrian bere gozotasuna
herrestan uzten duen
duintasun tantarekin.
Aski dut!

Oraindik ezin dut eguzkia
aurrez aurre kontenplatu,
ezin dut uraren hondoenean
murgilduta bizi,
ezin dut nire eskuekin jo
gauaren elkartasun ozena,
ezin ditut jaiez lurrindu
bizitzako ibilbide higatu guztiak,
ezin dut segundo bakar batez ere
aurreratu
unibertso osoaren brindisa.

Aski dut hurbiltzen eta ezkutatzen zaituzten
murmurioekin!
Aski dut zure murmurioekin!

Benjamín González Buelta

NEGARREZ...

Etorri zen Hitza eta esan zuen:
Hona hemen lurra;
bihur bedi negar
(ez bedi argi bihur).
Eta lurra negar egin zen.
Lurra izan zen lehenengo...
negar eginiko lurra!
negar eginiko kontzientzia!
Lurraren mina!
Negarra izan zen lehenengo
eta negarrean gaude.

Zeren eta Hitzak ez baitu oraino esan:
“Negarra bihur bedi argi”.
- Esango ote du?
- Esango du, bai. Bestela
zertarako balio du itsasoak?
Jainkoa itsaso da,
Jainkoa gizakien negarra da.
Eta Hitza negar egin zen
bizia jasotzeko.
Hitza giza gorputzean dago,
giza haragi minduan...
Ikus ezazue nire begietan!
Nire begiak dira
negarraren eta argiaren... iturri.
Eta negarrean... gaude.
Itzalen garaian jarraitzen dugu;
nor joan da haratago,
nork ireki du beste aterik?
Lur guztien argia
ikusiko du egunen batean gizakiak
malko baten... leihotik.
Baina oraino ez du esan hitzak:
“Negarra egin bedi argi!”

Leon Felipe

NI, BEKATARI

Jauna,
nire barnean ixten naizenean,
ez dago ezer:
ez zure zerurik, ezta zure mendiak ere,
ez zure haizerik, ezta zure itsasoak ere;
ez zure eguzkia,
ezta izar-euria ere.
Gainerakoak ez dira existitzen
Zu ez zara existitzen,
ni ere ez naiz existitzen.

Pentsatzearen poderioz, suntsitu egiten naiz.
Eta bakardade ilun batek inguratzen nau,
eta ez dut ezer ikusten
eta ez dut ezer entzuten.

Senda nazazu, Jauna, senda nazazu barrutik,
aurkezten zizkizuten
itsu, mutu eta legenardunak bezala.
Nire burua aurkezten dut.

Senda iezadazu bihotza, bertatik irteten baitira,
beste batzuek pairatzen dutena
eta non daramadan mutu eta erreprimিতা
zor diezaiedan zure maitasuna.

Esna nazazu, Jauna,
gauza guztien gainetik
nire burua maitatzea den
koma egoera sakon honetatik.

Berriro ikus dezadan,
Zu ikusten, besteak ikusten,
Zure gauzak ikusten
Zure bizitza ikusten,
Zure seme-alabak ikusten...

Eta has dezadala hitz egiten,
haurrak bezala,
- totelka -,
Bizitzaren bi hitz biribilenak:
AITA GUREA!

Ignacio Iglesias, sj

NIK POZALDIA IRAGARTZEN DIZUET

Behartsuak beren beharrianarekin
eta besterik ere ez;
hil zorian daudenak beren azkenarekin
eta besterik ezer ez;
itxasoko ur gainetatik ibil daitezke.

Makina mordo baten jabeak,
gaiztakeria, urre gorri,
gorroto eta harrokeriaz beterikoak
hondamenera doaz.

Guda ostean lur jota eta ezer barik
gelditu zen norbaiti dei egingo diogu.
Honi, Jainkoak, berriro bizia emango dio.

Jainkoak emaniko bizia hil zuen
eta lurraren doilorkeriak ekandu txarretan
galdu zen norbaiti ere, dei egingo diogu.
Honi, Jainkoak, berriro emango dio bizia.

Lehenengo minutuan bizi
eta hil zen bati ere dei egingo diogu.
Irribarre egin nahi eta ezpainik gabe jaio zen bati ere.

Honelakoak poztuak izango dira.
Honelakoak Jainkoaren eskuin aldean jarriko dira.

J. de Lima

NIRE BIHOTZA POBREA DA

Nire bihotza pobrea da, Jauna,
lokatzezkoa sentitzen naiz;
buztin abandonatua bezalakoa naiz,
buztingilearen eskuen zain.
Jarri zure eskuak, Jauna.
Zure bihotza, nire miserian,
eta bete ezazu nire bizitzaren hondoa
Zure errukiaz.
Babestu nire bizitza. Salba nazazu.
Zutaz fidatzen naiz.

Niretzat zer zaren esan nahi nizuke:
Zu nire Jainkoa zara, Zu nire Aita zara,
Zuk maitatzen nauzu.
Deika ari natzaizu egun osoan.
Emaiozu poza
Zure adiskidea izan nahi duenari.
Nire konfiantza zugar jarri dudala.
Babestu nire bizitza. Salba nazazu.
Zutaz fidatzen naiz.

Badakit zu ona zarela eta barkatzen didazula.
Badakit errukiorra zarela
bere bihotza zure maitasunari
eta leialtasunari irekitzen dienarekin
Entzun iezadazu. Adi nazazu.
Deitzen dizut.
Zurekin egotera nator
eta zure ondoan geratzera.
Babestu nire bizitza. Salba nazazu.
Zutaz fidatzen naiz.

Zure aurrean isiltzen naiz,
Zuk nire bizitzaren barnekoa
ezagutzen duzulako.
Hemen nago, Jauna,
nire bihotza den bezalakoa:
Ez dezadala ezer ezkuta zure begi irekietan.
Hemen nago, buztin freskoa bezala,
Zure esku errukiorrek modelatua izateko zain.
Babestu nire bizitza. Salba nazazu.
Zutaz fidatzen naiz.

Zu handia zara.
Zuk gauza zoragarriak egiten dituzu.
Zu, Jainko bakarra.
Erakutsi, Jauna, zure bidea
eta nire urratsek jarrai ditzatela
Zure oinatzak leialtasunez.
Babestu nire bizitza. Salba nazazu.
Zutaz fidatzen naiz.

Nire bihotza, banandu gabe,
izan dadila guztiz Zurea.
Bihotz-bihotzez, eskerrak ematen dizkizut,
Jauna, Jainko maitea.
Beti esango dizut lagun leiala zarela.
Amildegia sakonetik salbatu nauzu,
eta Zure errukia sentitu dut.
Tentaldiaren lokarrietatik libratu nauzu
eta zure errukia sentitu dut.
Bizarazi nauzu,
onbidera itzuli,
eta zure errukia sentitu dut.
Babestu nire bizitza. Salba nazazu.
Zutaz fidatzen naiz.

Jauna, pozten naiz,
Jainko errukiorra zarelako.
Pozten naiz Zu zarelako
errukiorra eta pazientea.
Pozten naiz Zu zarelako
errukiorra eta leiala.
Jauna, begiratu niri.
Erruki zaitez nitaz. Eman indarra.
Babestu nire bizitza.
Salba nazazu.
Zutaz fidatzen naiz.

Zu, Jauna,
Beti zaude niri laguntzeko prest
baita bihotza animatzeko ere
gainbeheratzen den bakoitzean.
Zu, Jauna,
har ezazu nire lokatzezko bihotza
eta molda ezazu
zure errukiaren handitasunaren arabera.
Babestu nire bizitza. Salba nazazu.
Zutaz fidatzen naiz.

NIRE BIZITZAREN JAINKOA

Zu maitatzera gonbidatu nauzu.
Barne-barnetik Zu maitatzera,
zeure bizia maitatzera,
zeure baitan galtzera,
zure bihotzaren baitan jasotzen nauzula jakinik;
zurekin hitz egin dezaket, zuka samurrean,
nire bizitzaren ulertu ezineko misterio hori,
maitasuna zara eta.

Maitasunean bakarrik aurkitzen zaitut, ene Jainkoa.
Hantxe zabaltzen dira nire arimaren ateak.
Hantxe ditzaket loturak askatu eta hegan egin.
Hantxe doa nire izate guztia arian-arian,
neure pobrezia eta ezerezetik irteten uzten ez nauten
txikikeria eta beldurrezko auto-baieztapenen
horma zurrunen gainetik.

Nire arimaren indar guztiak zurekin topo egitera doaz
eta ez dute atzera egin nahi, zugar galdu baizik,
maitasunez nire bihotzaren erdigune barnenena zarena,
eta nigandik, ni neu baino hurbilago zaudena.

Nire bizitzaren Jainkoa! Ulertu ezin hori!
Izan zaitez nire bizia.
Nire fedearen Jainkoa, zure iluntasunera naraman fedea
gerta dakidala bizitzaren argi gozo.

Izan zaitez nire itxaropenaren Jainkoa,
izan nire bizitzaren Jainkoa,
betirako maitasun hori!

Karl Rahner

NIRE INDARRA ETA NIRE PORROTA

Zeu zaitut, Jauna,
nire indarra eta nire porrota.
Zeu zaitut, Jesus,
nire justizia.
Nire guda eta nire bakea.
Nire askatasun askea!
Nire heriotza eta nire bizia.
Neure garrasien hitza.
Nire itxaronaldiaren isilaldia,
neure ametsen lekuko.
Nire gurutzearen gurutzea!
Nire garraztasunaren oinarria,
neure neurekoikeriaren barkamena,
nire auziko erailketa,
nire negar gaixoaren epailea,
nire itxaropenaren zioa eta oinarria.
Zeu!
Nire Agintzari Lurra,
zeu zara...
Nire Pazkoaren Pazkoa.
Gure aintza, gizaldien gizaldietan,
Jesus Jauna!

Pedro Casaldáliga

NIRE LAGUNEN ALDEKO OTOITZA

Ikasturte berri hau hasterakoan,
Aita, *Tandanacui* taldeetan ari direnen
lagunen alde eskatu nahi dizut.

Joan den ikasturteko batzuk ezagutzen ditut,
baina berri batzuk sartu dira eta ia ez dakizkit haien izenak...
Zuk guztiak ezagutzen dituzu,
baita haien bertuteak eta akatsak ezagutzen ere,
inork baino hobeto dakizkizu zein diren haien ahuleriak
eta zertan behar duten laguntza.

Zuk, Jauna, Maisu on eta zintzo,
izugarri maitatzen gaituzu,
eta ez, ordea, onak garelako...
Ez, ez. Zuk “zure nahia” delako maitatzen gaituzu
eta harro eta atsegin handiz jartzen nau horrek.

Lagun nazazu nire lagun guztiak maitatzen,
ez atseginak iruditzen zaizkidalako,
ezta nire zaletasun berberak dauzkatelako ere,
baizik eta zure Seme-alabak direlako eta, beraz,
“hau da zure mirarien artean ederrena”:
nire anai-arrebak ere badira.

Emadazu ahulenengana,
hau da, gaitasun gutxi dituztenengana,
adiskiderik gabe ibiltzen direnengana,
lurralde urrutietatik etortzen direnengana hurbiltzeko beharrezko ausardia.

Eskerrak ematen dizkizut, Aita,
anai-arrebak eta lagunak eman dizkidazulako:
Horien arteko bakoitza da niretzako oparia,
bakoitzarengan Zu, Jauna, ematen didazu “txartel bat”,
Zure Erreinuan truke egin dezakegun txartela, hain zuzen.

Emazkidazu beraiek miresteke zure begirada,
haiek laguntzeko zure eskuak,
haiekin denbora ondo pasatzeko zure irribarrea,
haiei erakusteko zure adimena,
eta batik bat, Aita, emadazu,
etenik gabe eta beti, haiek maitatzeko zure bihotza.

Jose Maria Escudero

NON DAGO JUDUEN ERREGE

Non dago jaio den juduen Errege?
Ez dugu inoiz jakingo ziurtasunez non dagoen,
Jainkoa beti dagoelako agertzen eta beti ere ezkutatzen.
Bilatzen ez dudan bakoitzean, desagertzen da.

Jainkoa ez da kriseilu batez bila dezakedan izaki zehatz bat.
Gauza guztietan dago, baina ez naiz gauza aurkitzeko.
Nire barruan dago, nire izakiarekin berarekin bat izaten.
Nire egiazko izakia aurkitzen badut, aurkitua izango dut bera ere.

Zure erdigunera eramango zaituen atea, bakarrik zabalduko da.
Ez bilatu, beraz, beste inon.
Saia zaitetz hamaika aldiz eta gehiagotan zure baitara biltzen.
Nola jakin gabe, argia agertuko da, zure barruko kaiola txikian.

Fray Marcos

NON DIRA NIRE HAURRIDEAK?

Jaunak esan zion Kaini:

-Non da anaia?

Kainek erantzun:

-Ez dakit. Anaiaren zaintzaile ote naiz, bada, ni?

Jaunak, orduan:

-Zer egin duk? Hire anaiaren odola lurretik oihuka ari zaidak...

Munduko indar printzipalenak

Non dira zuen anaiak?

Heriotza trafikatzailleak, arma saltzailleak

Non dira zuen anaiak?

Mundu antolakuntza ahaltsuak "bakearen zerbitzuan"

Non dira zuen anaiak?

Diktadura zapaltzailleak

Non dira zuen anaiak?

Munduko narkotrafikatzaileak

Non dira zuen anaiak?

Erradikal zentzugabeak eta extremistak

Non dira zuen anaiak?

Neoliberalismo besterentzailea

Non dira zuen anaiak?

Lege eta jainkorik gabeko gerrillariak

Non dira zuen anaiak?

Militar arduragabeak

Non dira zuen anaiak?

Aurpegirik gabeko bahitzaileak

Non dira zuen anaiak?

Gobernari ustel eta eragingabeak

Non dira zuen anaiak?

Sekta besterentzaile eta fanatikoak

Non dira zuen anaiak?

Erakunde eliztar eta erlijiosoak
Non dira zuen anaiak?

Gazte ezkonformista eta errebeldeak
Ba al dakizue zein diren zuen anaiak?

Gazte handizale eta ekintzaileak
Axola al zaizkizue zuen anaiak?

Interes kontsumistek manipulaturako gazte
Ba al dakizu nola bizi diren behartsuak, zure anaiak?

Gazte sano, libre, bihotz jatorrekoa eta justizia zalea
Zer deritzozu egin dezakezula zure anaien alde?

*Zuk eta biok une oro gure anaiez galdetzen badugu,
egunen batean Jainkoaren boza entzungo da berriro, esanez:
"Orain da zerua eta lur berria. Zuek egin ahal izan duzue".*

Blanca Nubia Zapata

NORABIDEAREN ZENTZUA

Zehatz-mehatz ezagutzen genuen bidea, gure ustez;
atsegin genuen
eman zitzaigun mapak
sestra-kurba guztiak, bidegurutze guztiak
markatuta zeuzkala imajinatzea,
gal ez gintezen;
markatuta zeuzkala ebaketak eta lubakiak
gure oinek behaztopa egin ez zezaten.
Atsegin genuen bagenuela gure helmugaren egitasmoa
imajinatzea, igoerena eta zoruarena...
itsu-itsuan ere bidea aurkitzeko gauza izan gintezen.

Abian jarri ginenean, ordea, gauzak ezberdinak izan ziren:
hasteko, mapa irakurtzeko ilunegia zen;
gainera, marren, diseinuen,
eta gure oinek zapaltzen zuten lurraren artean
ez zirudien lotura handirik zegoenik;
espero gabea euriak eta haizeak jotzen ziguten,
zenbait eremu uste baino zailagoak ziren,
aldapak luzeak, padurak arriskutsuak,
leizeak sakon eta beldurgarriak...

Baina aurrera egin genuen,
gutako zenbaitek – adorea guztiz galdu gabe –
oraindik ere aurrera egin genuen.
Eta bioleta perfumea zekarren haize-bolada beroa
Hegoaldetik bakarrik etor zitekeela ohartu ginen,
eta hor, nonbait, urruti, baina entzungarri,
Itsasoak etengabe ekiten diola hondartza ilunari;
hodei baten urraduran Konstelazio baten ertza ikus dezakegula,
norabidea seinalatzen digularik;
noizbait, bidean, gure esperantza berarekin aurrera doazen
beste bidazti batzuekin topo egingo dugula,
eta badirudiela ez dugula norabidearen zentzua
erabat galdu. Ez erabat, behintzat, azkenik.

Patxi Ezkiaga

OIHU DEGIZUT

Oihu degizut, ene Jainko,
zure izen guztiz santua ahoskatzen dut,
baina ezin zaitut atzeman!

Jauna, ene Jainkoa,
gure hitzak baino handiagoa zara,
gure isiltasuna baino isilagoa,
gure gogoetak baino sakonagoa,
gure antsiak baino goragokoa.

Emaguzu, oi Jainko izugarri,
handi bezain hurbil,
bihotz bizia, begi berriak,
Zu aurkitu eta onartzeko gugana zatozenean.

Amen.

San Frantzisko, Salesekoa

OINEZ JOANGO NAIZ

Zure aurrean ibiliko naiz beti
bizitzaren bidetik.
Jauna, nire bizitza ematen dizut,
egizu emankorra.
Nire nahia ematen dizut,
egizu zurearen antzera.
Oinutsik ibiliko naiz,
nire altxorra zarela jakiteaz
poz bakarrarekin.

Hartu nire eskuak, egin itzazu atsegin.
Hartu nire bihotza, egizu sutsu.
Hartu nire oinak, egin itzazu nekaezin.
Hartu nire begiak, egin itzazu garden.
Tori nire ordu goibelak, egin itzazu berritasun.

Egin zaitez nire erorketa eta atsekabeen
kide banaezina
eta erakutsidazu bidean
oparitzen dizkidazu gauza txikiak gozatzen,
beti haratago joaten jakinda
bide bazterretan geratu gabe.

Hartu nire nekaldiak, egin itzazu zureak.
Hartu nire bidexkak, egin itzazu zure bidea.
Hartu nire gezurrak, egin itzazu egia.
Hartu nire heriotzak, egin itzazu bizitza.
Hartu nire pobrezia, egizu zure aberastasuna.
Har ezazu nire obedientzia, egizu zure poza.
Hartu nire ezereza, egizu nahi duzuna.
Hartu nire familia, egizu zurea.
Tori nire maitasun faltak,
nire betiko utzikeria,
nire etengabeko etsipenak,
nire ordu mingotsak.

Zoaz nirekin, Jauna;
Hurbildu nire oinatzetara.
Egin nazazu berria dohaintzan, buru-
belarri aritzean poza,
bizia ematean gainezkako gozamina,
Zure zerbitzuan ahitzean.

Amen

OROIT ZAITEZ

Iluntasunak inguratu ninduenean eta,
udazkenak nire iratzea lurrean zapaldu zuelako,
harrokeriaren hiztegiak ez zegoela irtenbiderik
esaten zidanean,
ikusten ez zintudan arren, Jauna,
orduantxe etorri zintzaizkidan
izarrak gauerako direla esatera,
eta egunsentia
gaua luzeegia egin zaigunerako.

"Oroit zaitez itsas ertzeko emakumeaz
-esan zenidan-
eta nire hatzak hondarrean idatzi zuen poemaz.
Oroit zaitez nitaz,
itxaropena ezinezko iruditzen zaizunean.

Orduan doinu berri bat jarriko diezu zure irritsei
eta, bihotza ahula dela jakin arren,
hegoak emango dizkiozu
nire habira egin dezan.

Zure txalupa nekatuaren amarrak askatu
eta itsasora egingo duzu nirekin batera,
zure lorratzak iparrik izan dezan".

Zorioneko egun batez
oroit zaitez itsas ertzeko emakumeaz
esan baitzenidan,
eta nire hatzak hondarrean idatzi zuen poemaz.
Zorioneko egun batez
oroit zaitez beti nitaz
esan baitzenidan.

Patxi Ezkiaga

OTOITZEAN ATSEDEN HARTUZ

Nekaturik nator, Jauna, nekaturik
bizitzaz eta bere borrokaz,
otoitzaz eta bere agoniaz,
neure bihotzaz, beti
hain hauskorra, inozoa, gogorra denaz.

Zugan dut atsedeen, ene On guztia.
Nekaturik nator, Jauna, nekaturik,
neure beldurren mehatxupear nagoenean,
hurkoaren aurrean hesiak altxatzean,
zure aurrera neuregan bildua natorrenean.

Zu zara neure atsedeen, ene Jainko.
Nekaturik nator, Jauna, nekaturik,
batzuetan inolako arrazoirik gabe,
neure hutsa narran erakarrit,
neure begiak Zugan josiak, Jesus Jauna,
ene maitea, ene baitako irrika,
ene bakea.

Utz iezadazu zeure bihotzean atsedeen hartzen,
bil nazazu zeure besoaz,
emadazu zeure kopatik edaten,
nekaturik nator-eta, ene Jauna, nekaturik.

Zu zara nire Harkaitza eta ur bizia,
neure gozoa eta eztena,
neure itxaropena eta erreinua,
ene salbatzailea zaren Jainkoa, ene Aita.

Javier Garrido

SANTU IZAN BEDI ZURE AITA IZENA

Gure Aita, santu izan bedi zure Aita izena.

Inork ez dezala baztertu edo mespreza.
Inork ez dezala lohitu zure seme-alaben duintasuna urratuz.
Erbesteratuak izan bitez
zure pobreak hiltzen dituzten jainko eta idoloen izenak.
Guztiek bedeinka dezatela zure Aita onaren izena.

Etor bedi zure erreinua.

Zure justiziak, egiak eta errukiak ireki ditzala bideak munduan.
Zure Berri Ona irits dadila oraintxe bertan lur honetako azkenengoengana.
Aberatsak ez daitezela pobreen gainetik nagusitu.
Ahaltsuak ez daitezela ahulez balia.
Gizonezkoek ez ditzatela emakumezkoak gaizki hartu.
Ez diezaiogula inongo Zesar-i eman zuri dagokizuna: zure pobreak.

Egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Ez dezala hainbeste erresistentzia aurkitu gure artean.
Kreazio osoan egin dadila zure nahia,
ez lurreko boteretsuek gura dutena.
Zure Aita-bihotzean egia izan dadila zeuk erabaki duzuna.

Emaguzu gaur egun honetako ogia.

Inor ez dadila gera ogirik gabe.
Ez dizugu oparotasuna eskatzen guretzat, guztiontzako ogia baizik.
Gose direnek jateko aukera izan dezatela lur honetan;
zure pobreek uxa ditzatela malkoak eta has daitezela barrez,
ikus ditzagun duintasunez bizitzen.

Barkatu gure zorrak.

Zure barkamenaren eta errukiaren premian gaude.
Zurekin zorretan gaude: ez baitiogu zure Aita maitasunari erantzuten,
ez baikara zure erreinuan sartzen.
Zure barkamenak eralda dezala gure bihotza
eta eraman gaitzala elkarren barkamenean bizitzera.
Ez dugu gudan erresuminik edo mehatxurik sustraitu nahi.

Ez gu tentaldira eraman.

Hauskorrak gara, gure bizitza suntsi dezaketen
arrisku eta krisiei emanak.

Emaguzu zure indarra.

Ez gu zure erreinua eta justizia arbuiatzeko tentaldira eraman.

Atera gaitzazu gaitzetik.

Atera gaitzazu min egiten digun guztitik.

Atera gaitzazu gaitz orotatik.

Jose Antonio Pagola

SANTUAK IZATERA DEITUAK

*Zorionak! Gaur zure santua da!
Jainkoarentzat guztiok santuak garelako.*

Maitatzen duena santua da,
besteentzako bere denbora dohan ematen duena santua da,
maitasunak eraginda, alai eta jostalari jardun ohi duena santua da,
Jainkoarengan bere kezkak jartzen dituen santua da,

neba-arrebee adi bizi dena santua da,
sufritzen ari denarekin batera negar egiten duena santua da,
detaileak oparitzen dituen santua da,
zeregina errazten duena santua da,

hobenetik askatzen duena santua da,
erresumina sendatzen duena santua da,
lagunaren zama arintzen duena santua da,
goxo mintzatzen eta bere samurtasuna oparitzen duena santua da,

berea den ezer ez daukana santua da,
ekologia zaintzen duena santua da,
suhartasunez Bizitzari zukua ateratzen dioena santua da,
arazoengatik lur jota ez geratzeko saiatzen dena santua da,

errukiaz blai dagoena santua da,
bidezkoa dena lortzeko ahalegintzen dena santua da,
eroria dagoena onartzen duena santua da,
babesgabeari laguntza ematen dioena santua da,

besteekin bizitza ospatzen duena santua da,
besteek behar dutena asmatzen duena santua da,
kezkatuari atsedena ematen dioena santua da,
dolu egiten errazten duena santua da,

neba-arreben bizitza laztantzen duena santua da,
etxea irekia eta mahaia prestatua dituen santua da,
adiskide bezala bizitzen dakiena santua da,
pertsona guztiei barkamena eskeintzen dioena santua da,

gorroto guztietatik askatzen duena santua da,
Jainkoarekin topo egitea bultzatzen zaituen santua da,
gertaera guztietan Jainkoak eutsia balego bezala bizi duena santua da.

Zu santua al zara?

Zorionak! zoriontasuna oparituko duzulako.

Mari Patxi Ayerra

SARTU, JAUNA

Sartu, Jauna, eta eraitsi nire harresiak,
nire gotorleku setiatuan
sar daitezen nire senideak, nire lagunak,
nire etsaiak.

Sar daitezela denak, bizitzaren Jauna,
jan dezatela nire gari-siloetatik,
edan dezatela nire ur-putzuetatik,
bazka dezatela nire soroetan.
har dezatela nire gobernuaren kargu,
ene Jainkoa,
Eman diezaiedala dena,
altxa dezatela zure bandera nire almenetan,
egin dezatela egurra nire lantzak
eta inauskari bihurtu.

Sar daitezela, Jauna, nire mahastian,
zure mahastia dena.
Ebaki ditzatela mahats-mordoak,
eta busti dezatela zure ogia nire olioan.
Eta nire maitasunagatik
zure maitasunez asebetterik,
itzul daitezela Zuregana
Zu zerbitzatzeagatik.
Sartu, Jauna, eta hautsi nire harresiak.

Antonio Ordóñez, sj

SASOIA

Behar bezainbat hazi zenean
denborak urratu egin zuen bere isiltasuna
eta esperantza deituko zela esan.

Isiltasunak urratzeko sasoia da,
haz dadin hitz bizigarria.
Egiaren jabe ez izateko sasoia da,
birformulatzeko, ikasteko sasoia.

Begi irekien sasoia da,
jaiki eta ur gainean ibiltzekoa.
Berriz bat egin eta elkarri laguntzeko sasoia da,
berriz maitemintzeko sasoia.

Errukirako sasoia da, sendatzearena,
besarkaden bitartez mintzatzeko sasoia.
Ama-Lurrarekin onginahiez bizitzeko sasoia da,
altermundutasunaren sasoia.

Gizadiaren itxaropenekin
bat egiteko sasoia da.
Abian doazen herriekin
abian joateko sasoia.

Berritasun hitzez haurdun
dagoen emakumearen sasoia da.
Beldurrik gabe ahotsa altxatzen duten
isilduen sasoia.

Begi irekien sasoia da,
izateko, arnasa hartzeko, bete-betean bizitzeko sasoia.
Hemen eta han bakea pizteko sasoia da,
suzko hitzekin hitz egiteko sasoia.

SENIDEA ERREGALIA

Zuri, munduan zehar harresiak eta mugak
hausten zabiltzan horri;
zuri, nire atera deituz nire errai lokartuei
bizia eman diezun horri,
senideari bezala mintzo natzaizu.

Nire desirak zureak badira,
zurea bada nire eguna eta gaua,
zure besoek nire gorputza badute altxatzen,
nire bidezidorra zure pausoek egiten,
senideari bezala mintzo natzaizu.

Nire begiek zure negarra malkotzen badute,
berdinak badira gure oihuak,
antzeko zauriak baditugu,
amets berberak baditugu amesten,
senideari bezala mintzo natzaizu.

Muga guztien gain,
arraza eta kultura guztien gain,
hitzak ezberdinak baditugu ere
eta batzuetan arrotz bazaitut ere sentitzen,
senideari bezala mintzo natzaizu.

Biona dugu Aita,
seme-alaba egin ninduzun betiko;
biona dugu borroka eta odola,
biona Espiritua eta mezua.
Utz zaitez ikusten eta besarka nazazu, senidea.

Florentino Ulibarri

SENITARTEA ERAIKIZ

Jesu Kristo Jauna,
batasunaren zutabe eta senitartearen errege.
Bidal guri goizero zure espirituaren turrusta bat.
Eraitsi, banantzen gaituzten harresiak, egoismoak, urguiluak
eta handiusteak eraiki dituztenak.

Urrundu gure etxetik liskarrak sortzen dituzten inbidiak.
Gorde gaitzazu inhibizioetatik.
Baketu gure inpultsuak
eta bete gaitzazu baretasunez.

Sorrarazi gure baitan korronte sentibera eta beroak,
elkarri barkamena eta ulermena eman diezaiogun,
elkar susper eta ospa dezagun
ama beraren seme-alaba bezala.

Ken gure bidetik etsaigo eta gorrotoak;
hautsi gure blokeoak,
horrela elkarrekiko irekiak eta leialak,
egiatia eta zinezkoak gaitezen.
Haz bedi guran konfiantza
zuhaitz hostotsu gisa,
haren itzalpean pozik senti gaitezen.

Eta horrela argudio sumagarri
eta profetiko izango gara munduaren aurrean,
zu, oi Jesus, gure artean zaudenaren argudio.
Amen.

Ignacio Larrañaga

SINESTEN DUT BIZITZA

Sinesten dut bizitza,
pozten nau bizitzak
poz betirainokoz:
piztu da Jesu Kristo
sekulako poz.

Sinesten dut bizitza,
hari zor natzaio,
hari eskerrak naiz;
arretaz dut zainduko,
ospatuko dut maiz.

Sinesten dut bizitza,
betirako dohain
alai eta galanta;
badut zertan gozatu,
bai eta zer kanta.

Bitoriano Gandiaga

SINETSI BIHOTZEZ

Sinetsi bihotzez eta hitzez.
Buruarekin eta eskuekin sinetsi.
Minari azken hitza ukatu.

Arriskutsua bada ere,
ez gaudela behin betiko bakarrik pentsatu.
Hutsera jauzi egin,
bizitzan, bizitza guztirako,
eta egunari aurre egin
Zu hor egongo bazina bezala.

Zalantzaren erdian ere,
aurrera egin.
Inolako meritu edo bermerik gabe
nolabaiteko ziurtasun hauskorren bat eduki.

Ilunaldian irri egin
nire barre argitsuenarekin.

Maitasunak bere modura hitz egiten baitu,
madarikatuak bedeinkatuz,
ukiezinak laztanduz
eta dohatsuak gurutzetik askatuz.

Jose M^a R. Olaizola

TAUPADEN ELKARTEA

Jauna, bizitzea egokitu zaigun sasoi honetan,
zure esku buztinlariak, ia ohartzeke,
leundu egin dute suila
krisiarekin, hurbileko pertsonen etsipenarekin,
inguratzen gaituen zalantzarekin.

Bertan jarriak genituen gure ametsak,
beldurrak, topaketak eta liskarrak...
Zu itxaropenezko buztinlaria zara, eroapen handikoa,
eta irri egiten duzu arazoen aurrean,
uste osoa jarri baituzu zure lanean, zure eskuetan.
Esku iraunkor, konprometitu, zintzoak,
zure lanik ederrena bertan behera suntsitu
eta sorkuntza berriago, eskarmenturik gabeko batean
birsortzeko prest daudenak.
Etorkizunean ere zuk zeuk taxutu eta onduko gaituzu,
zure presentziaz, zure bizitzaz.

Jauna, badakizu behiala nire bihotzeko giltzak eman nizkizula
eta ugaritu egin zirela taupadak.
Salletar kaleidoskopioan ikasten jarraitu nahi dugu
eta aukera gisa ikusi aniztasuna.
XXI. mendeari begira, zintzotasunez eta sormenez
ikusi nahi dugu geroa.
Solidaritatea sustatu nahi dugu jarrera gisa
eta garrantzia lehenetsi nahi dugu, ez larritasuna.
Norabideak erakutsiko dizkiguten espazioak irrikatzen ditugu,
zein den ibiltariaren xedea jakiteko.
Gure jatorria gogoratu nahi dugu irrikaz,
eta horizonte berriak geureganatu.
Errealitatera jaitsi nahi dugu
eta goranzko bidea hartu, ametsetara.
Misioa bultzatzen duten taupaden Elkarteari
adi egon nahi dugu.

Gure bizitzaren Jaun hori, eskerrik asko.

TERESA DE LISIEUX GOGORATUZ

Egunotako euriek eta ekaitzek
etxe atzean dagoen urkitz adaxka txikitu du.
Lore zuriek
pixka bat beherago dira ur gainean
barreiatuta garajeko teilatu gainean
ez aurrera ez atzera dauden
poxin beltzetan.

Alabaina, nire barruko ez dakit non,
urkitz hori loratzeari darraio, oparo,
garai batean bezala,
eta bere jarioak zabaltzen ditu
zure egoitzaren inguruan, Jauna.

Begira ezazu nola zaintzen zaitudan!
Ez dizkizut nire malkoak
eta aurrekari tristeak soilik eskaintzen.
Igande haizetsu eta urdin honetan,
usain gozozko urkitza dakartzut,
eta nire bidean aurki ditzakedan
loreak oparituko dizkizut.
Asko dira, ikusiko duzu.
Horrela, ahalik eta gustuen
sentituko zara nire etxean.

Adibide bat jartzearren, Jauna,
ausaz nire egoitza estu honetan
igerian ikusiko banu hodei bat,
eramango nizuke, ene jainko,
oraindik indarrik banu horretarako.

Etty Hilesum

ULERTZEN EZ DUDANEAN

Ulertzen ez dudanean,
bizitzak ihes egiten didanean,
betiko historia berriz gertatzen denean,
dena gaizki doala dirudienean,
sufrimendua lagun dudanean,
gurutzearen zama gainean dudanean,
basamortuak ezustean harrapatzen nauenean...
egin bedi zure nahia.

Bidea monotono egiten bada,
zeruertz ilunduz badoa,
esperoak zimeltzen badira,
erraiak idor badaude eta nekea astun,
lore eta fruituak desagertu
eta indarrak ahul badira...
egin bedi zure nahia.

Zure planak onartzea zail bazait ere,
gogorrek eta aldats-gorakoak
iruditzen bazaizkit ere,
eroso ibiltzetik ateratzen banaute ere,
sustraitik atera eta egurats gorrian
uzten banaute ere,
nire egitasmo eta ilusioei kontra
egiten badiete ere,
protesta egin eta argibideak
eskatzen baditut ere,
etengabe honat harat dantzatzen banaute ere,
egin bedi zure nahia.

Argia presente denean,
haizekirriak esperoak ekartzen
eta kulunkatzen dituenen,
oasiak itzala eta atsedena eskaintzen dituenen,
oihuak bozkariozkoak eta festakoak direnean,
bizitzaren pilpira epela denean,
maitasunak doan inguratzen nauenean,
dena nobedade eta txera denean,
egin bedi zure nahia.

Orain, Jauna,
txundituta eta hautsita uzten banau ere,
egin bedi zure nahia.

Florentino Ulibarri

UMORE ONAREN OTOITZA

Jauna, emadazu digestio ona
eta, esan gabe doa, emadazu digeritzeko zerbait.
Emadazu gorputzaren osasuna
eta mantentzeko behar den umore ona.

Jauna, emadazu arima santua,
on, eder eta garden dena gogoratzeko gai dena;
bekatuan ikustean, beldurtu ez nadin,
baizik gauzak konpontzeko bitartekoak aurkitu ditzadan.

Emadazu asperkeria, esamesak edo lantuak
ezagutuko ez dituen arima, intzirika, suspirioka ibili gabe,
eta egizu ez nadila aztoratu eta ez diezaiodala
“nia” deitzen diodan gauza kezkarri horri garrantzirik eman.

Jauna, emadazu umorearen zentzua;
emadazu broma modu onez hartzeko grazia,
bizitzari alaitasun pixka bat atera diezaiodan
besteekin partekatzeko.

Thomas Moore

URRATZEN DITUGUN BIDE GUZTIAK

Jauna, urratzen ditugun bide guztiak
gure sorterrira eginiko bidaiak dira,
gure aurpegiaren,
ezerezetik atera gintuen “fiat”
haren bila.
Errepikaren errutinarekin lotzen gaituen
errealitatetik ihes egiten saiatzen gara,
askatasunaren,
oraindik aukeratu gabe daukagun haurtzaro baten
atzetik.

Horregatik, Jauna, gure bihotzaren haranean
gure aurpegiko nekezia, gure begietako lausoa
xukatuko dituen ur magikoaren irrikatan dihardugu,
teilatu gaineko katuari
maitasunez begiratzen dion haurraren irribarrea
gure ezpainenetan;
eta, antzinako engainurik zaharrenaren lilura
gure ariman,
itzuli,
egarria iturburuan ase eta, oraindik ere,
itxaropenaren poesia gurea egin dezakegulakoan,
sakontasunaren isiltasun.

Patxi Ezkiaga

URTE BERRIRAKO BEDEINKAPENA

Zure begirada sakon eta zorrotzagoa bihurtu dakizula gizon-
emakume guztiekin batera eginiko
zeure bidaia bakezko, elkartasunezko eta itxaropenezko
bidaia bezala ikusi ahal izateko garbiago

Kontziente izan zaitezela ibiltzen
eta urte berrian ibiliko dituzun lekuez,
eta, eskarmentuz, jakin dezazula
zein ederrak diren bakea eta Berri Ona
hots egiten dituen mezulariaren oinak

Zure bihotza eta gogoa zapaltzen dituen galderei
ez diezaiezula beldurrik izan;
soseguz onartzen eta beraiekin bizitzen ikas dezazula.
Zure eskua ematen diezun guztiei
ongi etorria irribarrez eskain diezaiezula:
esku zabalduak elkartasun sareak osatzen dituzte
aberasten eta poza ematen dutelarik beren presentzia babesleaz.

Zurea izan dadila kreatutako gauza guztien oparia;
jakin dezazula horiek gozatzen eguneko ordu orotan;
eta aurre egin diezaiola, adorez eta ausardiaz,
lur osoa zaintzeko ardurari.

Samurtasun eta errukiaren sorburuak
jariatu dezala etengabe, gau eta egun, zure baitan,
harik eta zure ondoan ibiltzen direnen, zure neba-arreben
poza eta negar malkoak dastatu arte.

Goizero kementsu eta trankil esna zaitezela,
zure ezpain eta bihotzean esker onez,
eta zure hitzek eta ekintzek, txikiak nahiz handiak,
aldarrika dezatela guztia dohaina dela, guztia grazia.

Zure gogoa zabal eta erne egon dadila
Jainkoaren nahia aurkitu dezan uneoro;
eta zure otoitza izan dadila bizitzan errotua,
jakinduria topaketa eta Jainkoak zuretzat nahi dituen bideen ezagupena.

Zure bizitza, aurten, ebanjeliozko legamiaren antzera,
orearekin nahastu dadila inolako beldurrik gabe
eta ondu ditzala Eliza, salletar hezkuntza misioa eta gure mundu osoa,
egiatan berriak eta goxoagoak izan daitezen.

Eta zure bila ateratzen den Jainkoaren bedeinkapena,
zure harkaitza, zure babes, zure indarra, zure kontsolamendua
eta zure laguntza den Jainkoaren onespina, Berari erregutu ala ez,
zuregana jaits dadila eta gaitz guztietatik libra zaitzala

Florentino Ulibarri

USTE ON

Goazen elkarrekin banatzera

une honetan sortzen diren besarkada eta musuak,
bidean edukitako pozak,
geure bihotz zaurituaren taupadak
eta afari hain berezi eta bihotzeko hau ...

Goazen elkarrekin banatzera

erraietatik sortzen zaigun hitza,
goitik, izotza bezala, datorkiguna,
iturburu ez jakinetatik sortzen zaiguna,
geu atzitu eta kanpora irteteko lehian ari dena ...

Goazen elkarrekin banatzera

gure historiaren pobrezia,
urteetan pilaturiko jakinduria,
geure musuko zimur eta arrastoak
eta haurtzarotik gelditzen zaizkigun lore-begiak.

Goazen elkarrekin banatzera

geure topaketa anaikorretako irakaspenak,
geure sutondo emankorretako beroa,
geure talde-lanetako sareak
eta geure amets guztien matazak.

Goazen elkarrekin banatzera

zure gau bete hartako irakaspenak,
doan utzi zenizkigun ogia eta ardoa,
garbitu gintuzuneko etsenplua
eta Espirituaren ildoak zuri jarraitzeagatik ...

Inoiz ez azkeneko hitzik,
inoiz ez goragoko jakinduria zantzurik,
inoiz ez katedra finkatzerik,
inoiz ez egia absoluturik!

Eta horrela, Jauna, gara eta goaz bihurtuz
seme-alaba eta senide, ikasle eta adiskide,
nekaldi- eta aintza-denbora honetan,
elkar partekatuz.

USTEKABEA

Aita, nire arima ustekabean bildua gelditzen da
oparitu dizkidazun dohainez gogoeta egiten dudanean.

Nik ez dakit zer pentsatuko duen zure Maitasunak
beti kexu eta kexu ari naizela ikustean,
hain gauza eskasa eta ñimiñoa.
Nik ez dakit Zuk zer pentsatuko duzun, hainbeste eman didazu.
Beharbada hits samar izango zara... zoriontsua ez naizelako.

Niri komeniko litzaidake esker oneko izatea
Zu zoriontsuago egiteko
eta neu zoriontsuagoa izateko.
Nire birikak zabalduko dira
eta nire adorea jasoko litzateke.

Agian, Jauna, gutxi gozatzen dut.
Baina nola gozatu, baldin nire ateak zerratuta badauzkat
eta barne egoitza estua bada
abestia kabitzen ez den lekuan?
Jauna, agian, barre gutxi egiten dut nire otoitzean.

Erabaki dut, esker onekora pasatuko naiz.
Jesusek eta Aitak nire abestia merezi dute.
Nire lagunak nire umore ona merezi dute.
Neuk esker oneko beste bizitza alaiagoa behar dut.

Gaur harri eta zur nago nire buruarekin
zure dohainak kontenplatzerakoan,
eta zure alde intonatuko dut laudoriozko abesti luzea,
sekula santa bukatuko ez dena.

UTZI KURIA, PEDRO

Utzi kuria, Pedro,
suntsitu sanedrina eta harresia,
agindu bizitzaren hitz dardaratiek har dezatela
filakteria txukunen tokia.
Goazen banana biltzaileen baratzera,
gauez jantzita, arrisku bizian,
han Maisuak pobreen izerdiaren odola
isurtzen baitu.

Pieza bateko tunika haragi txikitu eta apal hau da,
erantzunik gabeko haurren negarra,
hildako anonimoen oroitzapen brodatua.

Mertzenario legioek setiatuta daukate goizalba,
eta Zesarrek bedeinkatu egiten ditu haien harrokeriak.
Konketa garbian, Pilatok garbikuntza egiten du, legalista, koldarra.
Herria "hondarra" besterik ez da,
itxaropen hondarra.

Ez dezagun utz bakarrik goardia eta printzeen artean.
Haren agoniarekin izerditzeko ordua da,
pobreen kaliza edateko ordua,
eta gurutzekoa altxatzekoa, ziurtasunik gabe,
eta harlauza hausteko ordua,
erromatar hilobien lege eta zigilua,
eta Pazkora esnatzekoa.
Esaiezu, esaguzu guztioi,
inoiz baino biziago dagoela
Belengo estalpea,
bizirik daudela zoriontasunak
eta janaritan emandako maitasunaren epaia.
Ez gaitzazu aztora gehiago!
Maite duzun bezala,
maita gaitzazu,
besterik gabe,
berdintasun, anaitasun mailan.

Zure irriekin, zure malko berriekin emaguzu
alaitasunaren arraina,
hitzaren ogia,
ilintiaren arrosak ...
zeruertz librearen argitasuna,
Galileako itsasoa, ekumenikoki munduari irekia.

UTZI NUEN...

Utzi nuen
Gurutzea,
segur nintzen
aurkitzea.

Bidez ala
tokiz alda,
han bezala
hor ere da.

Utzi nuen
gurutzea,
galdu bazen,
ze galtzea!

Gurutzetik
dugu-eta
denengatik
bizi hauta.

Utzi nuen
gurutzea,
nahigabeen
onartzea.

Gurutzea
zer gozoa,
besoetan
du Jainkoa.

Goazen beraz
lainoz laino
gurutzeaz
argiraino.

Iratzeder

ZATOZ AITAREN ETA SEMEAREN ESPIRITUA

Zatoz, Aitaren eta Semearen Espiritua.
Zatoz, maitasunezko Espiritua.
Zatoz, haurtzarozko, bakezko,
konfiantzazko eta alaitasunezko Espiritua.
Zatoz, munduaren malkoak pizten dituzun
ezkutuko alaitasun.

Zatoz, gure heriotza baino askoz indartsuagoa zaren bizitza.
Zatoz, pobreen aita
eta zapalduen defendatzaile.
Zatoz, betiereko egiaren argi,
eta gure bihotzetan zabaldutako maitasun.

Ez daukagu behartu zaitzakeen ezer;
baina horretan datza gure konfiantza.
Barren-barrenetik, gure bihotza
zure etorreraren beldur da;
hain zara beti bere buruaren bila dabilen
bihotz zatar honekin alderatuta, ezberdina...
Baina, hala eta guztiz ere, haxe dugu
zure etorreraren bermerik sendoena.

Zatoz, bada. Berrizta eta areagotu ezazu zure presentzia
gure barruko munduan.
Zugan jartzen dugu gure konfiantza osoa.
Zugan maitatzen dugu elkar,
Zu baitzara Maitasuna bera.

Zuri esker esan diezaiokegu Aita
Jainkoari berari, zu zeu baitzara gure hondoenetik
“Abba, Aita guztiz maitea!” aldarrikatzen duzuna.

Zaude gugan.
Ez gaitzazu utz inoiz.
Ez bizitzan zehar,
ez bizitza amaitzear dagoeneko orduan,
bakardaderik gorrienean aurkitzen garenean.
Zatoz, Espiritu Santua!

K. Rahner

ZEIN IZANGO OTE DA URRATSA

Zein izango ote da zurekin topo egitera
eramango nauen urratsa?
Ez dut noraezean bizi nahi, hutsik, bakar-
bakarrik zure urratsen mugetan.

Osasun deituko ote da, edo gaixotasun?
Arrakastaren aurpegia izango ote du
edo porrotak astindutako nekeziarena?
Desertua bezain lehorra izango ote da,
edo, urez gainezka, oasia bezala?
Mistikoaren gardentasunez distiratuko ote du,
edo zapalduaren hondakinetan ote da itzaliko?
Zigorraren kolpe gisa eroriko ote zait gainera,
edo samurtasuna gisa ote zait hurbilduko?
Herri alaiarekin komunioan sortuko ote da,
edo nire jatorriko bakardade gorrian?
Liburuetako historia dirdaitsua izango ote da
edo azpijokoaren ifrentzu zapaldua?

Ez du inporta zein ote den
zurekiko topaketara eramango nauen bidea.
Ez dut zure urratsez jabetu nahi
zure aintzaren isla liluragarria direnean,
eta ez diet ihes egin nahi
kolpe eta larrimin direnean.

Ez du inporta zenbat berandutzen den
gordetzen zaituen misterioaren agerkundea,
zure urrats guztiek igartzen didaten misterioarena.
Nire bidaia guztia nire “ezjakinaren” sakontasunaren
Isiltasunera eta itxaroteraren iristen da..
Baina zure ate aurrean zain nagoenean
“nik badakit” zugar nagoela.

Benjamin González Buelta

ZERTARAKO NAHI NAUZU

*Zurea nauzu
eta zuretzat jaio naiz.
Zertarako nahi nauzu?*

Maiestate Gorena,
betiereko Jakinduria,
nire arima ontasunez
maite izan duzuna,
Jainkoa, Gorena, Batasuna, Ontasuna,
ikusi gaur hain txiroa den honek
abestu nahi dizun maitasun-kantua.
Zertarako nahi nauzu?

Zurea naiz, Zuk sortu bainauzu,
zurea, Zuk salbatu bainauzu,
zurea, Zuk zaindu bainauzu,
zurea, Zuk deitu baitidazu,
zurea, izan ere ni ez bainaiz ardi galdua.
Zertarako nahi nauzu?

Emadazu aberastasuna edo pobretasuna,
emadazu kontsolamendua edo gabezia,
emadazu alaitasuna edo tristezia,
emadazu infernua edo zerua,
ene bizi gozoa, lausorik gabeko Eguzki horia.
Zertarako nahi nauzu?

Nire atsedena gura baduzu
atsegin handiz hartuko dut atsedena.
Lanean jo eta ke nahi banauzu
akitu arteraino ekingo diot,
Zuk esadazu non, noiz, nola...
Esadazu, ene maite hori, esan.
Zertarako nahi nauzu?

Ni isilduko naiz edo hitz egingo dut,
legeak erakutsiko dit nire zeregina,
baina egizu hazi dadila Ebanjelioarekiko gozotasuna,
penaturik edo pozik biziko naiz,
baina Zeu bakarrik izango zara nire jabe.
Zertarako nahi nauzu?

Zurea nauzu
eta zuretzat jaio naiz.
Zertarako nahi nauzu?

Santa Teresa Avilakoa

ZEUK ERAKUSTEN DIDAZU BIZIBIDEA

Ene Aita, gorde nazazu;
nire aterpe egin nahi zaitut.
Neuk esango diot Jaunari: “Zeu zara ene Aita!
Nik ez dut beste ondasunik Zeu ez besterik”.

Munduko idolo guztiak,
gaizto lanean inoiz errenditzen ez diren
jainko txiki horiek,
edonon dabilta jo eta ke ahaleginean.
Nik ez dizkiet opariak eskainiko
ezta nire bizibidearen odola.
Haien izenek ez dituzte nire ezpainak likistuko.
Jauna, ene kide eta kopa,
Zuregan dut jarrita ene itxaropena.
Honek lilura dakarkit bihotzera
eta nire ondasun guztia bailitzan hartuko dut.

Aholkulari bikaina den
Jauna benedikatuko dut sekulako,
baita bihotza ilun ikusten dudanean ere.
Jauna zainduko dut nire aitzinean
inola ere laxatu gabe; Bera da
ene eskuina, orduan ez naiz beldur.

Jauzika daukat bihotza
eta ene arimak firin-faran dihardu.
Konfiantzaz gainezka naukazu, Jauna,
ezin nauzu heriotzaren garretan laga,
ez utzi zure adiskidea kaiolan usteltzen.
Zeuk erakusten didazu bizibidea
zure aitzinean nire poza txunditzeraino.
Zure babespean eternitatea lilura-lekua izanen da.

ZOAZ, JAUNA

Zoaz, Jauna, gure aurretik, gu gidatzeko;
zoaz gure atzetik, gu bultzatzeko;
zoaz gure azpitik, gu jasotzeko;
zoaz gure gainean, gu bedeinkatzeko;
zoaz gure inguruan, gu babesteko;
zoaz gure barruan, gorputz eta arimaz
zerbitza zaitzagun zure izenaren aintzarako.

N. Söderblom

ZORIONEKOAK MAITATZEN DUTENAK

Zorionekoak besteen interesa
norberarena bezala maite dutenak,
bakea eta batasuna sortuko baitute.

Zorionekoak beti lehenengo urratsa egiteko prest daudenak,
bestea uste baino askoz irekiago dagoela aurkituko baitute.

Zorionekoak inoiz “Aski da!” esaten ez dutenak,
hasiera berri bat aurkituko baitute.

Zorionekoak hitz egin aurretik entzuten dutenak,
halakoei entzun egingo baitiegu.

Zorionekoak eztabaida guztietan egia-bihia aurkitzen dutenak,
integratzeko eta artekari izateko gaitasuna izango baitute.

Zorionekoak inoiz egoeraz baliatzen ez direnak,
errespetatuak izango baitira.

Zorionekoak inoiz mintzen ez direnak,
inoiz ilusioa galarazten ez dutenak,
horiek sortuko baitute giroa.

Zorionekoak errenditu eta galtzeko gai direnak,
orduan atera baitaiteke Jauna garaile.

Klaus Hemmerle

ZU BAKARRIK

Gure proiektuak gainbeheratu
eta porrot egiten dutelako
eta arrakastak ez gaituelako betetzen
nahi dugun bezala.
Maitasunik handienak
uzten dituelako bakardadearen hutsuneak,
gure begiradek ez dutelako oztoporik hausten,
maitatu nahi dugunean, zauritzen diogulako elkarri,
etengabe talka egiten dugulako
gure hauskortasunarekin,
gure utopiak kartoizkoak direlako
eta gure ametsak
esnatzean lurruntzen direlako.

Gure osasunak deskubritzen dituelako
guztiahaltasunaren gezurrak
eta heriotza erantzuten
ez dakigun galdera bat delako.
Mina lagun mingotsa delako
eta tristura itzal bat ilunpetan.
Egarri honek ez duelako iturririk aurkitzen
eta gatz zurrutadekin engainatzen garelako.

Azkenean, sustraian, barnean,
Zu bakarrik geratzen zara.
Zure ametsak bakarrik uzten dit begiak irekitzen,
Zure begiradak bakarrik laztantzen du nire izatea,
Zure maitasunak bakarrik uzten nau lasai,
Zure baitan bakarrik atsedean hartzen du
nire ahulezia eta Zure aurrean bakarrik
amore ematen du heriotzak.
Zu bakarrik, nire harkaitza eta nire atsedena.

Javi Montes, sj

ZU BAKARRIK BEHAR!

Behar zaitut, Zu, Zu bakarrik behar!
Utz iezadazu bihotza aspertu gabe esaten.
Gau eta egun bahitzen nauten beste irritsak
Barru-barrutik dira gezurrezkoak eta hutsalak.

Gauak bere iluntasunean
argiaren otoitza ezkutatzen duen bezala,
horrela oihartzun egiten du oihu honek:
Behar zaitut, Zu, Zu bakarrik behar!

Ekaitza bakearen bila dabilenean
Bakea bere indarrez jotzen duenean bezala,
Horrela jotzen du zure maitasuna nire erreboltak eta dio oihuka:
Behar zaitut, Zu, Zu bakarrik behar!

Rabindranath Tagore

ZU BEHARTSUEN ALDE

Zu zara behartsuen Jainkoa,
giza Jainkoa eta xumea,
kalean izerditzten den Jainkoa,
aurpegi zaildua daukan Jainkoa.

Horregatik hitz egiten dizut nik,
nire herriak hitz egiten duen moduan,
Jainko langilea zarelako
Kristo behargina.

Zu nire jendearekin eskutik zoaz,
borroka degizu landan eta hirian,
kanpamenduan ilara egiten duzu
zure soldata jaso ahal izateko.

Zuk parkean harramaskatuz jaten duzu,
Eusebiok, Pantxok eta Joan Joxek bezala,
eta kexu zara ziroparekin
ezti nahikoa botatzen ez dizutelako.

Nik pulperia batean ikusi zaitut,
karamantxel batean instalazioa egiten,
loteria saltzen ikusi zaitut
lotsaz gorritu gabe horregatik.

Nik gasolindegietan ikusi zaitut
kamioi baten uztaiak berrikusten
eta baita errepideak patruilatzen ere
oberolezko esku-narruekin.

Ernesto Cardenal

ZU HEZITZAILE ZAITUT

Hezitzaile begikoa,
zure mundu heldua albo batera laga
eta ikasleen munduaren bila jo duzu.

Haien mundua zurea egiten ikusi zaitut.
Ikusi zaitut adinaren eta pentsamoldearen muga igarotzen
ederki asko dakizulako
zatiketetan dagoela mortua.

Zu, hezitzaile,
konpainia-egarri direnekin topo egitera irteten ikusi zaitut,
konpainia egitea baino gehiago konpainia nahi dutenekin.

Gaur, hezitzaile,
lehen urratsa ematen ikusi zaitut
eta ikasleen atalaserira iristen;
haien atean jotzen bakez eta elez,
sartzeko prest haiek utziz gero.

Ikusi zaitut, hezitzaile, zureak direnetik oso hurbil,
hurbiltasunean pentsa ezinezko gauzak burutzen baitira.
Zure ikasleen bihotzak, hezitzaile,
agian zintzotasunez gainezka egingo du
eta promes bat sortu daiteke.

Dizipuluaren begiratuko txinpartaren bidez soilik
eternitate-inpresio irristakor eta sotila
norbere ariman leunki sentitu ahal izan duenak,
horrek eta ez beste inork -zaudete ziur- daki
ziurtasun handiz zer den irakaste-bokazioa.

Pedro Laín Entralgo

ZU ZAITUT NIRE USTE ONA

Zure esku handietan, Jauna,
utzi nahi dut neure burua
buztina bezala moldeatua izaten,
maitasunean abandonatua egoten.

Egizu, Jauna, egunez egun senti dezadala
Zu zarela nire indar,
nire gordeleku arrisku-uneetan.
Babestua sentitzen den haurra bezala nahi dut bizi
seguru sentitzen den hura bezala.

Utz iezadazu sinesten Aita zaitudala,
zaintzen nauzuna eta nire bizia begiratzen duzuna.
Utz iezadazu lasai egoten zure presentzian,
zure txera handiaren samurtasunean.

Dena goibel eta lakar zaidanean,
ager iezadazu Zu zaitudala nire irtenbidea,
nire itzulerarik gabeko joana,
nire bizitzaren argia.

Zure eskuetan utzi nahi dut ene burua,
kezka guztiak baztertuz,
Zuk eutsia izatearen pozez.

Ene burua nahi dizut utzi,
bai baitakit ez duzula huts egiten,
leiala zarela hitzorduan, poza negarraldian,
bakea gatazketan,
inor kendu ezin didan alaitasuna.

Zu zaitut nire uste ona, bai baitakit
gertatzen zaidan guztia maitasunaren
balantzan dagoela pisatua.
Amen.

ZUHAITZA HAZI

Zuhaitza hazi eta itzala eman arte
itxarongo dut.
Baina nire orbelaz
ongarrituko dut nire itxaronaldia.

Iturburua sortu
eta ura ematen hasi arte
itxarongo dut.
Baina oroitzapen lokaztuetatik
garbituko dut nire uharra.

Egun-alba esnatu
eta argitzen nauen arte
itxarongo dut.
Baina barreiatu egingo ditut
nire ahuldadea eta hil-oihalak.

Ez dakidana eta haren harridura
etorri arte
itxarongo dut.
Baina nire harrapakin guztietatik
hustuko dut etxea.

Eta zuhaitza ongarritu,
uharra garbitu,
gaua astindu
eta etxea hustean
lurra eta auhena ireki egingo dira
esperantzara.

Benjamín González Buelta

ZUK NAHI DUZUNA

Zuk nahi duzuna
eta Zuk nahi duzunean.

Ez nik nahi dudana, Zuk,
Zuk nahi duzuna baizik,
eta Zuk nahi duzunean betorkit.

Nik nahi dudana baletorkit,
zer letorkidake onik!
nik zer dakit; zer dakit nik
zer behar dudan,
jakin ere,
nor naizen ez dakit eta,
nola jakin zer dagokion naizenari?
Ez jakitez, ezta ere ez dakit ziur
oraintxe bertan on ustetan edana
ez ote dukedan geroxeago edena...!

(Eta hori, gorputzeko eta oraingoxe zeretan; lekutan nago
ene gogo-bihotzei zer dagokien jakiteko, eta jakin, zer, betiere
guztian!)

Nik ez dakit. Zuk, bai. Nik dakidana da
Zuk bakarrik dakizula nor naizen,
Zuk irazana naizenez,
eta Zuk bestek ezin dakikeela
zer dagokion naizenari naizena nadin;
eta ez duzula beste nahirik,
ni neu egiaz naizena, Zugan naizena, izan nadila baizik.

Ez nik,
ez guk, Zuk, othoi!,
Zuk zeuk nahi duzuna eta nahi duzunean etor bekigu,
ziur gaude, ongi baitakigu
guk geuk behar duguna eta behar dugunean etorriko zaigula,
eta Zugandik datorkigukeela soil-soilik.

Gerta ala gerta,
datozkigunak datozkigula -zuri, gorri, beltz-
ezin baitatorkiguke Zugandik deus txarrik,
guztion onerako guztiz on ez denik;
nahita ere ezinen zenioke inori,
ez eta den ezeri, ezer txarrik,
ez dagokionik opa;
zaren legez Ontasun Gorena izanik,
ezinen baitzenuke zeure burua uka.

Zer nahi genezake guk geuretzat
Zuk guretzat nahi duzuna baino behinagorik?,
ezta zeure buruari ez diozu eta
guri baino ezer hoberik opa?

Bai, Zuk,
Zuk nahi duzuna,
ez guk nahi duguna.
Zuk nahi duzuna
da guk behar duguna,
garenari dagokiona, hori,
nik nahi dudana:
Zuk nahi duzuna

*Zuk nahi duzuna bedi
nik nahi dudana beti!*

nire nahia zure Nahia izanik,
ni neu egiaz naizena nadin, Zu nadin

J. A. Artze

ZURE AURPEGI BILA

Adiskide, utz itzazu momentu batez eguneroko eginkizunak;
sar zaitetz zeure baitan, zure pentsamenduen burrunbatik urrun.
Bota kanpora kezka urduriak;
alboratu zugandik ardura nekagarriak.
Eman astia Jainkoari eta har ezazu atsedeen haren aurrean
sikiera une batez.
Utzi dena, Jainkoa eta Hura bilatzen lagunduko dizuna izan ezik...

Esaiozu orain Jainkoari:
Zure aurpegi bila nabilkizu, Jauna, zure aurpegia ikusi nahian...
Erakutsiozu nire bihotzari non eta nola Zu bilatu,
non eta nola Zu aurkitu...
Ez bazara hemen, non bilatuko zaitut?
Edonon bazara, nola ez zaitut sumatzen?...
Ez zaitut sekula ikusi, Jauna, ene Jainko hori; ez zait ezaguna zure aurpegia.

Zer egingo du erbesteratu honek zugandik urrun?
Zer egingo zure zerbitzari honek,
zure amodioaren irrikaz eta zugandik hain urruti...
Ikusi nahi zaitu eta zure aurpegia hain du urrun!
Zugana hurbildu nahi eta zure egoitza helezina izaki.
Zu aurkitzearen irrikaz da sutan eta ez daki non bizi zaren.
Zu besterik ez gogoan eta ez du zure aurpegia inoiz ikusi.

Zuk sortua naiz... eta zuk emanak ondasun guztiak
eta oraindik ez zaitut ezagutzen.
Ikus zaitzadan sortu ninduzun
eta hori lortzearen ez dut oraindik ezer egin...

Erakutsiezadazu Zu bilatzen eta ager zakizkio zure bila dabilen honi,
izan ere ezin naiz zure bila joan ez badidazu Zeuk erakusten,
eta ezin Zu aurkitu ez bazatzaizkit ezagutzera ematen.
Desiratuz bilatuko zaitut eta bilatuz desiratuko,
maitatuz aurkituko zaitut eta aurkituz maitatuko.

Anselmo Canterburykoa

ZURE BIDEAK ERAKUTSI, JAUNA

Toki asko zeharkatu ditut,
eta amets ugari egin
bidaztiak egiten duena beste biderik
ez dagoela sinetsi eta baieztatuz,
eta, gaur, nire hitza zalantzaz josita dago,
altxatzeko beldurrez.

Baina nagoen toki honetatik,
inoiz norabiderik gabe eta galduta,
inoiz nekatuta eta urratuta,
triste eta ilusiorik gabe,
inoiz hasieran bezala...
xuxurlaka eskatzen dizut:

Erakuts ieazkidazu zure bideak, Jauna,
zure egiazko bideak,
agerian eskainitako bideak,
seguruak, garbiak, anaitasunezkoak,
graziaz, brisaz eta biziaz betetako bideak,
zure bide kuttunenak,
nahitaez egin beharrekoak,
kontrakarreko bideak,
propagandak eskaintzen dituenak bestelakoak,
lagunartean egin eta zure etxondoren ateetan
uzten gaituztenak.

Eraman nazazu zure bake eta justiziazko etorbideetatik,
zure biribilgune solidario eta bihozberetatik,
askatasun eta duintasun autobideetatik,
zure soiltasun eta pobreziazko abelbideetatik,
utopia eta berritasun bidezidorretatik,
eta, behar izanez gero, landan zehar, zure urratsen atzetik,
edo gupida eta errukizko errege karrikatik.

Eta zure etxondoaren atera iritsitakoan,
izan dezadala garbitu eta atarian atsedean hartzeko aukera,
deika ari zaidan zure ahotsa entzun eta, barruan,
zurekin jan eta edatekoa,
seme eta anai, zuk eta zure lagunek
prestatutako oturuntzan.

ZURE BILA ATSEDENIK GABE

Jesus Jauna,
gosez ogiaren bila dabilena bezala,
itsasoaren bila dabilen ibaia bezala
nabil ni, zure bila.
Non aurkituko zaitut?
Bihotzera hitz egin zenidan
eta bihotzean entzun nahi zaitut berriro.
Zure urratsen, zure pausoen, atzetik nabil
baina ezin dut zuganaino heldu.

Misterio hondogabe hori,
Jainko Aitaren seme.
Egunsentiko haize gozo.
Gizakion betetasun,
presentzia bizi,
ezkutuko aurpegi.
Nolakoa zara?
Nola hel naiteke zugana?
Ez dugu ez argirik, ez eguerdirik zu gabe.
Iheskor ote zaitugu?

Bihotza zabaltzen dizudanean,
orduan ikus eta uki zaitzaket.
Zugana noa:
horixe dakit eta aski dut.
Zure atzetik noa, zu zaitut gidari,
eta aski dut.

José Real Navarro

ZURE BILA, JAUNA

Ez egin otoi Jaunari zerurantz begira.
Zure barnera begiratu!
Ez bilatu Jauna ez dakit non,
zure baitan baizik.

Ez eskatu Jaunari ez duzuna.
Zeuk bilatu!
Eta Jaunak zurekin bilatuko du,
agintzari eta jomuga gisa eman baitzizun
zeuk atzemateko.

Ez leporatu Jaunari zure atsekabea.
Harekin nozitu!
Eta Hark zurekin nozituko du.
Dolu bat bitan banatzen bada, arinago nozitzen da.

Ez eskatu Jaunari
mirariz mirari goberna zaitzan, kanpotik.
Zure burua gobernatu,
askatasun arduratsuarekin, maitatuz!
Eta Jaunak eramango zaitu
barru-bidetik, nola litekeen hori zuk jakin gabe.

Ez eskatu Jaunari erantzunik mintzo zatzaizkionean.
Zeuk erantzun! Hura mintzo zaizu aurrena eta.
Falta dena entzuten jarraitzerik nahi?
Entzun jada esan zizuna!

Ez eskatu Jaunari zu askatzeko,
emandako askatasuna ezagutu gabe.
Izan bihotz eta bizi zeure askatasuna!
Eta ahalezkoa izan zela jakingo duzu,
zure Jaunak aske nahi zaitu eta.

Ez eskatu Jaunari zu maitatzeko,
baldin maitatzeko beldur zarela jakin
eta maitatua zarela jakite hutsak izua sortzen badizu.
Zeuk maitatu!
Eta jakingo duzu bero dela sua izan zelako
eta zuk maitatzerik baduzu
Hark aurrena maitatu zintuelako dela.

San Agustin

ZURE BILUZTASUNEAN

Bakarrik sentituko zara, lekukorik gabe.
Isolatuta egongo zara, zubirik gabe.
Isiltasunak estutuko zaitu, hitzik gabe.
Ahanzturak min emango dizu, txalorik gabe.
Zalantzak kezkatuko zaitu, erantzunik gabe.
Zama pisatuko zaizu, laguntzarik gabe.
Beldurtu egingo zaitu konpromisoak,
segurtasunik gabe.
Biluzik ikusiko duzu zeure burua,
gezurrik gabe.
Eta Ni zure lekukoa izango naiz,
Zure zubia eta Zure hitza.
Ni Zure txaloa izango naiz,
Zure erantzuna eta babesak.
Ni Zure babeslekua izango naiz
eta Zure biluztasuna maitatuko dut.
eta benetan bizitzen erakutsiko dizut.

José M^a Rodríguez Olaizola, sj

ZURE DENBORAREN ZENTZUA BEHAR DUT

Zure denboraren zentzua behar dut.
Beti gauzen irrikan sentitzen naiz.
Batzuetan presaka ibiltzen naiz nire helburuak lortzeko
eta erabat urduri nago.

Zaila egiten zait konturatzea
hazkunde jakin batek moteltasuna behar duela,
prozesu guztiak ez direla azkarrak.
Ezin dut beti diskriminatu
garatzeko denbora behar duten gauzen artean
eta bizkortu daitezkeenak,
denboraren zentzua sorgor daukadalako.
Gauzak gertatzen diren moduaren arabera neurtzen ditut.
Ezin dut beti ulertu gauzei perspektiba ematen dien
denboraren zentzu sakona, aisialdi gisa.

Zure zentzumena behar dut.
Batzuetan, bizitzaren xehetasunen nahastea izugarria da.
Gauza txikiek nire bidea oztopatzen jarraitzen dute
aldez aurretik prestatutako aitzakiak emanez
ez egiteko eta ez izateko
egin eta izan behar dudana dakidana.

Denbora asko ematen dut oso garrantzitsuak ez diren gauzetan,
nire gustuetan garrantzitsuak baztertzen ditudan bitartean.
Nire kontuak argitu behar ditut
nire bizitza ordenatu dadin.
Ene Jainkoa, zure ordenaren zentzumena behar dut.

Etorkizunaren zure zentzua behar dut.
Jakin dezadan bizitza beti etorkizunaren alde dagoela.
Mantendu bizirik aurreranzko begirada nigan,
itxaropen handia, aurrera egiteko bultzada.

Ez utzi ni geldiarazten
ez iraganagatik, ez orainagatik.
Eman iezadazu, oi Aita gaixoa, etorkizunaren zure zentzua
Hori gabe bizitza osoa gaixotu eta hiltzen da.

Howard Thurman

ZURE DOHAINA ERREZIBITU NAHI DUT

Aingeruak Zakariasi:

“Zure haurra Espirituaz beteko da amaren sabelean”.

Aingeruak Mariari:

“Espiritu Santua zuregana etorriko da”.

Isabel Espiritu Santuaz bete zen.

Espiritua Simeon Agurearen baitan zegoen
eta korri egin zuen tenplura Jesus Haurra ikustera.

Jesus, Espiritu Santuak eraginda,

basamortura jo zuen

eta Espirituak eraginda Galileara itzuli zen.

Eta Harengan zegoen Espirituak

gantzutu egin zuen behartsuei Berri Ona emateko.

Eta Jesus pozez bete zen Espiritu Santuarengan,

Jainkoari xumeei azaltzen zaiela abesteko.

“Eta zuek, gaiztoak izanik,

zuen seme-alabei gauza onak ematen badizkiezue,

zenbatenaz gehiago zeruko Aitak

emango die Espiritua hala eskatzen diotenei”!

Gose naiz, Jauna.

Zure dohaina errezibitzeko irrika bizia daukat

zure jaiotzeko arima galant haiek bezala.

Eta Zuk bezala, beste inork baino gehiago

zein bihotza blai baitzeneukan

eta eztarria gartsu Espirituaren abestiez.

Zatoz guregana, zatoz,

eta bildu gaitzazu jainkozko arnas horretan,

gure bizitzak santuak eta ederrak egin ditzan.

Amen.

ZURE EGINTZA GUREA ERE BADA

Fedeak esaten digu
zure egintza gure egintza dela,
eta beronen funtsezko alderdi bat garela.

Ebanjelioa guztiei iristarazteko dohaina
eman diguzu,
pobre eta gazteei batik bat.

Ebanjelioaren abentura,
nork bere modura bizitzen duena;
Ebanjelioaren abentura,
gure munduko kredo eta kulturetara irekia.

Mugarik gabeko salletarrak nahi dugu izan.
Zailtasunak eta erronkak ditugu aurrean,
gure Fundatzailearen egunetan bezala.
Dizipuluak Emauseko bidean bezala
bihotz motelekoak gara, sinesteko.

Halere, Jauna, oraindik gugan sinesten duzu,
galderaz josten gaituzu, erronkaz,
eta bidali egiten gaituzu
sutan jarrita gure bihotza gure baitan.

Edozein adinekoak garela ere,
esperantza eta poztasunez beteta sentitzen gara, misioarekin.
Poztu egiten gara misioa zabaltzen denean.
Hezkuntza-ekimen berriak ospatu egiten ditugu
eta pobreenei zuzendutako ministerioak.

Bai, Jauna, zure maitasun handiaren lekuko izan gara
gure fundazio-garaiz geroztik.
Gertaera horrek konbentzitu gaitu
gauza handiak oraindik ere posible direla.

Eskerrak demazkizugu
behin eta berriz deitu gaituzulako, eta bidali,
Jerusalema itzul gaitezen,
bizitasun-agintzaria, gure ametsa bizi ahal izateko,
gure pasioa, gure etorkizuna,
gure eskutan utzi duzun misioaren alde.

ZURE ESKU HANDIETAN

Jauna, Zure esku handietan,
buztin krematsua bezala molda nazazula,
zure maitasunean abandona nazazula nahi dut.

Jauna, egizu, egun honetan senti dezadan
nire iturria zarela,
nire babeslekua arrisku-uneetan.
Ume bat bezala, amaren besoetan, bizi nahi dut.
Txita bezala babestua
amaren hegoen azpian.

Jauna, utzidazu, benetan sinesten
Zu nire aita zarela,
zaintzen nauzula
txoria eta arrosa baino gehiago.
Utzidazu gauean kuzkurtzen,
Zure maitasun izugarriaren samurtasunean.

Orain denak segada bat ematen duenean,
erakutsiezadazu Zu nire irteera zarela,
itzultzerik gabeko ibilbidea,
inoiz gertatu zaidan gauzarik onena.

Nire burua utzi nahi dut
ilunabar erdian,
habiara itzultzen den
txoria bezain aske sentituz.
Nire burua utzi nahi dut zure eskuetan,
kezka guztiak alde batera utzita,
Zuk eusten nauzun pozez,
Zure gariaren mahaian janez.

Nire burua abandonatu nahi dut,
Zuk ez duzu huts egiten dakidalako,
Zu zara hitzorduarekiko leialtasuna,
negarretan poza,
bonbak erortzen ari denean bakea,
inork kenduko ez didan alaitasuna.

Zu zara nire uste ona,
badakidalako gertatzen zaidan guztia
pisatua dagoela
maitasunaren balantzan. Amen.

ZURE GURUTZEA... NIRE HEGALDIA

Zure gurutzean, Jauna,
bi makila baino ez daude,
Zerura gezi bat bezala apuntatzen duena
eta zure besoak etzaten dituen.

Ez dago gurutzerik haiek gabe
eta ez dago hegaldirik.
Haiek gabe ez dago besarkadarik.
Besarkatu eta hegan egin.
Gizaki arduratsuaren irrikak.
Lur hau besarkatu
eta barruan eraman.
Erakutsi zure besarkada izaten.
Eta zure bularra.
Zure altzoa
eta Zureganako itzuli-bidea izaten.
Baina ez nire bidea,
barruan askorekin baizik.
Esadazu nola maitatzen den
muturreraino.

Eta bihurtu hegazti
dagoeneko daramadan gurutzea.
Edo eraman egiten nauela!
jada hegaldian nagoelako.

Ignacio Iglesias, sj

ZURE HITZA

Gure *Jainko eta Aita*,
emaguzu zure *Hitza*,
jar ezazu gure ezpainetan,
su baten antzera, erre gaitzan,
Jesusek bezala hitz egiten ikasi arte.

Aita,
pailazoaren hitza eskatzen dizugu,
beti alaia;
adiskidearen hitza,
maitasunean zaildua.

Jainko ona,
*maisua*ren hitza eskatzen dizugu,
jakituriaz betea,
bizia sortu eta biziarazten duen
amaren hitza;
hitz totala hasi eta,
gauzei izena ematearekin batera,
aita eta ama esaten ikasten duen
haurraren hitza.

Aita Jaungoikoa,
pobreen hitza eskatzen dizugu,
esku luzatuen, bihotz larriaren hitza.

Gizon-emakumeon Jainko,
poetaren hitza eskatzen dizugu,
bidaietan jakitun,
isiltasunean sortzaile;
eta itxaropenaz dakien
profetaren hitza.

Ez gatozkizu oihuen eske,
isiltasunaren eske baizik;
ez dizugu eskatzen berritsuak, hitza baizik;
ez buruz ikasitako hitza,
dohain egindakoa baizik;
ez hitzaldietako hitza,
otoitzekoa baizik.
Hitz samur, beroa eskatzen dizugu...
gizon-emakumeon hitza,
Jesusena.

Domingo Martín

ZURE IZENEAN BILDUTA

Jesus, Jauna,
Zure izenean bildu gara,
eta, fedeari esker dakigu gure artean zaudela:
maisuzaitugula, guri irakasteko;
sendagilezaitugula, gu osatzeko;
artzainzaitugula, gu bideratzeko;
anaiazaitugula, gu maitatzeko;
itxaropenaren, poztasunaren eta biziaren iturri zaitugula,
gu alaitzeko.

Emaguzu zure sentiberatasuna,
gure elkarte eraiki eta bultzatzen duen Espirituaren arnasari
irekita bizi gaitezen.

Ez gaitezela gure artean sor daitezkeen tentsioetatik
ihesean urrundu;
aldiz, gaindi ditzagula
Ebanjelioaren gardentasunean,
fedezko elkar onarpenean
eta elkarriketa apal, ireki eta sinesberan oinarriturik.

Emaguzu geure egiari aurre egiteko
behar dugun adorea.

Ez gaitezela
bakea eta ihesa,
zintzotasuna eta zurruntasuna,
egia eta oldarkortasuna,
elkarriketa eta hitz jariora,
elkar onartzea eta goxotasun antzua,
ulerkuntza eta arazoak baztertzea,
onberatasuna eta erradikaltasunik eza
nahasteko tentazioan eror.

Jauna, egizu gure bilera emankorra izan dadila,
eta topaketaren amaieran
ez dakigula elkar maitasunarena beste zorrik
gera.

Emaiozu hazkundera gure anaitasunari,
bihotz eta arima bakarreko izanik,
zuk maitatu gintuzun bezala
elkar maita dezagun.

Izan gaitezela Zuk Aitarekin eta Espirituarekin
daukazun batasunaren lekuko,
munduak sinets dezan,
eta bere betera hel dadin bizia gure alde ematera
eraman zintuen irritsa.

ZURE MENDIAN BIZI NAHI DUT

Jauna, zure mendian bizi nahi dut,
Espirituaren indarrak ematen dituen
edertasunaz, argiaz, bizitzaz, ametsez
hordituta,
mundu ikusgarri honetatik haratago.
Zure misterioaren bila jardun nahi dut,
aztoramenetik eta larri minetik urruti,
nire bizi egarria ase dezakeen
bakearen bidean dabiltzan guztiekin
batera.

Jauna, zure mendiaren erraietan
bizi nahi dut,
topaketa misterioitsuak,
errukizko iturri bizigarriak
gordeta dauzkazun sakontasunean.
Profetek bezala,
ikusi gabe ikusi nahi zaitut,
nirekin zaudela jakin arren;
zure bila jardun nahi dut,
gurekin zaudela sinetsita,
baita zure eta gure ahaleginek
porrot egingo dutela
ematen duenean ere.

Jauna, zuri eta zure sorkariei emana
bizi nahi dut,
gure bihotzaren hondoenean
anbiguotasun ikaragarria dagoela
jakin arren,
eta anbiguotasun horrek zu eta zure sorkariak
maitasunaren apal ezberdinetan
ipini nahi dituela, kontrajarrita.

Jauna, zurekin misterioaren erraietan
bizi ondoren,
kanpora irteteko zure deiaren zain
nahi nuke egon, zutik,
eskatuko didazuna betetzeko prest,
baita xuxurlapenetan mintzatzen bazatzaizkit ere,
ezer aldatu gabe
den-dena antzaldatzen duen
isiltasunaren ahots.

Patxi Ezkiaga

ZUREGANATU EZAZU

Zureganatu ezazu eta hartu, Jauna
nire askatasun osoa,
nire oroimena,
nire adimena eta
nire borondatea,
daukadan eta dudan guzti guztia.
Zuk eman zenidan eta Zuri bihurtzen dizut;
dena da zurea,
erabil ezazu nahi duzun erara,
emazkidazu zure maitasun eta grazia,
horiekin nahikoa zait.

San Ignazio Loiolakoa

ZUREGANDIK BEGIRATU

Begira iezadazu,
Jesus Nazaretekoa.
Senti dekadala
Zure begirada librea
nire gainean pausatzea,
sinagogako esklabotzarik gabe,
kontutan hartzen ez nauen
eskakizunik gabe,
izozten duen
distantziarik gabe,
eros nazakeen
gutiziarik gabe.

Zure begirada ezar dadila
nire zentzumenetan,
eta sar dadila
txoko eskuraezinetaraino
nire ni ezezaguna
zain zaituen lekuan
Zuk ereindakoa
nire hasieratik,
eta errial dadila nire etorkizuna
isilik apurtzen
hostoen berdearekin
ehorzten eta
elikatzen nauen
lur xehatua.

Utz nazazu sartzen.
Zure barruan,
nire buruari begiratu diezaiodan
Zugandik,
eta sentitu
deuseztatzen direla
deformatzen eta hausten nauten
norberaren eta besteen
hainbeste begirada.

Benjamín González Buelta, sj

BIBLIOGRAFIA

Erabilitako liburuak

- BOFF, Leonardo, *Hablemos de otra vida*. Sal Terrae. Santander 1978.
- LETE, Xabier. *Egunsentiaren esku izoztuak*, Pamiela, Iruña, 2008
- PANORAMA, *Mensuel créthien de spiritualité*, Bayard Presse, Lille-Paris
- REAL NAVARRO, José. *Palabras desde el corazón*, CCS, Madrid, 2000
- SERNA ANDRÉS, José, *Salmos del siglo XXI*, DDB, Bilbao 1995
- Taldean, *Justizia eta bakea*. Arantzazu, Oñati, 2003
- Taldean, *Prières glanées*, Éditions Fidélité. Namar-Paris, 2002
- ULIBARRI, Florentino, *Al viento del Espíritu*, Verbo Divino, 2006

Gomendatuko liburuak

- EZKIAGA, Patxi, *Jaunaren supazterrean*, Arantzazu, Oñati, 2003
- LOIDI, Patxi, *Itsasorratzen*, Sal Terrae, Bilbao, 2004
- LOIDI, Patxi, *Izan bihotz!*, Idatz, Donostia 1987
- Taldean, *Jainkoari otoitza*, IDTP – DDB, Bilbao, 2007

Zenbait otoitz lortzeko estekak

- <https://pastoralsj.org/recursos/oraciones>
- <https://www.feadulta.com/es/a-modo-de-salmos.html>